

BELTZAK, JUDUAK
ETA BESTE
EUSKALDUN BATZUK

ezta
baida

Joxe Azurmendi

037

elkar

Azaleko irudia: David Alfaro Siqueiros
Egilearen argazkia: Juantxo Egaña
Bilduma: Borja Goitia

© Joxe Azurmendi Otaegi
© ELKARLANEAN S.L. 2018

L.G.: SS 73-2018
ISBN 978-84-9027-801-7

Elkar argitaletxea
Portuetxe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943 31 02 67

liburuak@elkar.eus
www.elkarargitaletxea.eus

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

HITZAURREEI HITZAURREA

Xabier Mendiguren Elizegi

Stanislaw Lem zientzia-fikziozko maisu poloniarrek badu ipuin-bildumaren bat, non kontakizunetako bakoitza beste liburu imajinario baten hitzaurrea den. Joxe Azurmendiren saiakera berri hau, izatez, hitzaurreen bilduma moduko bat da; alegia, ondoren datozen testuetako bakoitzaren lehen bertsioa aurretik beste libururen batean azaldu da noizbait. Hona, argibide bibliografikoak:

“Mestizajea, multikulturalismoa” Ignazio Aiestaranen *Munstro abertzalea* poema liburuaren epilogoia izan zen (Elkar, 2003)

“Juduaren ispiluan euskaldun bat ikusten da” Mitxelko Urangak idatzitako *Espektroak. Gutuna euskalduntasunari buruz* saiakeraren hitzaurrea izan zen (Utriusque Vasconiae, 2011)

“Historia ez da ikusten, asmatu egiten da” omenaldi liburu kolektibo baterako idatzia da: *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak* (EHU, 2011. Editore: Kepa Korta eta Jesus Mari Larrazabal)

“Espainola izateaz”, berez, Jose Mari Esparzak idatzitako *100 razones por las que dejé de ser español* liburuaren hitzaurre izateko idatzi zen, baina, luzera arazoak zirela-eta, ez zen

han atera. Azurmendik berak idatzitako *Espainiaren arimaz* saiakeraren atarian argitaratu zen azkenik (Elkar, 2006).

Jakin.eus webgunean sartu eta “Jakin talde historikoa” atalean Joxe Azurmendiri dagokion produkzioari erreparatuz gero, hitzaurre eta liburu-zatien artean ehun idazki baino gehiago dituela ikusiko du irakurleak, egileak lanerako izan duen tirriaren eta besteen eskarien aurrean erakutsi izan duen eskuzabaltasunaren erakusgarri. Bistan da, beraz, *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk* deritzan liburu honen izateko arrazoia ez dela egilearen edozein lan edonola biltzea.

Nik Azurmendiri liburu hau atontzeko baimena galdegin, eta berak trukean hitzaurrea paratzeko eskatu dit. Ezin, hortaz, ezetzik esan, egiteko honen aurrean larrubizitan sentitzen naizen arren. Izan ere, zer esan? Egileari buruz hitz egitea, autoreak berak debekatu dit, botako nizkiokeen lo-reen beldur, imajinatzen dut. Hitzaurre-artikuluen laburpen moduko bat egiteari alferlana deritzot, egilearen hitzetan eta ñabarduretan baitute beren balio osoa. Liburuaren aitzakian, nik neuk gai horietaz zerbait esatea litzateke beste aukera bat, Azurmendik berak erabili zuena testuok idazteko orduan; horretarako, baina, ez dauzkadan talentua eta jakituria izan beharko nituzke: liburu baten hitzaurregilea autorearen oso gainetik aritzea dotorea izan liteke (hainbat aldiz gertatu izan zaio Azurmendiri berari), oso azpitik nabarmentzea, aldiz, barregarria litzateke.

Bi hitzetan amaituko dut sarreratxo hau, horrenbestez. Testuen hautaketa nik neuk egin dut, eta baita testuen moldaketa ere, jatorrizkoetan zeuden hainbat zati kenduz (prologaturiko liburuei eginiko erreferentzia gehienak, esaterako). Helburua, liburu “berri” eta koherente bat eskaintzea

irakurleei, egilearen pentsamendu aberatsaren printza eder bat ematen diguna. Globalizazioaz eta unibertsaltasunaz ari da saiootako batean (*négritude* delakoa oinarritzat hartuta); herri zapalduak (batik bat juduak) izan duten autogorrotoaz beste batean; iragan asmatuak herri baten eraikuntzan duen garrantziaz hurrengoan (Frantziako eta Greziako adibideekin, besteak beste), baina, zernahitaz ari dela ere, gutaz ari da beti Azurmendi, erlatibista baina tinko, kosmopolita bezain etxeko, oroipenez eta itxaropenez osaturiko itsasargi bat balitz bezala, XXI. mendeko itsaso nahasi honetan galdu ez gaitezen.

(2018)

MESTIZAJEA,
MULTIKULTURALISMOA

1

Periklesen Hildakoen Diskurtsoan irakurtzen denez, gure bizitzako poz txikien tokia etxea da, poz handiena hiria. Pozak eta zorionak ez bide zuten behialako Atenasen beste sor eta iraungunerik hiria eta etxea baino. Gu, ordea, globalizazioaren aroan bizi gara. Unibertsaltasuna eta mestizajea dira oraingo diskurtsoan gizon-emakumearentzat egiazko poztasunen lekua. Gozaten dugun literatura edo musika, interesatzen gaituzten borroka politikoak, mundukoak dira. Kulturak eta modernoak izan nahi dugu, ezta? Etxea eta hiria joanak dira –gure pozen aberri bezala–, mundua da gure poza.

Eta gure pena. Wittgenstein beti bi mundutan zatiturik zebilela ikusten dugu –idatzi zuen behin poeta gazteak–: alde batetik bere jaioterrian, Vienan, eta bestetik bere adopzio-lurraldean, Ingalaterran. Bi Mundu Gerretan puskatuta mugitu ziren Wittgensteinen bizitza eta bihotza ere: lehenengoan berak, soldadu borondatezko, Austria-Hungariarekin egin zuen gerra; bere lagun min David Pinsentek ingelesekin, eta han hil zen. Bigarren Mundu Gerran bera Ingalaterran gelditu zen, ospitale batean erizain; bitartean lagunak eta sorterria nazien eskuetan. Horrela, ez zen leku batean gustura izan inoiz. Ez Vienan, ez Ingalaterran. Ez logika matematikoan, ez filosofian. Ez erlijioan, ez iritzi politikoetan.

Gaur egun esperientzia hori denok edo gehienok eza-gutzen dugu. Bakoitzaren inongoetzasun politiko, erlijioso, espiritual, edo nonahikotasuna, gurago baduzu, erreala edo itxurazkoa. Moda ere bada orain: “espíritu mugikor hori pos-modernitatearen bezpera da, mugikortasuna eta nomadismoa modernitatearen azken hatsak baitira”. Wittgenstein herraria erdi-katoliko, erdi-judu izango da; erdi-austriar, erdi-ingeles, erdi-logiko matematiko, erdi-mistiko poeta, dena eta ezer ez batera. Inor ez da bizi engoitik tradizio bakarrean, erlijio edo sinesgabezia bakarrean; ezta hizkuntza bakarrean ere –euskalduna gutxienez–, unibertso bakarrean, literatura bakarrean, aberri edo historia bakarrean. Arraza nahastuak gara denok barruan eta halakoxeak izan nahi dugu.

Txiripa batez gu ez gara Chiapas, Irlanda edo Palestinan jaio, baina zer axola, bagara Chiapas, Irlanda edo Palestina-koak ere. Pixka bat amerikanoak ere bagara denok, eta nahi dugu izan. Pixka bat euskaldunak, pixka bat hinduak. (Budismoaren historia irakurtzen dugu. Yogaz interesatzen gara). Ez, jadaneko ez gara Periklesen Atenas edo Errenazimentuko hiri harresitueta itxita bizi; baina ezta historia unibertsal eu-rozentrinen XIX. mendean ere, funtsean etxeko atean lotuta, ezezagunari zaunkaka. Eroriak dira mugak. Inor ez da jada “nazionalista” Europan, inork ez du izan gura. Pasea dago. Aspergarriegia da, gainera.

Ez dakit gogorra ala biguna, zer iritzi beharko zaion horri, baina horrelaxe da: mingarriro aspergarria da egun santu guztioro lelo politiko betibata lagunekin, egunkarian, telebis-tan, etxean, kalean, gure solas, entzunaldi, irakurkizun guz-tietan; kanpoan edonora joan eta berdin, beti musika bera, euskaldunak garela dakiten orduko; are, nekagarri eta gogoaren itogarria da korrontearen aurka igerian ibili behar dugu-

nean beti. Zigor gela bat bilakatu da gure mundua. Ez da erraza euskalduna izatea. (Izatea, izan nahi izatea da, enpeinatzea da, izateak izate simplea izan behar zuenean). Zerbait antinaturala bezala bihurtua dago.

Egia, hedabideen eta globalizazioaren biktimak garela esango duzu. Nagusien giroa da aldian aldiko giro nagusia, esango duzu, eta nagusi globalizatzaile inperialena eta haien mirabeena da egungoa, gure arazoaren larria ahaztarazi nahi diguna, munduan arazo larriagoak badirelako aitzakian –Elizak egiten zuen halaxe–, azkenean gu geu ere tarraka eraman garamatzana geure fede onean, egunero pixka bat gehiago erremedio gabe. Egia da. Etengabeko erasoaren pean bizi gara. Gure paisaia urruntasunik gabeko mendiarte estua dela errepikatzen zaigu; argi eta horizonte zabal gabekoa; ibarrek itxi egiten dutela gure ikusmuga eta espiritua, gure hiri handienak berak auzoak direla eta Euskal Herri osoa barrio bat, bere mitoen lanbropean kukuldua. Gainditu beharra dagoela euskal arazoen probintzianismoa; ordekararen irten, mundura, unibertsoa (Madrilera!)... Eta zer?, gezurra ote da hori dena? Denok sentitzen dugu gezur horietan egia gehiegi dagoela. Kontraesan kaos batean bizi gara. Gure etsaiekin ados eta haserre. Askotan, etsaiek aurpegiratzen digutena, geuk sentitzen duguna da. Ez da, beraz, etsaien polemika eta iseka kontua bakarrik, eta gutxiago moda edo presio globalaren arazo soila, maiz ihes egin behar izaten badiogu politiko eta filologo edo gramatiko euskaltzaleen alamenari (bizia bizi nahiz, beste gabe), zeruazpi zabalago bila. Politika beti abertzaleak aspertu egiten gaitu. Aspertu egiten gaitu eten-gabe euskara, euskararen ajeak, euskal literaturatxoak, euskal bertsolariak, euskal txistulariak eta panderoak eta euskal mi-seriak besterik ez dakien euskal kultura narrasti batek. Be-

ti euskal presoak, euskal markoa, euskal sukaldaritza, euskal txirindularitza, euskal herri kirolak, sagardotegiak. Gehiegi da. Arnasa behar dugu. Mitologia grekoa nahi dugu ezagutu. Afrikako poesia. Munduko haizea. Eta etxetik eta hiritik ihesi, mundu berrietan identifikazio –identitate– berriak bilatzen eta aurkitzen ditugu, libre izateko. Denok daukagu horrela arima bat baino gehiago barruan, arima diferenteak. Eta arima batek bestetik askatzen gaitu pixka bat; aberri batetik besteak; historia batek bestearen zama jasangaitzetik. Hala, literatura errusiarra, haurtzaroko opor baten oroipena, gazetako maitasun isilen gogomina, gure errefuxiatzeko etxe txikiak bilakatu dira; eta Erroma, Atenas edo Florentzia gure sorterriak dira, Zegama edo Iruñearen ondoan.

Alegia, lehenago –ez da hain aspaldi– Europa osoan horri alienazioa esaten zitzaion, “Entfremdung”: arrotzea, errogabetzea, norbestetze edo besterentzea, norbere izaera jatorra galtzea. Eta demonizatua zegoen alde guztietan, ideologo burgesetan nahiz iraultzaileetan. Subjektu moderno famatuak oraindik gotor zirauen. Nortasuna bloke sendo pitzaturgabetzat hartzen zen oraindik. Osoko karaktere viktoriano bat. Halakoa esijitzen zen nor izateko, geroz eta (jada Hölderlinek erdibitua aurkitu zuen gizarte burgesean) gutxiago aurkitzen bazen ere. Hegeliano edo marxista, denak ados ziren, horregatik: masa errogabeen –“bizkarrezur gabekoak” esango zuen Ortegak– alienazioa da minbizi modernoa. (Urteotan arruntu den “masa” berbaren erabilera bera aski esanahitsua da; ikustea dago P. Sloterdijken *El desprecio de las masas*, 2002). Langileari bere eskuen produktua arrotza bihurtzen zaio, protestatu zuen Marxek. Bere komunitatetik eten eta urrundu, bere gizartea gabetu, giza naturari arrotu egiten zaio proletarioa. Bere kultura ez da berea. Ez du

bere-bere moralik, nortasun propiorik. Ez da gizaki bat, bere buruaren jabe. (“Proletarioak ez *du* aberririk” esan zuen halaber: progre batzuek “aberririk ez du izan behar” itzuli zizuten espainolera). Gizakia desgizatzen duen aberririk eza edo errogabezia hori, kapitalismoan, Manterolak eta Orixek eta deitoratua –gure progreek ridikulizatzen zuten deitorrea–, Karl Polanyik aztertu zuen, Euskal Herriko industrializazioarentzat ere egokitasun guztizko analisisetan, 1944ko *The Great Transformation* liburuan, historia ekonomikoaren aldetik; Simone Weilek, 1949ko *L’enracinement* liburuan, historia politikoaren aldetik, ezker-ezkertiar bi bakarrik aipatzeko (ezdogmatikoak; horregatik “ezkertiar profesional” askok ignoratuak hemen). 1948koa da *1984*, nortasun anulatuaren Estatua (G. Orwell). Jada 1931koa zen Huxleyren *Bai mundu berria*. Poesian L. Damas, bera mestizaje kasu historiarian eredu zko baten produktua izaki, “négritude”ko poeta, 1912an Cayennen jaioa, lekuko baliagarria da, arbasoen erro galduengatik bere ni desagertuagatik bezala aiene eta otoi egiten duenean (ik., orobat, “Le Hoquet” adibidez; antzera-tsu adiakatu baita batzuetan Celaya gure artean):

*Rendez-les moi mes poupées noires
que je joue avec elles
les jeux naïfs de mon instinct (...)
redevenu moi-même
nouveau moi-même
de ce que Hier j’étais
hier
sans complexité
hier
quand est venue du déracinement.*

Orain baino lehen, mestizajearen arazoa, moduren batean, 60ko azken urteetan edo 70.etan ibili zen estreinako aldizgure artean, orduan Senghorren poesiaren eta “négritude”aren inguruan piztu ziren polemika batzuekin lotuta, zuzen oroitzen banaiz, poeta horien obrako mestizaje kulturala goratzen edo eztabaidatzen baitzen. Arazoa bera zabalagoa eta lehenagokoa zen.

“Lirika beltzak”, Lehen Mundu Gerraren ostean, komunitate afro-amerikarren ahozkotatasuna eta sentimenduak, oihartzun biblikoak, jazzaren erritmo eta harmonia subtilak eta disonantziak, Harlemgo dialektoaren kolorearekin konbinatuz Ipar Amerikan loratu eta gero (McKay, Langston Hughes), bere produkzio erdigunea Antilla frantsesetara pasa zuen Bigarren Mundu Gerraren inguruan eta ondorenean (Aimé Césaire martinikarra, Léon G. Damas Guaianakoa, etab.). Ingelesetik frantsesera pasa zen, beraz –Nicolas Guillén Kuban ahazten badugu–, eta New Yorketik Parisera, hemen(dik) Afrika frankofonora zabalduz, Léopold Sédar Senghorrekin bereziki, Parisen zegoen senegaldarra berau. Ispiluak ditugu. Problemaren ispiluak ere bai. Mestizaje kultural-poetiko hori substantzialki, esan dezagun, positiboa zen; edo kontsidera zitekeen behintzat momentuan oso positiboa. Positiboa, zibilizazio zuri nagusiarentzat zen batik bat, baina baita beltz eta mulato zapalduentzat berentzat ere. Ordura arte espresio idatzira atek itxita egondako beltzek, kultura literario ofizialean existentziagabeek, “beren literatura” zuten. Existitzen ziren kulturean! Bestetik, zibilizazio zuriaren mintzairerako poesia nekaturak, indizio berriarekin, bizitasun berri bat bizi izan zuen. Arte primitibo afrikar eta ozeaniarreko kontaktuarak pintura europarrean lehentxeago bide berriak eraginak zituen moduan (Picasso baitan edo espresionismoan, adibi-

dez), poesian ere lirika beltzaren bultzadak iraultza bat ekarri zuen –poesia frantsesaz ari naiz orain batik bat–, ustekabeko metafora, irudi-mundu, erreferentzia, esamolde, transgresioetan aberatsa. Lirika beltza, puri-purian zegoen surrealismoaren heldutasun eta gailur bezala ospatu zen Pariseko sektore abangoardistenetan. Iraultza poetikoaren garaipena. Poesia berria izateaz gainera, sozialki ere mingoski ausarta baitzen, beltzen zapal eta ustiaketa mendeetakoaren salatzaile. Nagusia hil duen esklabo errebelde zigortuak, Kristorekin eta Eskiloren Prometeorekin batera asoziatua, mito berri (“mestizatu”) kitzikagarri bat altxatzen zuen bandera. Poesia berriro herriaren aspirazioen kanta eta erritmo bihurtzen zuen. Poesia, ostera, herriaren poesia. Modu askotan garaiko espirituaren espresio pribilegiatua zen poesia honek, horrela, menta literarioaz gain, arrakasta politikoa irabazi die poeta beltzei urte batzuetan Frantzian (Senghorrek kargu altuak izango ditu administrazio eta diplomazia frantsesean, behin baino gehiagotan Frantziaren ordezkaritza internazionala bere gain izango du).

Bigarren Mundu Gerrak, ordea, eta jarraiko deskolonizazio prozesuak, gauzak konplikatu egin dituzte. “Frantzia salbatu” zuten batailoi beltzen desengainuak eta deskolonizazio exijentzia Frantziak itsu ukatuek “négritude” proiektua kontraesan zailetan nahastarazi dute. Afrikan militantzia antifrantses eta antieuroparra joango da nagusituz ezinbestean, mestizajearen ideia-aren lekuan. (Urteotan “senegales” hitzak orain zipaio esaten denaren antzeko esanahia hartu du). Zer egin behar zuten Estatu afrikar berriek: Europako kultura kopiatu? Eternitate guztian bigarren mailako europarrak izan? Ordura arte gizadiaren zibilizazioa –hari hegeldar-marxistan– zibilizazio bat eta bakar progresiboa supo-

satzen zen, ez zibilizazio ugari ezberdinen elkarketa bezala, diferentzien begirunearekin. “Négritude”ko poeten mestizajeak, bada, “zibilizazio unibertsala” zuen helburu, munduko gizon-emakume guztiena diferentziarik gabe. Xedea beltzei zibilizazio horretan beren lekua irabaztea zen. (Badakit puntuotan Senghor eta Damas, esaterako, ez dagoela berdintzerik, baina guztiez oroharki mintzatuko naiz). Lirika beltzak “arrazoi helenikoari” –Europari: teknika eta zientziari– “arima afrikarra” kontrajartzen zion, oso orduko oposizio modu batean; unibertso berri bat, gizakiarena, nazionalismoen XIX. mende europar zaharrari (XIX. “mende luzea” Lehenengo Mundu Gerraren bukaeraraino luzarazi ohi da), zuri eta beltzik gabe, denen askatasun eta anaitasunezkoa. Funtsean, Europako abangoardien xede bera zen, baina “négritude”tik ikusita eta aberastuta. Agertu zen, ordea, xede “unibertsalaren” aldarriak europarrentzat balio zezakeela irekitasunera dei bezala, baina herri beltz kolonizatuak birkolonizatzeke balio zuela aldi berean (europarron kultura “unibertsalean”). De fakto, mestizajeko zibilizazioa literario soila zen bitartean –mugatutasun horregatik ez zitzaion sortu hasieran kontraesan gehiagorik–, “zibilizazio unibertsal” horren esanahia izan zitekeen, arazorik aurkitu gabe, guztiz orokorra eta ber denboran guztiz partikularra, guztiz frantsesa alegia: linguistiko eta literarioki, hasteko (Antilletako beltzek aspaldi galduak dituzte –“mestizaje” baten biktimak!– beren hizkuntza afrikarrak: frantsesa da beren komunikabide naturala; Senghorri ez dio problemarik sortu frantsesa hautatzeak bere zibilizazioko hizkuntza unibertsaltzat), eta politikoki gero (Senghor nazionalista frantses bat da). Deskolonizazio mugimenduek, ordea, bi Afrika beltz zegoela jarri zuten agerian, bat frantsesa eta bestea ingelesa (edo hiru: portugesa), eta

bakoitzaren mestizajeak –bakoitzaren “zibilizazio unibertsalak”–, paradoxalki, Afrika banatu egiten zuela, batu orde. Koloniak independizatu edo independentzia borrokan sartu ahala, dilema sortuko da, kultura europarra ala afrikarra hartu behar duten. “Hizkuntza europarreko literatura kolonizatuak” landuz, Memmik esango duen legez, zibilizazio famatu horretatik kanpora lagatzen dira jatorrizko hizkuntza afrikarrak, egiazko Afrika historiko guztia hortaz. Zer egin Afriko mitologia, erlijioekin (ez kristautasuna eta ez islamismoa dira “beltzak”), “filosofia afrikarrarekin”? Dilema politikoak odoltsuagoak izan dira. Afrika osoa Europako kolonia zen orduan. Alemanek Frantzia okupatu dutelarik, soldadu beltzak, oroz gain senegaldarrak dira aurreneko lerroan alemanen aurka gudukatu eta “Frantzia salbatu” beren “odol beltzarekin”. Senghorrek Frantziaren alde hartu ditu armak, amets bakarra Frantziaren askapena izan du; “Frantzia batua” eta soldadu senegaldarrak kantatzen ditu fronteko poesietan, Frantziaren askapenaren alde egiten du otoitz Jainkoari gartsu, “Stalag 230”ean nazien preso dagoela (E. Salaberry euskalduna egon den bezala, “Stalag IV B”an preso eta “frantses nazionalista” gartsu halaber); libertatean berriro Parisen, “Bake otoitz” jaukalean (“Jauna, nazio zuri guztien artean, para ezazu aitaren eskuinean Frantzia”), maitasun mugagabezko monumentu bat eraiki dio Frantziari, 1945eko urtarrilean. Ordea, frontean onak zirenak aurre-aurrean joateko, garaipen ospakizunetan bazterrean geldituko dira, “mespretxuzko alabantzak” hutsalez soilik ordainduak jeneral zurien diskurtso zurietan. L. Damas, “négritude”ko poeta kaustikoena, sarkasmoz zuzenduko zaie senegaldarrei, Alemaniak okupaturiko Frantziatzat arranguratzen direlako, Frantziak okupaturiko beren aberriaz arranguratu behar luketenean. Frantz Fanon, Fort-

-de-Franceko Institutuan A. Césaireren ikaslea bera, hamazortzi urterekin klandestinitatean sartu eta Frantziako indar libreekin jardungo da gerran. “Je me suis trompé”, aitortuko du lapidario amaieran: ez dut arriskatu bizia askatasunagatik, zurien askatasunagatik baino. Urte gutxitan giroa arras aldatu da. Senghorren “mestizajeak” (pertsonek bere zainetan odol ttantta portugesez batzuk eduki uste –gura!– zuen berak) honezkero kritikoa gogorak izango ditu. 48an publikatu da Senghorren *Poesia beltz eta malgaxearen antologia* garrantzitsua, “négritude”aren euforian oraindik, Sartreren hitzaurre dotore batekin gomendiozkoa (“Orphée noir”); 57an publikatu du Memmik *Kolonizatuaeren ezagugarriak*, eta hitzaurrea Sartrerena da orobat, baina militantea orain, Afrikari gerrara eta Europarekin etetera deika. “Herri batek bere heriotzaren tankeraz besterik ez daukanean hautatzerik, eta zapaltzaileengandik etsipenaz besterik ezer har ezin dezakeenean, zer besterik gal lezake? Zoritzarra bera bilakatuko du bere ausardia; eta kolonikuntzak ezarri dion arbuioaz, kolonikuntzaren arbuio osoa egingo du”. Ez dago ja mestizaje konturik. Etena galdatzen da. “Utz dezagun Europa hori –idatzi du Fanonek, gazterik hil hurrana–, inoiz ez duena gizakiaz kalakatea bukatzen, topatzen duen edonon masakratu egiten duen bitartean”. Ez naiz gehiago luzatuko historia honetan. Irakurleak gogoratuko duenez, literatura honek 60/70 urteetako euskal gazteria ezkerzalean eragin handia izan zuen. 1970ean euskaratu du Arantxa Urretabizkaiak F. Fanonen *Afrikar iraultzaren alde*; 74an Txillardegik Memmi; *Damnés de la terre* (1961) klandestinitateko brebiarioa bezala izan zen momentu batean. Mestizajearen arazoa, beraz, bigarren aldiz jotzen dugu oraingoan. Eta estreinakoan tragedia dena, bigarrengoan fartsa izaten omen da.

Kontraesan artean bizitzen ikasi behar izan genuen. “Kulturalistak” ginenok, txit borrokalari batzuek erdeinuz esaten zutenez –“où sont les feux d’antan?”: orain boteretxoetan daude, eta betiere borrokatxoetan–, kulturaren munduan normala eta emankorra mestizajea dela pentsatzen genuen, orain bezala orduan, ez etena, politikan etenak behar-beharrezkotzat edukitzeari utzi gabe horregatik batzuetan, eten ahal bada. Gainera, orduantxe genbiltzan gu, euskal mundu itxia iruditzen zitzaigun Orixe eta abarren tradizioari ihes egin nahita, edozein literatura atzerritarretan erreferentzien bila. Mestizaje kulturalaren kontrarioa ezin izan naiz, hortaz. (Gure belaunaldiak zerbait bilatu badu, mestizajeak izan dira. Kulturalak, ideologikoak... imposibleak zirenak ere). Gogoratzen naiz, ordurako bazituen kritiko zorrotzak baina, Senghor lehen aldiz irakurri nuenean, nolako zirrara eta txundidura eragin zidan. “Négritude”ko poetek beren aberriei ez dakit zenbat eman dieten, Europari asko eman diote. Egia da, beraz, horrela nahi bada: diferentziek elkar osatzen dute. Kulturari, horrela, logika bitxi batek objekziorik gabe balio duela ematen du: Sédar Senghorrek literatura frantsesa aberasten du; literatura frantsesak Afrika aberasten du; Sédar Senghorrek, Frantzia aberastuz, Afrika aberasten du...

Bai, denak dena osatzen du eta aberasten du “mundu posibletarik hoberenean”. Ideian. Errealitate xumean gauzak –atzo kolonialismoan bezala gaur globalizazioan– korapila-

tsuagoak dira. Kultura ez da bakandua, irlatua ematen. Kulturak bere historia soziala, politikoa, ekonomikoa izaten ditu. Poeta beltzak –beraiek esan dute hori nahikoa–, mestizajearen autoreak baino lehen, mestizajearen biktimak izan dira. (Zer besterik gara gu geu?) Mestizajeak beti dauzka bere onuradunak eta bere kaltetuak. Batzuk aberasten ditu, beste asko puskaildu egiten ditu, herri eta kultura osoak. Globalizazioaren eta unibertsaltasunaren sinplismo batek nahi lukeen baino katramilatsua goa dela diferentzien arteko bizitza, egunero esperimintatzen dugun zerbait da, bai indibidualki eta bai kolektiboki. Egia da: denok aberri –arima– asko dauzkagu eta behar ditugu libre izateko. Gure barnean kultura ezberdinak, ahots ezberdinak mintzo zaizkigu, ari zaizkigu deika. Elkar osatzen dute. Diferentzien jokoak askatzen gaitu, egiten gaitu libre. Tradizio bakar higiezin baten harlauzapean geundek bestela eternalki lotuta, geldi. Diferentzia da, kontrastea, mugimendua –itsasoa, mendia eta zeru izarra– mundua ederra egiten duena, eta ederrak libre.

Hori egia da; batez ere, egia horrekin zenbat gezur ezkutatzen den, ezkutatzen bada. Dena ez baita diferentzien harmonia eta gozo hutsa. Ikusmolde horretan, ikusi gabe uzten da apropos konfliktoa. Arima guztiak gure barruan ez baitira berdinak, apenas antzekoak ere. Haize-orratza ez den edozeini bederen, diferentzia askok (*Metodoaren Diskurtsoa*-k kanibalen razionalitateak gure razionaltasunarentzat adierazten duen desafioa aipatzen zuen etsenplu gisa) ukaziozko kontraesana sortzen dio, eta borrokatu eta aukeratu beharra dago. Beraz, zirt ala zart ukatu eta ezabatu beharra, ez arduragabeko mestizaje jolasik. Diferentziak ez dira indiferenteak. Denak ezin dira eneak izan. Batzuk mehatxu bat dira niretzat. Beste batzuentzat ni naiz mehatxua, eta ezin naiz

eta ez dut nahi ez izan. Betiko adibidea emakumearekiko tradizio afro-asiar batzuk dira. Badute beren arrazoizkotasuna. Kontrako gure iritziak bezain razionalak dira absolutuki begietsirik, razional bezala (inkisiziokume progrenahi batzuek bakarrik ukatzen dute hori, dena nahastuz). Beste gauza bat da, arrazoizkotasun hori, ez bakarrik ez dela gurea, baizik ezin dela gurea izan. Are, gure kontzientziak –identitateak–, beraz, gure razionalitateak, haien ukoa eta borroka agintzen digula, historia konkretu batenak baikara gu ere produktua, eta ezin gara ez izan. Diferentzia asko onar daiteke, beste asko onartezina da. Kontraesana erabatekoa denean gure baitan, arima biak gelditzen dira bularrean buruz buru, besteak isildu eta, hi ala ni: konponbiderik ez da posible izango. Honek eguneroko gure arteko mila atazatxorentzat berdin balio du. Borroka artean egin behar izaten ditugu bizitzan geure hautu moralak, literarioak, politikoak, filosofikoak. Geure hautu existentzialak. Denak baiespen eta uko artean erdietsiak. Honi bai, hari ez. Askatasun absoluturik ez dago. Nire historia pertsonal honetan, naizenak adina, ez naizenak egiten nau. Negatibitatea esentziala da, esentzialki mugatua den izakian. Azken finean, mugak jo ez dituen, kontraesana aurkitu ez duena, ezetza ikasi ez duena, aukera egin ez duena, inongoa ez da, eta ez edonongoa.

Inoiz ez gara egiaz edonongoak. Dei asko eta asko, bizitzan suertatzen zaizkigun gehien-gehienak, urruneko iluntasunetik bezala heltzen zaizkigu, eta faszinaturik entzuten ditugun gomitak dira. Baina diferentziak, maitatu arren eta ahalegindu arren, diferentzia izaten jarraitzen du, ihes egiten digu, zein gutxi garen egiaz “edonongoak” ebidentzian jarritz. Bakoitza, bera dentxo izateraino iristen da, eta ez gehiago. Kultura txinatarra zoragarria da, baina ni ez naiz txinatarra.

Zenbat eta gehiago estudiatu Mexikoko kulturak, garbiago gelditzen zait ezin naizela zinki haietan barneratu. Westfaliako ospitale batean agureekin mintzatzen naizen oro, zulo bat bezala sentitzen dut nire baitan haien haurtzaroaren falta, ulertu ahal izateko soil-soil haien zahartzaroko mundua. Ez naiz sekula indiar bat, japoniar bat izango, mundu guztia ibili eta irakurri arren. Esperientziak irakasten digu, zein geu garen eta ez bestea; txikitatik geure-geurea ez den herri, tradizio, erlijio, kultura, jendeetan (haien umorean, sentimenduen mintzairan) ozta zulatzen dugula. Zeure mugen preso gelditzen zara beti. Egunero deskubritzen duzu aspaldiko lagun alemana, ikaskide palestinar musulmana, primadera batean ezagutu zenuen andragazte judu italo-tunisiarra, Hendaian egoten dena orain alabekin uda oro, bizilagunaren gaztetandiko adiskide lesbiana, elkarrekin paseatzen zaretena ibai ondoan, zeure kuadrillako jendea, beraiekin harreman aski estuak urteetan izan eta gero ere, funtsean ezezagunak dituzula. Zu zeu beraiei arrotza zatzaizkiela. Azken finean “besteak” beti ihes egiten dizu –andralaguna edo haurra, edo zure autore faborittoa bezain hurkoa izanik ere–, bestea beti misterio bat da. Apaltasun pixka bategatik besterik ez bada, lotsa izan beharko ginateke inoren aurrean gure unibertsaltasunik ahotan hartzeko edo hartzen uzteko. Gure mugatutasun hori –mugatutasun pertsonala bezala gure hautu existentzialena, gure kulturarena edo gure moral hauskor eta ezegonkorrarena–, hau da, gure “unibertsaltasunaren” fikzioa, egunero ikusarazten digu errealitateak.

Idazten ari naizen Kolonia honetan, munduan metropoli handietakoa izan gabe, mestizajea edo multikulturaltasuna, Madril baten aldean esaterako, bai kokagune geografikoagatik eta bai historia luze batek halakoxetu izan duelako (has-

tapenean kolonia erromatarra, Neronen amak fundatua; gero plaza frankoa, hiri independentea Inperio erromatar-germanikoan, prusiarra hurrengo, frantsesa aldi batez, egun Belgika eta Holanda ondoko hiri alemana), mendeetan zehar hiriar bere arkitektura eta aspektu urbanistiko guztia antzinadanik markatu dion zerbait da, kalean edonon topatzen duzuna, jendeetan bezala eraikinetan, lehenago gerren edo Ipar Europako erlijio eta sekta ugarien mugimenduen ondorioz, orainago XIX. eta XX. mendeetako migrazio politiko eta laboral bortitzen obraz (edonon ondare erromatar edo ertarotarrak; kapera katoliko nahiz protestante, sinagoga, meskita; grekoen azoka, belgiarren auzo, denda japoniar edo turkoak). Biztanleriatik ia %19 da ez alemana. (Bilbon, adibidez, %2,5 baino ez da ez Estatu espainolekoa; Madrilen %5-6. Gainera, etorkinotako gehienek badakite espainolez mintzatzen Bilbora/Madrilera jin/joan baino lehen; Alemaniakoek ez dute alemana jakiten). Arrazoi eta historia franko ezberdinak bokaleratzen dira Koloniako immigrazioan: latinoamerikarrak 2.000 inguru dira, beste hainbestetsu iparramerikarrak. Bakarrik, latinoamerikar asko exiliatua dela. 7.600 afrikarrak, 13.700 asiarrak, turkoak zenbatu gabe. Hauek, beti immigrazio handiena hiri alemanetan, 72.000 dira berak bakarrik, beren eskola erlijioso, organizazio politiko, salerostegi eta prentsa propioez, presentzia publiko handiarekin. Gerra edo jazarpenetako iheslariak, nola zaharrak hala berriak: armeniar, azerbaijandar, bosniar, afganiar, ruandar, vietnamdar, kanbodiarrak, laostar, srilankatar, kubatar, txiletarrak; 2.000 irakiar eta 5.500dik gora iraniar edo pertsiar. Europa ekialdetar ohiko hainbat naziotako ordezkariak: errusiarrak 4.300, poloniarak 5.300, serbiarrak 10.000tik gora (kosovotarrak barne!), 3.000tik gora ukrainarrak, kroaziarrak ere ia 3.000, 1.000tik

gora mazedoniarrek; talde dexenteak orobat kazakhiar, kirgi-
ziar, hungariar, txekiar, bulgariarrak; txikiagoak eslovakiar, es-
loveniar, georgiar, moldabiar, uzbekiar, lituaniar, estoniarrek.
Europa Batu barruko langile immigrazio klasikoa: 21.000 ita-
liarrak, 6.800 grekoak, 3.600 portugesak, 3.000 paseak espai-
nolak berak. Beharrak eraginaren alboan, immigrazio kultural
eta tekniko berriagoa dago, ofizial berezitu eta profesionale-
na: ia 3.000 frantses, 2.500 britainiar, kopuru berdintsua her-
beheretarrena, 1.700 belgiar, 500 inguru japoniar eta beste
hainbeste suitzar eta eskandinaviar, 1.500 txinar. Kultura eta
nazio pila bateko klub, folklore eta kirol eskola, musika talde,
restaurant eta bilgune, museo, otoileku, tenplu, irakurtegiak
aurki daitezke hiri osoan barreiatuak. 84 estatu-nazionalitate
ezberdinetako jendea bizi da oraintxe, 180.000tik gora, na-
zionalitate alemana hartua dutenak zenbatu gabe, milioi bat
inguru arimako hiri honetan. (9.000 eskas Bilbon, 231.000
Madrilen). Zenbat diren egiazko nazioak eta hizkuntzak eta
erlijioak, Jainkoak daki. (Estatistikarentzat euskaldunak eta
katalanak, adibidez, espainolak dira; Errusiako edo Txinako
nazionalitate ezberdin ugarietakoak, estatu-nazionalki de-
nak errusiar eta txinarrak, beste gabe; kurduak turkoak dira,
etab.). Etiopian, Nepalen edo Txinan zer problema politiko
dagoen jakin nahi baduzu, egunero bada ikuskizun edo ekital-
diren bat izkinarren batean, oso erraz kausituko duzu bertoko
norbait informatzeko. Alemanez hitz egingo duzue. Ziurra-
go dena, ez duzu astirik izango eta batere ez duzue hitz egin-
go. Bakoitza bere munduan biziko zarete. Gogoratzen naiz
behin nola irakasle madrildar batek, mestizajearen apologia
sutsua egiten ari zela, adibide gisa Madrilen *okay, up to date*
eta, ez dut buruan, gazteek arrunt erabiltzen omen dituzten
antzeko hiruzpalau esatera ingeles aipatu zituela seinale gisa.

Gazte kulturaren internazionaltasunaren seinale. Eta harro, gizona. Pentsatu nuen, hark gure gazteen euskañola bezalako zerbait urrundik ere sekula entzun gabe zeukala. Ulertzekoa begitandu zitzaidan, berak imajinatu ere ezin duen zerbait izatea, mestizajea problema *ere* izan daitekeela, folklore linguistiko edo musikal pixka bat besterik ez baitzirudien harrentzat. Kolonian askotan egiten den alemana –neuregandik hasita– ez da oso diferentea; alemanek berek asko nahasten dute ingelesa alemanarekin (asko esaten dudanean, asko esan nahi dut). Baina batak eta besteak ez daukate zerikusirik. Bigarrena *chic* da, kultura; bestea, inkultua, ezinaren nahaslore (mestizajea, hain zuzen). Alemana ingelesarekin mestizatzen duten klase eta jendeek, inoiz ez dute mestizatzen turkoarekin. Logikoa da. Erljio, moral, kultura diferenteak indiferenteki bizi dira elkarren ondoan, indiferentzia maiz aski agresiboan hala ere. Ez hoberako eta ez okerragorako dago betarik, ez interesik, erdeinuzko errukiz edo kontzientzia txarrez “toleranteak” izateko baino gehiago. Hemen gutxi ikusten diot inori mestizaje kulturalaren harrokeriarik. (Ba ote dago, egon ere?). Edonon entzuten dudana eskolako problemak, integrazio falta, alemana ez dakiten gazteen etorkizunik eza, kriminalitatea, arrazismoa, hiriaren zikinkeria, etorkin auzoen narriadura, gizartearen kraskadura, hizkuntza alemanaren irakaskuntza sendotu beharra eta gisako preokupazioak dira, bai jendeari eta bai politikoei. Nolabaiteko “mestizajea” egon badago, erreal da, onuragarria da, eta problema handia da.

Zer da mestizajea eta zeri deritzogu unibertsala? Mestizajea, seguru asko, pobreen gauza bat da. Eta predikatzen zaigun mestizajeak seguru asko esan nahi du miseriarekin kontent egotea izan behar duela gure destinoak. Txikizio asko egin

eta gero hasten da mestizajea aberastasuna izaten, historian kalbario asko bezala.

Unibertsaltasunari dagokionez, egia esan, zer unibertsalagorik Periklesen etxea eta hiria baino, alegia mendiko baserria eta auzoa baino, edo gure herri zatarretako kale bazterrak baino, mila influentzia moduren produktu historiko nahasiak denak? Kultura bat, txikiena ere, ia beti da mestizatua; eta beti-beti da unibertsala. Izaeraz edo naturaz denak unibertsalak (Amazoniako tributxo edo kulturatxo batek gizatasunaren garapen oso-osorako posibilitate bat, eredu bat eskaintzen du edozein gizon-emakumerentzat, printzipioz munduko beste edozein bezain baliozkoa), existentzian, hau da, denboraren baldintzen pean, kultura guztiak dira partikularrak, eta de fakto elkar eskuditzen dute hein batean, hein batean elkar barnebiltzen, hein batean elkar osatzen, aberasten. Gizaki izateak, giza kultura izateak, posibilitate bat izateak edonoiz edonorentzat egiten du unibertsala kultura bat edo gizaki bat – gizaki oro eta kultura oro. Aldi berean, denok derrigor orain-hemengo gizaki haxe, kultura haxe izateak, eta ez “besteak”, unibertsalari kontraesaten dio ezinbestean. Teinka horretan existitzen gara denok, gizon-emakumeak nahiz kulturak, denok berdin unibertsal eta berdin partikular mugatuak zero eta infinitu artean, idealetik txikiak eta handiak berdin urrun, denak berdin partikular mugatu. Teinka hori giza existentziaren baldintza esentziala dela ezkutatu nahi izaten du globalizazioaren eta mestizajearen diskurtso jai girozko guztiak.

Ez da ezer berria, “Inperioa” beti horrela mintzatu izan da: estoizismoaren ahotik, kristautasunaren ahotik, Ilustrazioaren ahotik. Zerbait hunkigarria eta indignantea dauka Seneka esklaboaren eta jabearen berdintasunaz meditatzen ikusteak.

Diferentzia ez da beti konfliktua; baina konfliktua denean, ukatuz gainditzen da. Mendebaldeko dominazio kulturaren ezaugarri bat da diferentzia konfliktiboak guztiaren “berdintasunaz” gainditzea. Hots, partikular konkretu bat deklaratzeko unibertetsala: horrekin beste guztia ezabatua edo azpiordenatua gelditzen da. Unibertetsala gizaki filosofikoa da; beste gabe, esklaboa ez da gehiago esklabo, munduko hiritarra da (“erromatarra”). Ez dago judu ala grekorik, esan du Paulok, salbazioa unibertetsala da: eta grekeraz esan du. Eliza “katolikoak” ebanjelioa lehenengo latino-erromatartu egin du, eta forma horretan ezarri du dogmatikoki mundu guztian (Judea probintzianoko ebanjelioa izanez bakarrik zena egiaz unibertetsala). Horrelaxe mintzatu izan da orobat giza eskubide unibertetsalen “Iraultza” mendebaldean, Humboldtkek jada ohartarazi bezala: unibertetsal, hau da, modelo partikular baten arabera berdintzaile. Frantziako Iraultza, Iraultza guztiz unibertetsalista zen, teorian: gizakia qua gizakiaren eskubide naturalena, abstraktuago eta unibertetsalagorik ez dago. Errealitatean, diskurtso unibertetsalistaren azpian Frantzia zegoen, egon, partikular eta konkretu: Errenazimentuaz gero, geroz eta Frantzian nagusitzenago dakusagun kultura uniformatzaile absolutista. “Il est assez remarquable –erreparatu zizun Benjamin Constantek halaber (baina hauek zinez ziren liberalak!)– que l’uniformité n’ait jamais rencontré plus de faveur que dans une révolution faite au nom des droits et de la liberté des hommes”. (Harrituta irakurri diot egunotan Etienne Salaberryri: “Denborak iragan behar ohartzeko erreboluzioeko solas ederren gibelean gorderik zagola Frantziako oilar, eremuz eta ontasunez gose-hamikatua...”). Onerako zein txarrerako, unibertetsala ezin da eman, partikularren forman ez bada. Partikularra landuz bakarrik loratzen da unibertetsala.

Eta bere unibertsaltasunaz asko loriatzen denak, kasik seguru, bere partikularkeriaren bat ezkutatu nahi digu.

Errotiko anbiguotasuna baino okerrago –errealitate gizar-tetarrak beti baitira anbiguoak–, obligazioa bezala da gaur unibertsaltasuna goratzea, baina esan behar da, historian ikusten den eran, unibertsaltasunaren ideian bertan zerbait ankerra, destruktiboa dagoela. Intolerantea. Errukigabea diferentziarentzat (pluralismoa goraipatuz, noski; Erromako Inperioak politeismo nabarrena kultibatzen zuen bezala, baina den-denei Inperatorearen kultua exijitzea ahazteke), hots, errukigabea ahul edo menperatuarentzat, hori –eta etsaia– deklaritzen baita beti “diferentea”. Diferentzia, de fakto, “unibertsal” handiaren fabore sakrifikatzen da beti; ez kulturalki “ezunibertsala”, baizik politikoki ahula, militarki ezdeusa azken finean. Kulturarekin horrek ez baitu zerikusi gehiegi. Erromak Grezia zanpatu du, hots, Erromak “unibertsaldu” du Grezia mendebaldean. Espainiak “zibilizatu” du Mexiko eta historia unibertsalean sartu. Ingalaterrak India, Frantziak Egipto. Horregatik, beharbada ulergarria da kulturen unibertsaltasun eta mestizaje diskurtsoek espainol, frantses, amerikano bat, beren “Inperioekin”, entusiamatzea; afrikano, euskaldun eta Austria-Hungariako txekiar edo hungariar bat diskurtso horiekin, pixka bat a priori mesfidatu gabe, entusiamatzea, ulergarria izan daiteke apika interes pertsonalen edo nazionalismo horien mailan, baina jeneralean ez dirudi oso interesantea, unibertsaltasunaren aldetik hain zuzen, salbuespen indibidualak beti salbu. Mundu plural eta plurala nahi dugun batean, herri bakoitzak munduari, munduak berari eman dion ikuspuntu eta esperientziatik, berak hari aportatzeak dirudi normalean bidezkoena, poetak Cervantes baitan bertan aurkitu duen gisan.

Unibertsaltasunaren ideia, anbiguotik –hori berez positiboa da niretzat– ekiboko eta gaiztoa, eta –gehienetan– agresiboa izatera pasatzen da, handiaren moztorro bezala erabiltzen denean. Handiak ez du egiten unibertsalagoa. Baina zenbaitek horixe uste duela ematen du. Hori bai, izan daiteke kultura arazo bat, kultura faltaren arazoa hain zuzen. Euskal Herria, euskal kultura, literatura, txikiak dira. (Abertzaletasuna bidaiatuz sendatzen dela esaten zuen Benegasek. Beharbada horixe gertatzen da restaurantez restaurant bidaiatuz. Apenas, kulturaz kultura bidaiatuz gero). Batzuk, Donostiatik Madrileraino “unibertsalduz” gero (edo Bilbotik Salamancaraino, berdin da), ezin dira ja etxean kabitu. Bere burua unibertsaltzat agertu nahita, norbait horrela hasten denean desenkusutzen edo atakutzen (“euskal literatura, ez; niri literatura unibertsala...”), beti izan dut ustea, harroa eta ez oso intelijentea izan behar duela, edo ez batere sensiblea. Hau da, gustatu, denoi gustatzen zaigu –gustatuko litzaiguke, hobeto– espiritu unibertsaltzat ikusiak izatea. Nola ez! Hori da gaur gorensten dena (noiz ez, gutxienez alexandrinenez geroztik?); Zuzenbideak bere burua deklaritzen duena; erlijioen aitortza; filosofiak proklamitzen duena; norbanakook ere apal-apal xede duguna geure asmoan. Eta, alde batetik, ongi da. Unibertsaltasuna, espiritu guztien komunikazio eta partekatze transparentearen zentzuan, gure kultura eta hezkuntza osoaren aspirazioa da. Gizatasun komunean guztion batasunaren ideia eta ideala; eta, horregatixe, inoiz ez errealtatea de fakto, gizaki guztion berdintasunarekin gertatzen den bezalaxe, baina guztion jomuga. Errealitatean Goethe, guk egiten dugun adina izango da euskal kultura. Eta hori berdin-berdin gertatzen zaio Alemanian. (Goethe “literatura unibertsalaren” aldekoa zen, beti aipatzen eta inoiz espli-

katzen ez denez. Parentesi artean argitzeko, bada: literatura aleman eta nazional aleman unibertsal batena zen aldekoa, haren testuak irakurtzeko lana hartu duen edozeinek dakien legez). Lizardi ez da euskal kultura Zarautzen jaio zelako, ez badugu guk egiten euskal kultura. Lizardiren aita ere seguru asko Zarautzen jaio zen, eta ja ez da euskal kulturako elementu diferentziatu bat, oker ez banago (anonimoki bai!).

Unibertsaltasuna beti gizakiari eskainita dago, inoiz ez emanda. Unibertsaltasuna gizatasunaren ideia bat eta kulturaren ideala delako, erraz bilakatzen da idazle kazetari eta intelektual kazetero askoren mozarroa (Estatu modernoak berarentzat egiten duen eran). Gehienetan unibertsaltasun famatu hori maskara bat izaten da. Agian ez engainatu egin nahi gaituztelako, berak engainatuak daudelako baizik (denok ibiltzen gara hein honetan nolabait engainatuak), errealitate egiazko bat baita islatzen dutena, errealitate dominantea hain zuzen. Errealitate konplexu eta kontraesantsuek natural-natural beren mozarroak sortzen eta banatzen dituzte gizartean: irudi legitimatzaileak, ideologiak, diskurtso identitarioak. Intelektual horiek, gu gurean bezalaxe, dauden tokian daude, dauden tokia islatzen dute, eta toki horrek espezifikoki beretzat –abertzaletasunari ukatzen zaiona– unibertsaltasuna erreklamatzeko du. Badirudi intelektualek, bakoitzak bere maneran, beti egiten dutela horrelako zerbait. Behar bada ekidinezina da. Demokraziaz eta Konstituzioaz mozarrotzen dira batzuk, borrokaz eta askatasunaz besteak, bizitza sakratuaz eta moralaz bestetarik, elkarriketatik, bakeaz. Ideiak aurpegian. Alegia, mozarroak denok dauzkagu: simulatzen ditugun segurantziaz, geure hautuak baino ez direnak. Sendo alegatzen ditugun arrazoiak. Gure fedetak. Gure mozarroak. Izan ere, kontraesanak larri eta mingarriak direnean, gizar-

teak polarizatu egin ohi dira ezinbestean, alderdikeria hil edo biziko premia bihurtzen da (egiazko premia!), eta fenomeno kurioso hauxe hautematen da: alderdikeria deskalifikatua dago, baina tenorean halabehar historiko eta etikoa horixe da. Edo alderantziz: ezinbestekoa da, baina ez dago ongi ikusia. Segurantzia inoiz baino beharragoa da, baina inoiz baino gutxiagoa. Zein ausartu, hala ere, zalantzatan ibiltzen? Segurantziaren mozerro diferenteak asmatzen dira orduan, politikoak, moralak, etab. (“Masques! O masques!/ Masque noir masque rouge...”, Senghor). Mozerroak janzten dira. Hitzen adierak irauli egiten dira. Iskanbilan ordena jartzeko, diferentzia sozialen gainetik –itxuraz!–, Estatuak unibertsaltasuna beretzat monopolizatzen du: alderdikerien kondenak eta unibertsaltasun eta razionalitate predikuak jeneralizatzen dira (Estatuak bere burua autopredikatzen du), eta borroka alderdikoen tresnak dira, izan, predikuok (ezinbestean, esango zukeen Marxek, Estatuak bere jabeak badauzkanez gero, badauzkanez, eta jabeok beren morroiak eta profetak). Haren aurka, berdin, askatasuna edo elkarrizketa bezalako berba artxihumanistak, alderdietako baten esloganak bezala entzuten dira, ez dira “unibertsalak”. Honezkero, unibertsaltasuna, mestizajea, mozerro taktikoak baino ez dira. Dena arma da, baina inork ez du nahi agertu armatua. Nonahi posizionatu, ezin izaten da ez zikindu, eta inork ez du zikindua agertu nahi izaten. Ez da anbigua izan nahi izaten, baina anbigua izatea da gogor borrokatuz konkista litekeen goren, edozein alderditan nahiz alderditatik kanpo.

Gu geu –euskaltzale, abertzale, edo soil euskaldun eszeptiko burugogor–, ez dakit gure posizioetan problemarik ez dagoelakoan ibiltzen ote garen munduan. Ez digute asko uz-

ten. Dena dela, aitortzea ez da desohore, geu ere maiz mozo-
roek bortxatzen, antzaldatzen gaituztela.

3

Gure kontraesanak –aitortzen digu poetak gu denon aitor-
tza– asko eta diferenteak dira, barruan zein kanpoan. Ez da
ezer berria, esaten digu: euskalduna horrela bizi da erromata-
rrez gero gutxienez (lehenagotik!), beti kontraesanen artean,
kanpoarekin, bere buruarekin. Haren kanpoak eta barruak
bat egiten dute. Beti herri “unibertsalek” inguraturik, hura
beti zibilizatu gabe. Beti haien miraz, berearen konplexuz.
Agian zera da berria: euskaldunak, beharbada benetan oso
zibilizatu ez zelako, erraz beretu ditu inguruko herri han-
diagoen kultura eta mintzairak, bereak baztertuz, batez ere
zilar eta karrera bila ibili denean Inperioan, gero Estatuan.
Ez bide zuen, bere nortasuna zabartu eta besterena jantziz
“unibertsaltze” horretan, kontraesanik sentitzen. Hori izan
da gure historia tradizionala. Euskaldun unibertsalak, gure
instituzioentzat berentzat, nolana hiko Inperio militar eta es-
piritualen banderapean fortuna egitera etxetik joan zirenak
izan dira, espainola izatea negozio bat zenean (berrito bilaka-
tu da); etxean lanean gelditu ziren euskaldun langinek, giza
nortasun ezunibertsaleko ganadua izaten jarraitu dute, antza.
Galizian entzun nuen, galego bat galegoentzat handia Ma-
drilen egiten dela. Euskaldun handi (“unibertsal”) bat beti
galegoa da orduan. Orixe edo Lizardi ez dira unibertsalak,
Unamuno bai. Oraintxe bertan –errealitatea hori da, folklore
apur bat gorabehera–, intelektual baskoak Savater, Juaristi eta

konpainia dira de fakto; poeta baskoak Otero eta Celaya. Ez Madrilen bakarrik –hori ulertzen da–, Iruñean hala-halaxe eta Gasteizen orobat. Euskaradunen herria beti izan da pobrea. Horregatik, azkenean geuretzat ere, unibertsala beti kanpoan egiten da; azken finean, unibertsala esaten den hori, handien, boterearen onarpenak egiten baitu. Guztiz gain, ofizialki unibertsala, beranduenik Erdi Aro eta Errenazimentuaz gero, ez da Eliza “Katolikoa”, honen lekuan bere burua sakralizatu duen Estatu da eta Estatuaren ingurua. Zinez euskal “unibertsaltasun” batentzat historia horretan eta mundu horretan –modernian alegia– luzarora ezin egon zitekeen lekurik bere Koroa edo Estaturik gabe. (A posteriori errazagoa da jakitea: XIX. mendean apika ez zegoena, XX.ean geratu da garbi). Hala ere, Euskal Herriek lekutxo bat oraindik eduki uste zuten beren instituzio tradizionalekin –iragana eternizatzeke ilusioa–, herri gisa inolako erakundetatik larrubixian gelditu diren arte karlistaldiko gerra zibiletan. Nola izan daiteke posible Euskal Herri “libre” bat Estatu subirano batean? Ez da posible. Kontraesan bat da. Hori zen, alabaina, liberal foralisten ilusio zoroa; karlistena, Estatu premoderno/presubirano batean eternizatu ahal izateko ilusio ergela zen bezala. Gero, kontraesan hori apurtu nahita borrokan jardun gara ehun urtetik gora honetan. Horretan dihardugu oraindik –edo: omen dihardugu–, batzuk liberal foralisten ilusio eternalen, “balio” unibertsalen banderapean betiere (kasualitatez bezala, berrehun urtean herri txikientzat beren buruen sakrifizioa beste soluziorik behin ere jeneratu ez duten balio “unibertsalak”, ezta Estatu dominatzaileentzat beren dominazioaren kuestionatze izpirik ere); besteak mundu modernoan Euskal Herriak bere leku propioa edukitzearen alde, beste edozein herri librek bezalaxe, subiraniak ez baitira konpartitzen. (Bo-

rroka zaharraren kapitulu berri bat. Baina ez fronte zahar-
rak!). Orain globalizazioaz eta mestizajeaz altxatu da gora
mintzoa, euskaldun euskarazkoa eta independentea izaten se-
tatzea berriro barbaroa eta probintzianoa da: hala izan da Es-
painia inperialean, liberalean, errepublikanoan, faxistan, hala
da orain demokratikoan. Unibertsala eta globala beti Espainia
eta espainola dira, eta haren probintziak izan behar dugu uni-
bertsalak izatekotan. Hori horrelaxe, disimulurik gabe, José
Antonio Primo de Riveraren testuetan ikasi eta batxilergoan
aprobatu behar izaten genuen guk. Orain portaera politically
korrektoaz aprobatu behar da. Hala, agindu konstituzional
eta espiritu unibertsaltzat onartzen da “Espainian espaino-
lez”, Errektoregotik Ertzaintzara; “Euskal Herrian euskaraz”
ergelkeria fanatikoa eta probokazioa da, Ertzaintzatik Errek-
toregora. Mestizajea da –hemen– unibertsala eta progresiboa.

Berria? Zera bakarrik izan daiteke berria: denbora ez dela
guretzat ere alferrik pasa. Honezkero integrista eta aranista
bakarrak hemen, Arana baino aranatarragoak, haren etsai es-
painolistak direla. Izan ere, esanak esan, edozeinek daki Ara-
na gaixoa Euskal Herrian zenbat editatzen, saltzen, irakur-
tzen, aipatzen den zinez, amorru eta gorrotoz beraiek aipa-
tzen dutenaz besterik alegia. Begien bistan dago, abertzaleek
–eta jeltzaleek berek– aspaldian beste testu batzuk irakurtzen
dituztena. Hala ere, behiala ikertzaile orain dogmatiko eta
alferra, eta haren lagun tertuliano orojakilea, beti ziur dau-
de, abertzaleen ideologia gaur bertan, beraiek behin XIX.
mendeko kazeta artikulua batzuetako esaldi batzuetan aurkitu
omen zutena dela nahitaez. Alegia, testuak irakurri ez dituzte
beraiek egin, gure kritiko zorrotzek, baina bai irakurri omen
zituen beste bati eta gero elkarri kopiatu beti kirtenkeria pare
bera, Sabinekin idatziak bai, egia da, egia den bezala orain chun

eta piko urte idatziak direla eta testu horien izaera ez zela teoriagintza razional batena, borroka eta propagandarena baizik. Horixe da gaur Espainian dagoen abertzaletasunaren ikerketa eta ezagutza maila akademiko eta publiko altua. Berri-berria ez da, ordea, ikusi gura duenarentzat, hemen nahi dena ez dela arraza berri bat, eta bai euskal herri berri bat, librea, inoren menpegabea, bere buruaren jabea, bere lanaren eta kulturaren egilea, beste herriekin bat eta solidarioa; eta horretarako guztirako ez dugula inolako inoren mitologiarik behar, modernitatearen konklusioak ateratzea bakarrik baizik. Demokraziaren printzipio elemental batzuk, justiziaren zentzu pixka bat, nazionalismoak itsuturik ez egotea (zinezko nazionalismo espainol edo frantsesak), eta nahikoa da. Herri txiki bat –herria, kultura– noizbait ere batasun normalean –historikoki biolentziaz eragotzian– batzeko proiektuak, problemaren batzuk baldin badauzka batzuentzat justifikatzeko, betiere banaturik eta biziaren arriskuan jarraiarazteak, gizarte modernoan, inorentzat ez dauka aspaldi justifikazio razionalik batere, gakoa hor baitago. Zergatik gauzak beti alderantziz eztabaidatu nahi hori, justifikaziorik ez daukana aldatu nahi lukeenari exijituz beti justifikazioa?

Zer ari gara, eztabaidarik ez daukana eztabaidatzen? Foruak direla eta ez direla, modernizatu behar direla, gorde egin behar direla, kendu... badoa berrehun urte eztabaidetan. Estatua eskatzea ez dela arrazoizkoa (behin Estatuok gaindituak daude, bestean banaezinak dira), federazioa hobe, hobe konfederazioa, Konstituzioak dio alabaina, Estatutua dela denon elkargunea, eta eskubide historikoak?, bake soziala puskatzea omen da hori: berrehun urteren buruan, betidaniko eztabaidak ez baitute eztabaida eternizatzea beste zentzurik, eta eztabaidak eter-eternizatzea bihurtzen da politikoen lan guztia

azkenean. Ebidentea zera da: herri txiki bat hiruzpalau puska-tan, XXI. mendean, bizi ezinda egotea bazter batean, dagoen bezala, lehenengo, ez dela prozesu razional, justiziazko eta askatasunezko baten emaitza historikoki; eta, oraintxe ber-ton, absurdo hutsa dela, bere buruari zibilizatua deritzon pa-raje batean, politikoki nahiz moralki. (Europa batuan Euskal Herri txikia hirutan banatua: zein razionaltasun mota da hori, nazionalismoak gaindituak omen dauden aroan?) Absurdo ebidente horri soluzioa bilatu beharrari ihes egiteko makina bihurturik daude eztabaidak, beti leku berean jirabiran jarrai-tzeko, inon geldiezin, inora higiezin, deus ez egitearren dena kuestionatuz.

Denok badakigu gatazka ideologikoak (hedabideetako nahiz akademikoak) ez direla borroka politikoaren zalduneria arina baino; politikoa dela Euskal Herriaren arazo nagusia eta politikoa izan behar duela soluzioak. Denaren politizazioa-ren aurka borrokatzen dugu, hala ere; kontziente, kontraesan politiko, ekonomiko, kultural, moralen korapiladuraz guztia guztiarekin. Horregatixe nahi dugu eta behar burujabeta-suna, erantzukizuna geurea eta geurea bakarrik izan dadin, gaurko txikizio moral, kultural, sozial eta politikotik, moralki, kulturalki, sozialki, politikoki herri berri bat jasotzeko ahale-ginean. Ez dugu salbazioa hitz magiko batean bilatzen. Ez dugu batere salbaziorik bilatzen, baizik erantzukizuna, geure erantzukizunaren askatasuna, horixe besterik ez baita buruja-betasuna, poliki-poliki geu altxatuz joateko egungo itolarririk ahal dugun modutxoan. Ez gaitzabela salbatu; batez ere ez Madrildik eta Paristik beti.

Inork ez du nahi hemen Erdi Aroko Arkadiaren batera itzu-li, ez geure baitan bildu eta irla bihurtu, ez modernitatea uka-tu. Kritika asko egiten badizkigute, batzuk ez arrazoi gabe,

geuk ere eginak dauzkagu gehienetan, kritikoez ez badakite ere; edo jakin bai, batzuek bederen, baina esan ez. Hala ere, erasoak eraso –hemen ez du inoiz atertzen–, desanparo ideologiko guztietan irauten ikasi samartuak gaude bitartean.

Gertatzen dena da, hainbeste eztabaida, kritika, autokritika, antikritika artean, beti defentsiban aritzera bortxatuak, egoera ahul eta zail batera etorriak garela. Hainbeste faltsifikaziotatik defendatzen, azkenean geure buruaren beste faltsifikazio batzuk izanez bukatzen dugu, polemikan sartzen bagara. Geu ere moztuz armatuak, kritika orori itxiak, etsaiaren oso antzekoak bihurtzen gara kapitulu askotan, eta geu bihurtzen gara azkenean geure etsaiak. Edo, bakea nahiz, ez dakit kontzientzia argitu ala makaldu egiten dugun gehiago, inpotentzia eta inhibiziora kondenatuz geure buruak. Polemikari ihes egin nahi diot, azkenean ez du izaten beste erremediorik hemen, amore eman edo arazoari ihes egitea baino. Hots, kapitulatuko. Etsi nahi ez duenak, bere buruarekin eta lagun nahiz etsaiekin etengabe kontraesan artean jarraitu behar izaten du Ulisesen bidea. Odisea bat baino gehiago, helburuan Itaka fidagarrikerik gabeko nabigazio kaos bat, gaur hara, bihar hona, Madrilek agintzen dituen haizeen arabera. Eta kaosa nekagarria da. Menperatuaren kasuan, kolpeek adina bere luzidotasunak nekatzen baitu hura. Bizitza borroka da, idatzi dio Petrarck, antsiatu denean, “Avignongo Sokrates” lagunari; baina borroka astunak espirtua, gaztetan gihartsua, beratu egiten du luzarora, nekatu egiten du. Eta ez dago –idatzi dio– espirtu nekatuarena baino neke handiagorik.

Gizatxarrak baino gehiago gizapobreak, pobreak esan nahi duenarekin, kontraesan artean eta pobre bizi gara, hori izaten da askotan gure espirtu nekatuaren inpresioa, bere burua ikusteko euskal kulturak daukan modua. Zergatik izan nahi

dugu garen baino pobreagoak?, egiten digu poetak aldarri mende berriaren ataritik. Kultura ez al da unibertuala? Egin dezagun mundua gure etxe eta hiri. Izan bedi gure poza Petrarca, poeta erbeste luzeak mindua –“erbestean ernea naiz ni”–, munstro abertzalea bera ere, eta aitzindaria. Gure pena Césaire, bere arrazaren mendetako exilio antillarra kantatzen. Gure poza eta pena Senghor (“Masques! O masques!”), Aresti, Lizardi, Atxaga, Sarrionandia. Poesiak ez digu puskailetan dagoen etxea birreraikiko. Eramangarriagoa eginen digu, hala ere, gure patua. Zertxo garen gu geu irakatsiko digu (denak bezala); zenbat edertasun eta libertate daukagun, ordea, eskura. Etxea eta mundua, mundua eta hiria, dena bat. Gure txikitasunean ere, Petrarca, Hölderlin, Wittgenstein, gure sutondoan daudela sentituko dugu, Lizardi, Aresti, Atxaga, Sarrirekin batera. Berrizbeitia edo Arregi Diaz-Herediako bat, Otamendi/Aranbarri, Cano/Uribe, Euskal Herri gaztea munduarekin solas etengabea eta mundua gurekin. Militantzia guztien aurka orain Aranzadi milenaristak alegatzen digun Anakreonte hori bera. Gure hiri txikian mundua egonen da gurekin dialogoan. Gu kuestionatzeko, bai. Eta indartzeko ere gure kontraesanetan, gure barne hausturan. Egia baita kaos bat garela, kaos batean bizi garela. Ez garela izan nahi duguna (baina ez garen horrek ere egiten gaitu – gure porrotek adina gure ametsek!). Egia baita globalizazio eta unibertsaltasun diskurtso gehienak espainolismoaren tranpak baizik ez direla, onenean ere ambiguoak. Baina gutxienez ambiguoak badirela, zer demonio, eta hori ez dela beti txarra, mozorro eta ilusio batzuk erantzi eta ispiluan geure burua biluzik ikusteko. Zeren eta ez baita gezurra beti zertxobait antigualduak gabiltzala, modernoak izan nahita; mito txotxolo asko daukagula buruan eta aurreiritzi txaldan askok jaten digula burua;

gure eskolak ez direla onak, hizkuntzak ez direla behar adina estudiatzen Euskal Herrian; inoiz ez garela iristen behar genukeen bezain unibertsalki eta globalki Wittgenstein, Hölderlin, Petrarca pentsatzera eta sentitzera; Césaire, Senghor, geureganatzera. Askotan erortzen garela probintziakerian eta auzokerian (auzoaren auzokerian ere bai, haren unibertsaltasunean baino maizago). Inoiz ez dugula diferentzia eta identitatearen nahi genukeen oreka lortzen. Eta zer? Borrokan ez jarraitzeko arrazoiak ote dira horiek, ala are gehiago jarraitzekoak?

Dena da problema. Soluzioa poetak ez daki. Bakarrik, ispiluak irakurtzen ditu. Ispiluak idazten ditu. Bere ezlekuko leihoak unibertsora zabaltzen ditu. Kanpora adina, barnera. Geu garentxora, gure mila kontraesanetan. Geu izan nahian. Eta ezaguna da herri txikietan, kanpoko leihoak zabalduz gero, “unibertsaltasun” haize bortitzek airean paperezko nor-tasun asko eraman izan dutela, zilarrezko mana eta urrezko ez-tia erruz omen darien urrutiko erregearen jardinetarantz. Baina poetak ez du horregatik etxeko leihoak unibertsora zabaltzea utziko, ezordu eta ezleku mortuotan arnasa berria sar dadin, itsaso eta mendiko herri honetan, etxean geratu diren munstro abertzale eta ber denboran unibertsal guztientzat. Kontraesan artean, baina tinko.

Bere burua norma deklaratu daukan mundu anormal honetan, izan gaitezen, bada, munstro.

(2002)

JUDUAREN ISPILUAN
EUSKALDUN BAT IKUSTEN DA

1

Lehengoan istorio hauxe aurkitu nizun, klasizismo alemanaz irakurtzen ari nintzela. XVIII. mendean Alemania nahiko barbaroa zen oraindik. Federiko Handia ilustratuak, Prusia Frantziaren maneran zibilizatu nahita, portzelana-manufaktura bat ipini zuen Berlinen. Prusiar oihesak, ordea, ez ziren portzelana finez deus interesatzen. Orduan, dekretu batez, monarka argizale argiak, bere erresuman ezkontzen zen judu bikote oro, Berlingo portzelanazko baxera-joko bat erostera behartu zuen. Berlingo portzelana hoberena, inork gura ez zuena, familia juduetara joan zen. Denborarekin “Berlin-zaharra” guztiz portzelana estimatua bilakatu zen. Eta Berlin “berrian”, juduei beren portzelana zahar denak apurto edo lapurto egin dizkiete...

Edozer irakurtzen duzula, juduen istorioren batekin egi-ten duzu topo. Ia beti giza miseriaren baten kontua izaten da. Juduaren historia, izan ere, edo hobe, kristauaren historia juduarekin, herri madarikatuaren historia madarikatua da. Mende eta mendeetan aljama edo ghettoetan baztertua bizi behar izan du jende gaizto horrek, jende onak zanpatua beti, ustiatua eta, behar duen bezala, aldizka-aldizka masakratua. Aipatzekoa, etxean, Lizarrako pogroma, 1328ko martxoaren 6an. Pedro de Ollogoyen izeneko frantziskotar fanatiko batek xaxatuak, kristauek bertoko aljama, bi astetan setiatu

eta gero, kiskali egin dute, bizilagunak kontenplaziorik gabe denak akabatuz, handi ala txiki, gizonak, andreak nahiz haurrak. Gauerdia pasata, gizon bat ilunpean triskantzaren eszenategia behatzera atera da, eta gorpu sarraskituen artean, hildakotzat lagata baina oraindik bizi printza batekin, Menahem gaztea aurkitu du, berak adiskide zuen familia bateko semea. Menahem ben Zerah (1308-1385) Erdi Aroko autore inportante bat da juduentzat. Lizarran jaioa, hamasei urterekin bere maisu Benjamin Abaw rabinoaren alabarekin ezkondu zen, eta pozik bizi zen lanean eta Toraren ikasketan murgildua, hogeigarren urtean pogromak harrapatu zuen arte. Han galdu zituen emaztea, gurasoak eta lau anai-arrebak, eta ia-ia bere larrua ere, familiako lagun kristau errukitsu batek ezkutuka etxera eraman eta sorotsi izan ez balu. Menahemek geroago idatzita utzi duenez, sei mila judu garbitu zituzten Nafarroan egun horietako pogrometan Lizarran, Andosilla, Viana, Funes, Gares, San Adrianen.

Bi herrien historiak ez dago konparatzerik, baina euskalduna ere inguruko jende latinoentzat nahiko arrotza zen, eta maiz ibili da mundurik hara erdeinatua, burlatua. Trauskil eta barbaroa ei zen, “gente que al margen de la historia no ha hecho otra cosa que ordeñar vacas”, Borgesek sententziazten duen moduan. “Unos españoles sin romanizar”... Alabaina, euskaldun jendea noizbait norbaitek onikusi eta oniritzia ere izan da, apur bat. Sekula ez onikusi eta ez oniritzia, ordea, euskarak ematen du, ezta euskotarrek eurek ere; beharbada antzinateko pitxia-eta bezala bai, baina ez praktikarako eta bereziki moderniarako baliozko hizkuntza bezala. Unamunorentzat: “en el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao, hablando vascuence, es un contrasentido”. Barojarentzat: “El vascuence (...) representa una mentalidad

tan arcaica que es imposible amoldarla a la vida actual (...). No sirve para la vida moderna”. Gabriel Aresti bilbotarra-
ren obran behin baino gehiagotan aluditzen zaio euskaldu-
nari eta juduari. Eta, euskarari dagokiola, hauxe koplatu du
behin: “Euskeraren asturua/ ez da gauza segurua./ Askozaz
hobekiago/ dabil munduan judua” (“Apur dezagun katea”).

2

Haatik, Lizarrako pogroma eta Auschwitz fenomeno
arras diferenteak dira historikoki, ez dira parekatu behar eta
ez zerrenda xuxen batean bata bestearekin lerrokatu behar.
Inkiszioa eta Auschwitz orobat, nahi baduzu kristautasuna-
ren historia ikaragarri bereko bi kapitulu dira, baina, hobeto
ulertu nahi badira, historia bereko bi kapitulu baino gehiago,
bi historia diferentetzat hartzea egokiago etorriko da. Izan
ere, bai nazioaz badihardugu, politikaz, historiaz oro har, eta
bai euskaldunaz eta juduaz badihardugu, esentziala da mo-
dernitatearen etenari jaramon egitea eta handik jariatu diren
katramilei. Ezaguna dugu Euskal Herri foralak, eta euska-
rak zer esanik ez, modernitateari adaptatzeko arazo handiak
ukan dituztela, edo dituztela oraindik. Zeregin horiek ez di-
ra gureak bakarrik. Estatu propiorik gabeko nazio guztienak
izan dira batik bat (Italia nahiz Txekia, etab.). Buruhauste la-
rrienak, hala ere, juduenak izan dira apika. (Gure artean du-
datu egiten da Zazpi Herrialdeen historia bat bakarria ikerke-
ta-objektu zilegizkoa ote den zientifikoki, edo are ukatu egi-
ten da. Judu Herri osoarena egiteko problema zientifikorik
ez dagoela ematen du). Honek esan gura du antijudaismoa

eta xenofobia beti egon dela, bai, baina bereizi egin behar dela modernitate aurreko antijudaismoa eta antijudaismo modernoa. Ez dira fenomeno sozial berdinak. Hain zuzen, antijudaista edo de fakto antijudu moderno gailen batzuk juduak izan dira. Hori nola etorri den, merezi du pixka bat hurbiltzea ikustera, “euskal arazoarekin” bai baitu zerikusirik.

Absolutismoa fenomeno moderno da, eta haren bertsio jakobinoa supermoderno; eta Ilustrazio modernoaren ekarpena da Auschwitz, intelektual juduek berek aski nabarmendu izan duten legez. “Juduen arazoaz” azken urteotan gaztelaniaz erruz idatzi duen autore bat Reyes Mate da, eta hura espezifikoki moderno dela azpimarratu ohi du beti, berdintasunaren kontzeptu txar baten ondorioa. Hona pasarte batzuk bere liburuan *De Atenas a Jerusalén. Pensadores judíos de la modernidad*, 1999: “Se suele decir que la ‘cuestión judía’ es un producto típico del siglo XIX pues lo provoca el Estado nacional moderno cuando proclama que todos los ciudadanos son iguales ante la ley. Si son iguales no pueden ser diferentes”. Erdi Aroan autoritatea banatua zegoen: Jainkoarena, erregearena, Elizarena, aita familiakoarena, norbere herriaren tradizioarena. Autoritate absoluturik ez zegoen, Jainkoarena ez bada, eta “herri” absoluturik ere ez, herriak baino. Juduek, euskaldunek, libre zuten komunitate berezia izatea eta euren legeen arabera bizitzea, “nazio” izatea. Libertatea ere pluralean deklinatzen zen: jendearen libertateak. Estatu modernoan bilakatu da askatasuna bakarra eta abstraktua. “La igualdad ante la ley es, paradójicamente, un efecto del poder absolutista. Si no hay más poder que el del soberano (...) todo el mundo se encuentra en el mismo grado de sometimiento ante su autoridad” (10). Gorputz politiko berrian erregearen menpekoak jada ez dira menpeko besterik

–“hiritarrak” esaten bada ere–, denak berdinak. Juduei bezala euskaldunei, ezin onartuko zaie estatus diferente bat edukitzea, “berdinu” egin beharko dute, zapal-apal. “Es como si se reconociera el principio de igualdad pero no el de identidad [“identitatearen” etsai hemeretzitarrak egunotan berriro piztu zaizkigu!], pues eso significaría reconocer el derecho a la diferencia, a la diferenciación cultural y social” (11). Modernitatearekin diferentziaren ezinikusi katoliko bat, absolutista, nagusitu da politikan. Eta askatasunaren kontzeptu bat, non ere juduen askatasuna edo emantzipazioa, edo berdin esanenezake euskaldunen hiritartasuna, “ante los ojos de sus conciudadanos [frantses burges “kosmopolitak”, espainol liberal “ez nazionalistak”] se presentará ese principio como indisolublemente ligado al de la asimilación cultural (lo que conlleva renuncia a sus valores culturales) [legezkoak orobat: juduen tradiziozko usadioak, Foruak] e integración social (rechazo de toda exteriorización diferenciadora) [hizkuntza, etab.]. Ser iguales ante la ley suponía renunciar al patrimonio cultural judío y a toda forma de comunidad específica” (10-11). Laburtuz: modernitateak bere burua ulertzen duen bezala, eta politikoki inposatzen duen bezala, oso sinplea da alternatiba: “o ser judío..., o ser moderno” (20). Hannah Arendt aipatuz bukatzeko: “En la cumbre de su evolución durante el siglo XIX, la Nación-Estado otorgó a sus habitantes judíos la igualdad de derechos. Profundas, antiguas y fatales contradicciones se ocultaban tras la abstracta y palpable inconsecuencia de que los judíos recibieran su ciudadanía de Gobiernos que, a lo largo de los siglos, habían hecho de la nacionalidad un prerequisite de la ciudadanía y de la homogeneidad de la población la característica más sobresaliente del cuerpo político”.

Zenbait euskaldun jauntxok edo intelektualek bezalaxe, esan beharrik ez dago, zenbait juduk ere, gizartean hobekien posizionatua zeudenek hain zuzen, “aro berriarekin” moldatu eta Estatu modernoarekin konpontxo egin dute, karrera egiteko. Estatuak eta gizarte berriak euskaldunak euskaldun gisa eta juduak judu gisa onartzen ez baditu, euskaldun batzuk laster espainolik espainolenak izaten amorratuko dira (Unamuno, etab.), eta frantsesik frantsesenak edo alemanik alemanenak juduak. “Se produce así –darrai Reyes Matek– una peligrosa mezcla entre emancipación, asimilación e integración debida a dos causas: en primer lugar, a la presión de la ideología de la homogeneidad nacional, que dominaba la conciencia de toda la sociedad y, en segundo lugar, el celo de los propios judíos asimilados. Pocos alemanes amaron tanto la lengua y la cultura alemanas como los propios judíos” (11). Adibide harrigarriak ugari dira.

3

XIX. mendean, den-denek ez, proiektu sionista ere kinka honek ernarazi baitu, baina eliteek gehien-gehienbat asimilazio kulturalaren bidea hartu dute (“alemanik alemanenak”), judu asko antijudaista bilakatzeraino. Gero nazional-sozialismoa etorri da, eta Auschwitz erreferentzia zentral bezala altxatu da modernitatea ezagutzeko, Estatu modernoaren barua ikusteko. XX. mendean Erdi Europako juduak modernitatearen biktimak izan dira, baina modernitatea bera ez da garatu juduek hartan parte inportantea izan gabe. Zer ger-

tatu da? Juduek berek erruz azterturiko arlo honetan bi autoreri segituko diot ondorengoan: ARENDT, Hannah, *Origenes del totalitarismo. I. Antisemitismo*, 1987, eta BERLIN, Isaiah, *Contra la corriente*, 1992 (“B. Disraeli, K. Marx y la búsqueda de la identidad” kapitulua).

Autoreok judutasunari uko eginez asimilatu den juduaren bi tipo bereizten dute: a) judutasunari uko egin, baina jatorriaren harrotasunez asimilatua (Disraeli), eta b) judutasunaren erdeinuz edo gorrotoz asimilatua (Marx). [Badago hirugarren tipo bat, Moses Mendelssohn, Berlingo Ilustrazio-ko maisu gailena, Lessingen eta Kanten laguna (eta Kantek *Arrazoimen hutsaren kritika*-n dagien Ilustrazioaren kritikan kritikatu), kultura alemanean aktiboki integratua eta kultura hebrearrean orobat egile eta eragile bizkorra. Baina XVIII. mendeko figura maitagarri hau Auschwitz ondoren bakarrik ezagutuko da ereduzkotzat].

a) Iraultzako ideiek eraginda, Europako Estatuak juduen emantzipazioa dekretatzen hasi direnean, judu askok bere judutasunari ihes egin nahi izan dio korrika. “Besteak bezalako-
xe” izan gura izan du desesperatuki. Mendetan ezaugarritu eta diskriminatu zuten jantziekin batera, fedea, tradizioak, herrikideekiko loturak, dena surtara bota dizu, eta guzti-guztian eta denean “berdindu” gurarik, bera ere antisemita bilakatzeraino asimilatu da, burges frantses edo aleman jatorrak ziren bezalaxe. Horrelako familia frantses jator antisemita bat zen Dreyfus familia judua, “Dreyfus afera” famatuak harrapatu zuen arte. Interesatuak kasu paradigmatico hau Hannah Arendten liburuan ikus dezake.

Judu asimilazionista hauen iritzian “judu arazorik” ez dago. Judurik ez baitago Estatuarentzat; hiritarrak daude eta beste-rik ez. Judu izatea ala ez izatea, bakoitzaren arazo pribatua

da. Ez dago ezer, judu herri bat egiten duenik. Indibiduo batzuk kristauak izango dira, beste batzuk juduak izango dira, nazio edo herri kristau edo judurik ez dago. Herri judua, edo herri juduaren historia, tradizioak, identitatea, konstruktoak baino ez dira. Ez dago ezer, judu guztiak elkartzen dituenik: batzuk fededunak dira, beste asko ez; batzuk polonieraz mintzo dira, beste batzuk yiddish, etab., hots, beste erreferentzia batzuetatik guk ere ezagutzen dugun erretorika guztia... I. Berlinek deritzenez, herri juduaren biziraupenerako arrisku-tsuagoa izan da haren uko moderno hau, jazarpen historiko guztiak baino. Harrigarria, identitatea eta autokontzientzia ukatu eta judu herria hala ere gainbizitu izatea. “Los nexos que los unen han demostrado ser más fuertes que las armas de sus perseguidores y sus detractores; y más fuertes que un arma mucho más insidiosa: la persuasión de sus propios hermanos que, a veces con mucha sinceridad y habilidad, tratan de argumentar que esos nexos no son tan fuertes o tan peculiares como parecen, que los judíos están unidos sólo por una religión común, o un sufrimiento común; que sus diferencias son mayores que sus similitudes y, por lo tanto, que un modo de vida más ilustrado –liberal, racionalista, comunista, socialista– los haría disolverse pacíficamente como grupo, dentro de su medio social y nacional...”

Judutasunaren mespretxu erretxinaren adibide bat K. Marx da (1818-1883). “Sus ancestros, por ambos lados familiares, fueron rabinos alemanes, húngaros y polacos. Su abuelo y bisabuelo paternos fueron rabinos en su nativa ciudad de Tréveris. El padre de Karl Marx fue el hijo del rabino Meier Halevy Marx, o Marx Levi, que se casó con la hija de Moisés Lwow. El padre de Moisés Lwow, Heschel Lwow, fue elegido rabino de Tréveris en 1723, y descendía de rabinos de la ciu-

dad polaca cuyo nombre llevaba; otros ancestros fueron rabinos en Padua, Cracovia y Maguncia” (337). “Su padre pertenecía a la primera generación de judíos emancipados (...). Dado que Marx fue bautizado no sufrió las desventajas de los judíos en Alemania. Pero estuvo sujeto a los sarcasmos de sus compañeros socialistas y radicales durante la mayor parte de su vida, sufrió pullas a cuenta de esto por el anarquista ruso Bakunin y apenas pudo dejar pasar inadvertido el violento odio que hacia los judíos sentía Proudhon o las opiniones similares sostenidas por Arnold Ruge y Eugen Dühring. Atacó a estos hombres con violencia, pero no hay sombra acerca de su origen judío” (354). Marxek beti ezkutatu egin nahi izan du bere jatorri judua, eta jendaurrean “su actitud hacia los judíos fue intransigentemente hostil”. Harentzat judutasuna berak beti gogorkien borrokatu duen guztiarekin berdintzen da: judaismoa kapitalismo hutsa da. Fede israelita okaztagarri zaio. Juduen moralitasuna, idatzi du *Juduen arazoaz* izkribuan, egoismoa baino ez da; juduen egiazko erlijioa, tratua eta negozioa; juduen Jainkoa, dirua. Eta Jainko horrek ez du alboan beste Jainkorik ametitzen. Pariseko Burtsari “sinagoga” deritzo, etc. XIX. mendeko teoria arrazista antisemita batzuen ildotik, juduak Egipton hango arraza beltz esklabo “makurrago” batekin nahastu zirela eta handik hainbat bizio arrazial jarauntsi dutela suposatzerara iritsi da Marx. “Su lenguaje se eleva a cimas de verdadero odio cuando habla de Lassalle (quien se mantuvo sin bautizarse y no ocultó sus sentimientos judíos). En una carta a Engels llama a Lassalle ‘el negro judío’, y adelanta la hipótesis de que sangre negra debe haber entrado en sus venas como resultado de las mezclas raciales adquiridas por los judíos durante el éxodo de Egipto” (355).

K. Marx “autogorroto juduaren” eredia da. Psikologia personalak aparte, ordea, bere naziotasun judutik ihesi desesperatuki, ez da gauza izango nazio arazoak aintzat hartzeko, nazionalismoak historian eta bere egunetantxe bereziki zuen garrantzia gutxietsiko du, erlijioaren inportantzia sozial eta politikoa erabat ezikusteraino etorri da; hots, jatorri judu nardagarriaren ukatzeko grinak, bere-bere autoengainutik analisi sozial eta politikoetako engainura eramán du. “Una cosa es –komentatzen du I. Berlinek– no creer en la importancia dominante de la raza, tradición, nacionalidad, religión; todavía menos no desear hacer un fetiche de ellas. Y otra es negar violentamente su importancia intrínseca, relegarlas (desesperadamente) al papel de superestructuras o subproductos, sin ningún papel independiente en la historia – fenómenos que, con el inevitable cambio en la base económica se desvanecerán como los malos sueños y las fantasías irracionales que el sabio puede reconocer ya en ellas” (362).

Ez da izan bakarra, noski. L. Börne, H. Heine, etab., alemanak eta alemanak soilik izaten, edo agertzen, hisiatu dira. Edo Schönberg musikaria geroago. Baina “mientras más insistieron en que eran alemanes... menos alemanes parecían a los mismos alemanes. La búsqueda de seguridad parece a los que están seguros un síntoma de anormalidad, y frecuentemente los irrita” (332-333). Juduak izan eta izan gura ez duten juduoi, euren buruak naturaltasunez berdintzat onartuak ez ikusteak, autoerrukia eta automespretxua edo autogorrotoa eragiten die: “(...) sujetos a ondas de piedad hacia sí mismos, de arrogancia agresiva, de exagerado orgullo por los mismos atributos que los apartaban de sus prójimos; con ataques alternos de autodesprecio y odio a sí mismos, sintiendo ser objetos de desprecio o antipatía de los mismos miembros

de la sociedad nueva y de los cuales más desearon ser reconocidos y respetados” (331). Hau dena ez da juduen eskusiboa, ezta? “Es una neurosis bien conocida en una edad de nacionalismo en la que la autoidentificación con el grupo dominante se hace supremamente importante [Gobernuak eta eskolak bortxaz inosatu ere izan daiteke!], pero, en algunos individuos, anormalmente difícil” (332). Nahi eta ezinak autogorrotoa supizten du. “El término ‘jüdischer Selbsthass’ –autoodio judío (como opuesto a autocrítica o análisis realista)– fue acuñado con suficiente propiedad por un escritor judío-alemán, Theodor Lessing, y describe un sentimiento con cuyas peculiares manifestaciones están familiarizados todos los lectores de Heine. Después de todo, fue en Alemania donde un partido judío [‘Verband deutschnationaler Juden’, dirigido por Max Naumann], pese a lo pequeño y a su hoy justificado olvido, aceptó la estimación de Hitler del carácter judío y declaró que los judíos eran la mayor desgracia de sí mismos. Tal vez la más violenta de todas las formas de autoenvilecimiento judío se encontrara en un escritor judío admirado por los nazis, el una vez celebrado Otto Weininger, que sufrió el paroxismo del odio a sí mismo” (358).

b) Diraeli aipatu eta burura datorkiguna XIX. mendeko Premier britainiar ospetsua da, Inperio britainiarraren tinkatzaile eta inperialismoaren apostolua, lagun mina (maitalea?) Viktoria erreginarena, zeini ere berak eman baitzion Indiako Enperatrizaren titulua (erreginak bera Earl of Beaconsfield izendatuz aitoren semetu zuen). Hau da, loriazko Aro inperial Viktoriarrarekin asoziatu ohi dugu. Haren bizitza behin Xabier Gereñok “Iratiko oihan sorginetan Benjamin Disraeli izandakoaren itzalarekin” solas baten fikzioaz baliatuz *Anaitasuna*-ko artikulua serie batean kontatu zuen (zk. 361-365,

1978). Zein zen doi-doi immigrante judu italiarren jatorriko politiko iaio hau?

Haren aita Isaak literato bat ez oso distiratsua zen, “ilustratu” Voltairezalea, indiferentea erlijiosoki, gizarte ingelesean guztiz asimilatua. Ia ez zuen harremanik batere Londresko komunitate juduarekin, erlijio eta usadio juduez ez zekien deus eta ez zen deus interesatzen. Marxen aitak Treverisen bere semea Eliza Erreformatuan bataiarazi zuen legez, gero Zuzenbidea ikasazteko asmotan, hala Isaak d’Israelik ere bere semea Eliza Anglikanoan bataiarazi zuen hamahiru urterekin, Zuzenbidea estudiantuko zuen gazteak eragozpenik izan ez zezan karrera egiteko. Aitak bezala, baina gorago, Benjamin Disraelik (1804-1881) gora nahi zuen. “Vio ante sí una sociedad de aristócratas, libres, arrogantes y poderosos, que (...) contempló con mirada absorta como a un mundo rico y maravilloso (...). Disraeli estaba desesperadamente fascinado por la aristocracia como clase y como principio. Era de ésta de quien deseaba reconocimiento” (I. B., 341). Soluzioa zirt-zart ukaldi batekin erabaki zuen: “Todos los judíos eran aristócratas” (348). Bera ere aristokrata zen; are, ingelesik aristokratenak baino aristokratago bera. “¿Quién es esta gente que se coloca por encima de él? Los describe como ‘una tropa de caballeros normandos cuyos padres fueron destructores piratas bálticos’. – ¿Eran entonces esta mezclada población de sajones y normandos, entre los cuales había visto por primera vez la luz, de sangre más pura que la de él? Oh, no, él era descendiente en línea directa de una de las más antiguas razas del mundo, de esa rígidamente separada y no mezclada raza beduina que había desarrollado una elevada civilización en una época en que los habitantes de Inglaterra iban medio desnudos y comiendo bellotas en sus bosques”

(346). Hannah Arendtekin jarraituz: “Disraeli (...) sabía que la aristocracia, que año tras año había visto comprar títulos a hombres de clase media adinerada, se hallaba obsesionada por muy serias dudas acerca de su propio valor. Por eso la derrotó en su propio juego, recurriendo a su imaginación más bien vulgar y popular, para señalar temerariamente cómo los ingleses ‘procedían de una raza advenediza e híbrida, mientras que él mismo descendía de la más pura sangre de Europa’; cómo ‘la vida de un par inglés’ se hallaba ‘principalmente regulada por leyes árabes y costumbres sirias’; cómo ‘una judía es la reina de los cielos’, o que ‘la flor de la raza judía se halla ahora sentada a la diestra del Señor Dios de Sabaoth’” (H. A., 114).

“Diferentziaren harrokeria” honekin Disraeli bere judutatsuna kultibatzen hasi zen (Unamuno, Baroja, etab., espainolen aurrean euren euskotasunaz arrandiatu diren eran), ez judutasunean sakontzeko, ingelesen artean exotikoa eta aristokraten artean aristokratikoena agertzeko asmoz baizik. Judua ez izatekoxe harrotzen da jatorri juduaz. Hannah Arendt irakurritz: “Y, como a diferencia de su sencillo y más modesto padre, aspiraba nada menos que a (...) ‘distinguirse por encima de todos sus contemporáneos’, comenzó a conformar su ‘tez olivácea y sus ojos negrísimos’ hasta con la ‘poderosa cúpula de su frente (...) fue diferente a cualquier criatura viva que uno pudiera haber conocido’. Sabía instintivamente que todo dependía de la ‘división entre él y los simples mortales’, de la acentuación de esta afortunada extranjería” (H. A., 110). Diferentziaren harrokeria hori de fakto jatorriaren harrokeriara mugatzen da, gure artean batzuek euskaltasun jatorra zortzi “euskal” deitura garbitara mugatu gura izan zuten moduan. Maskara veneziar dotore bat bezala da. Baina zer jende izaten da horrelako operazioak interesatzen zaizkio-

na, zerbait egiatan izan gabe hala ere ba omen direla erakutsi eta sozialki aprobetxatu nahi luketenak baino? H. Arendtek ohartarazten duenez, “el judaismo y la pertenencia al pueblo judío degeneraron en un simple hecho de nacimiento solo entre la judería asimilada” (114). Gutxiagotasun konplexua borrokatzeko eta gainditzeko maniobra psikologikoa da inbertsioarena. Alegia, itxura egiten da, ni zer naizen, ez dela zer naizenagatik, baizik eta nondik natorrenagatik; ez neure zerizanagatik, nire aurrekoen izanagatik baino. Horretarako, neure buruarekin ezin dudana, neu mitologizatu, arbasoekin egiten dut. Iraganak ohoratzen nau. Ez naiz pertsona bat nire burua neuk egina, baizik bestek egina kanpotik. (Oraindik kabitzen da inausketa gorriago bat ere, interesek hala aginduz gero: jatorriak gabe, erroldak egiten nau zer naizen. Hala, bitxiki, joaten da euskaldun bat Sevillara, eta sekula ez da egiazko andaluz izango inorentzat; eta etortzen da andaluz bat Euskal Herrira, eta erroldatu orduko euskaldunik euskaldunena bezain euskalduna da. Kasu honetan ez du kontatzen pertsonak, “hiritarrak” baizik; Disraeliren judutasun nominal edo formalak, ez edukiak. Errealitate pertsonal edo sozial bat ukatu gura denean, edo ignoratu nahi denean, haren balioa nortasunaren barrutik axal-axalera ekartzen da, konpromisorik ez edukitzeko; kulturatik administrazioko paperera. Orduan beste identitaterik ez dago maskararena baino: maskara, espektroaren tokian).

Hurrengo pausoa dena mozarroaren argitara interpreta-tzea izango da: munduan handi eta ederrik dagoen guztia juduengandikoa da. Ingelesek sinesten duten Jainkoa judua da, Nazareteko judu bati eskertzen diote salbazioa eta harengan dute fedea eta itxaropena, andre judu bat gurtzen dute Ama Birjina, etc. “La muchedumbre trabajadora descansa cada

séptimo día en virtud de una ley judía; está perpetuamente leyendo ‘por su ejemplo’ los registros de la historia judía y cantando las odas y elegías de los poetas judíos; y diariamente reconoce de rodillas, con reverente gratitud, que el único medio de comunicación entre el Creador y ella es la raza judía” (Disraeliren pasartea, aip. in: I. B., 351). Erljioa bezalatsu, historia ere misterio ezkutu bat da, eta, betiere, historian ikusten diren inperioen eta dinastien goititze eta beheititzeak, diplomaziaren arrakastak edo porrotak, egiaz azpiko “indar sekretuek” atarramentatuak dira, ez ageriko arrazoi itxurazkoek: indar sekretu historiaren erabakigarri horiek azken finean judutarrak baitira beti erlijioan bezala politikan, ekonomian nahiz kulturaren, zientzian eta artean ere. “La increíble ingenuidad de Disraeli le impulsó a relacionar a todas esas fuerzas ‘secretas’ con los judíos. ‘Los primeros jesuitas eran judíos; esa misteriosa diplomacia rusa que tanto alarma a Europa occidental se halla organizada y es principalmente desempeñada por judíos; esa poderosa revolución [proletaria] que en estos momentos se está preparando en Alemania y que será de hecho una segunda y más importante Reforma... se está desarrollando enteramente bajo los auspicios de los judíos’; ‘hombres de raza judía se hallan a la cabeza de cada uno (de los grupos comunistas y socialistas). ¡El pueblo de Dios coopera con los ateos; los más expertos acumuladores de propiedades se alían con los comunistas; la raza más peculiar y elegida estrecha las manos de la hez y de las castas inferiores de Europa!’ (...) En la imaginación de Disraeli el mundo se había tornado judío” (H. A., 119).

Gizadiaren historiaren sekretua arrazan datza, arraza hautesi juduan oroz gain. Marxentzat arrazazko judutasuna hain zuzen judu orok bere buruari larrutu behar zion jarauntsi

laidozkoa bazen, Disraelik arrazazko judutasunean gizatasunaren espresio gorena ikusten zuen. “Estaba dispuesto a sostener que el principio semítico ‘representa todo lo que de espiritual hay en nuestra naturaleza’ y que las ‘vicisitudes de la Historia hallan su solución principal en la raza’, que es ‘la clave de la Historia’, pese a la ‘lengua y la religión’, porque ‘sólo hay algo que hace una raza y ese algo es la sangre’, y sólo hay una aristocracia, ‘la aristocracia de la naturaleza’, constituida por ‘una raza sin mezcla y una organización de primera clase’” (H. A., 115).

Ez gaitu harritik inperialismo viktoriarraren justifikazio teorikoan ere arrazismo hau badago oinarrian. Honela dio I. Berlinek Disraeli aipatuz eta komentatuz: “‘Todo es la raza, no hay otra verdad’(...) Fue poseído por la idea de raza y, ciertamente, por la de sus propios orígenes. Denunció la ‘perniciosa doctrina de los tiempos modernos, la natural igualdad del hombre’, la doctrina del cosmopolitismo, de mezclarse con razas ‘inferiores’ (...). – Si la ‘gran república anglosajona’ se permitiera ‘mezclarse con sus poblaciones negras y de color’ declinaría y ‘probablemente sería reconquistada’ por los mismos ‘aborígenes a quienes han expulsado y que podrían entonces ser sus superiores’. Pero esto no sucederá: ‘es en vano que el hombre intente detener la ley inexorable de la naturaleza que ha decretado que una raza superior nunca será destruida ni absorbida por una inferior’” (I. B., 352).

Hona, bada, modernitatearen aurrean herri juduaren asimilazioa, h. d., disoluzioa eragiteko bi eredu: judutasunaren mespretxu erretxinarena eta judutasunaren harrokeria apologistarena (praktikan judutasuna abandonatuz). Azkenean, postura biek puntu berera daramate: judutasunaren ukora. Disraeli eta Marx, “dos hijos de padres recién emancipados”

(I. B.), gaztetan bataiatuak biak eta ez kristau, ez judu egoeran geratuak, identitate komunitarioa galdurik eta identitate pertsonalaren bila ihalozka.

4

Interpretazioak orain alde batera utzita: a) nazionalistenetako askotxo gutxiengoetatik datorrela nabarmentzen du I. Berlinek. b) Denok ikusia dugu, bestalde, nola hasieran nazionalistenetako ez gutxik, gaxte abertzale, iraultzaile, etab. izan eta gero, erribera kontrarioan probatu duen fortuna, edo, gaizki aterata, desenkantuaeren lanketa melankolikoan amaitu duen, betiere behialako burkideen etsai mingotsenak berak direla.

“Aquellos que nacen en la sólida seguridad de una sociedad asentada y permanecen como miembros totales de ella y la miran como un asilo natural, tienden a poseer un sentido más fuerte de la realidad social, en ver la vida pública con una perspectiva razonablemente justa, sin la necesidad de escapar hacia fantasías políticas o invenciones románticas. Esta tendencia a la idealización es mucho más frecuente entre aquellos que pertenecen a minorías que están en cierto grado excluidas de participación en la vida central de la comunidad. Son capaces de desarrollar ya un exagerado resentimiento o desprecio hacia la mayoría dominante, o también una admiración más que intensa y aun adoración por ella y, algunas veces, una combinación de las dos que conduce tanto a ideas

extrañas –nacidas de sensibilidades sobreexcitadas– como a la distorsión neurótica de los hechos.

Esta situación se advierte con frecuencia en los líderes políticos provenientes de fuera de la sociedad que dirigen o, en todo caso, de sus márgenes, de las fronteras exteriores a ella. La visión que Napoleón tenía de Francia no era la de un francés; Gambetta llega de las fronteras del sur, Stalin fue georgiano, Hitler austriaco, Kipling llegó de la India, De Valera era sólo medio irlandés, Rosenberg llegó de Estonia, Theodor Herzl [sionismo politikoaren fundatzailea] y Jabotinsky [jatorri errusiarreko judu sionista, 1920an Hagana ‘terroristaren’ antolatzailea Palestinan, gero Irguneko komandantea], al igual que Trotsky, de los márgenes asimilados del mundo judío (...). Hugh Trevor-Roper precisamente ha advertido que los nacionalismos más fanáticos aparecen en centros donde las nacionalidades y culturas se mezclan, donde la fricción es más fuerte; por ejemplo, Viena, a la cual podrían añadirse las provincias bálticas que formaron a Herder, el independiente ducado de Saboya en que De Maistre, el padre del chauvinismo francés, nació y creció, o Lorena, en el caso de Barrès o De Gaulle” (I. B., 334-335). Eta segi: Franco galegoa zen, frankista amorratu asko euskalduna, “Cara al sol” himno falangistaren autorea zegamarra...

a) Ramiro de Maeztu (1875-1936) har daiteke halako euskotar espainolistaren prototipotzat. Funtsean ezaguna da eta ez dago luzatu beharrik: Gasteizen sortua, “98ko Belaunaldiko” idazlea, gaztetan nolabait anarkista/nietzscheista kritiko izatetik espainolismo eta tradizionalismo itxienera birkonbertitua, haren lan literario eta politiko guztia Espainiaren “erregenerazioko” ahalegin etengabea laburbil daiteke, eta 1899ko *Hacia otra España* eta 1934ko *Defensa de la Hispa-*

nidad kontsidera litezke haren bi obra mugarriak. “Antes que nada, ¡soy español!” du fede aitortza, eta bere ideiak bere grinak zituen. Borrokalaria gogorra izan da beti bere pentsamenduaren alde. “El vasco bravísimo y fuerte” iritzi zion Ruben Daríok, topiko zaharrari jarraituz.

Disraeli bere modura guztiz judua, egiaz izan ozta-ozta bazen judua, Maeztu hori ozta-ozta euskotarra baina guztiz baskoa zela bere modura esan genezake. “De” Maeztu zen, noski, eta eusko jatorri noblekoa uste zuen bere burua. Aita Kuban jaioa zuen, non ere aitonak alarguntsa aberats bat esposatuz dirua egina baitzuen. Familiako negozioak gaizki joaten hasi zirenean, Ramiro gazteak aitonari laguntzera joan behar izan zuen, hamabost urterekin. Gau batez, euri eraso batean zaldian zihoala, beltz bati “Gernikako Arbola” kantatzen entzun zion, bizkaitar bati ikasia, eta halakoxe zirrara eragin zion, negarrez egon omen baitzen. Baina, ondasun denak galdu zituztela aparte, Kuban honezkero ez zegoen sinpatia handirik espainolentzat. Maeztuk berak gogoratzen duenez: “Lo que ha sentido el cronista [Maeztu bera] es ese menosprecio; pero no como individuo sino como español. Educado en el menosprecio, por haber vivido en los años decisivos de su vida –de los diez y seis a los veinte– entre cubanos odiadores de España, ha sentido el furioso anhelo de que su patria fuera grande”. Maezturen bizi guztia ondasunak galdu eta are espainol bezala mespretxatu eta gorrotaturiko gaztearen erreminaren bizitza izango da, beti Espainia handi baten irrikatan, beti alferrik. “Tengo una fe profunda –deklaratzeko zuen– en los destinos españoles y en la fuerza de la raza” (“Españolismo joven”, 1899-09-03). Unamunok legez, estreina erregenerazio espainola europartzean, industrian, modernizazioan iragarri izan eta gero, azkenean

Espainiaren handitasuna iragan inperialean eta katolizismoan ikusiko du, Gaztelaren mistikan: katolizismoak salbatu behar zuen Espainia, eta Espainiak mundua. “No hay en la Historia Universal obra comparable a la realizada por España”. Bufo-keria hauetan bilbotarra bezain negargarria da gasteiztarra; pixka bat donostiarra salbatzen da (Baroja). 1928an Primo de Rivera diktadoreak Argentinan enbaxadore izendatu zuen, han Zacarías de Vizcarra gotzainarekin topo egin baitu, “Hispanidad” kontzeptuaren asmatzailea. Biok izan dira Hispanidadearen apostoluak, gero Toledoko Kardinale Gomárekin. Zacarías de Vizcarra hori, Abadiñoko semea, Maezturen antzeko beste eusko Disraelitxo bat dugu. Apaiz gaztetan *Cristiñanaren Jaquinbide Laburtua* baten egilea euskaraz, gero katolizismo eta espainolismoaren gurutzari sutua, *Vasconia española*-ren autorea (1939). Ikus haren pentsamendu nazional-katolizistaren perla bat: “la Hispanidad debe cumplir todavía dos brillantes misiones en la Cristiandad, para salvar a la Humanidad en su más terrible crisis: 1.º Debe derrotar al Anticristo [komunismoa, masoneria, etab.] y a toda su corte de judíos (...), 2.º Debe España completar la obra iniciada en Covadonga, Las Navas, Granada y Lepanto, destruyendo completamente la secta de Mahoma y restituyendo al culto católico la catedral de Santa Sofía, en Constantinopla. (...) Porque Santiago y España tienen que cantar un día el Credo de Nicea en la mezquita de Santa Sofía, después de haber rasgado en su pórtico, entre los aplausos de la Morisma bautizada, los falsos mandamientos de Mahoma” (“El Apóstol Santiago y el mundo hispano”, 1932).

Maeztu, eskuin-eskuindarra, demokraziaren eta Errepublikaren etsai amorratua, Hitlerren mireslea, 36ko gerra zibilaren lehen egunetan Madrilén miliziano errepublikarrek atxi-

lotua eta “saca” batean (presoen afusilamenduak epaiketarik gabe) asasinatua hil da. Hil aurreko egunetan preso lagunak euskal ipuinak eta bere Euskal Herriko haurtzaroko oroipe-nak kontatuz entretenitzen eta animatzen ei zituen kartzelan (V. Marrero, 1955, 742).

b) E. Cioran (1911-1995). Denboran eta espazioan hur-bilagoko izen batzuk aski ezagun, ezagunegiak ez aipatze-ko, Cioranekin geldituko gara. Kasu bezala baino gehiago, nolabaiteko prototipo gisa: aberria utzi eta Parisen instalatua (gure ingurukoek Madril aldera jotzen dute), zirkulu literario ilunetako espektro, desilusioaren loretxozain beti, bere marji-nazioaren sibarita, baina azpian metrailazko estilo korrosibo-ko aforista, bere txapitula mitiko pseudobudistatik mundua erdeinatzen. Gainera, ez al dugu hain zuzen bere irudiko edo irudinahiko jendeak gure artean kasik benerazio erlijiosoz gurtua, miretsia, predikatua ikusi berriki arte? Desenkantua-ren maisuen maisu.

Gure artean militanteak badaude, ekintzaile politikoak adi-bidez, eta antimilitanteak ere badaude, ordenako jende zuhu-rra. Eta batez ere sinesgabeengan sinesteko debozio handia dago, gehiengoaren moderazio handiarekin uztartuta. Cio-ranek militantziarentzat destaina besterik ez du ezagutzen; politikarentzat burla besterik ez. Borroka egitea, lan egitea, planak egitea, etorkizuna amestea: absurdo hutsa. Historia absurdoa da. Gizartea eta mundua aldatu guran ahalegintzen direnak, ekibokatuak baino ez, fanatiko hutsak gehienetan. Idealistak ez dira ilusoak baino. Munduari utzi egin behar zaio bere zoroan. Dihoala. Zentzuduna, zogia, ekintza orotik erretiratzea da. Jakintsuari gelditzen zaion jabala eta sosegua, edozer gauza egin edo ezer ez egin berdin-berdin dela jakitea da. “Existe un placer innegable en saber que lo que se hace

no posee ninguna base real, que da lo mismo realizar un acto que no realizarlo”. Labur: ezerk ez du ezer merezi. Bizitzeak ez du merezi, eta suizidioa posible dela pentsatzeak bakarrik bihurtzen du bizitza jasagarri. Ikus F. Savater, *Ensayo sobre Cioran*, 1974.

Cioran apaiz –pope– ortodoxo errumaniar baten semea zen, Inperio austro-hungariarraren pean jaioa. Hamazazpi urterekin filosofia ikasten hasi da Unibertsitatean, berehalaxe garaiko filosofia alemanarekin horditua geratu baita (Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Bizi Filosofiak), eta gaztearen entusiasmo gorienarekin sorterriko mugimendu faxistari atxiki zaio, Errumania Handi Berri baten aldeko Guardia Burdinazkoan militatzera sartuz, falange moduko erakunde filonazista eta antisemita, Codreanu “Kapitain” karismatikoak gidatua. Cioran orain Historiaren eta ekintza handiaren mistiko bat da. “La acción como fin en sí misma es el único medio de volver a la vida”, idatzi dio anaiari ekintzaren mitologia faxistaren tonu tipikoan. 1933an nazismoaren garai-pena ospatu du Berlinen, non ere momentuan estudiatzen baitago, eta Parisen halaber 1940ko ekainean, tropa alemanek hiriburu frantsesa okupatu dutenean bera hor bizi baita, literaturari emana, gobernu errumaniarraren bekadun. Gerra bukatu eta Cioran Parisen geratu da (Errumania komunista da). Baina, bere idealek pott egin badute ere, Cioran ez da inoiz “damutu” eta ez du inoiz demokrazia onartu. “Je pense à mes ‘erreurs’ passées, et je ne peux pas les regretter. Ce serait piétiner ma jeunesse; ce que je ne veux à aucun prix. [...] Le mieux que nous puissions faire est d’accepter notre passé; ou alors de ne plus y penser, de le considérer comme mort et bien mort”. Cioranek egin duena da bere idealak, aberria, errumaniera, dena erre kara bota, eta identitate berri bat erai-

ki, paristar desenkantatu, aberrigabe, ideologia guztiekiko immune, idealismo eta utopien kritikoa, eszeptiko totalarena, munduarekin aspertua, seguru asko pose literario soila ez dena nolahi ere, hori dena haren gaztetako Schopenhauer eta Nietzschek ildoan arazorik gabe birregokitzen baita. “Cuando se ha salido –idatzi du– del círculo de errores y de ilusiones en el interior del cual se desarrollan los actos, tomar posición es casi imposible. Se necesita un mínimo de estupidéz para todo, para afirmar e incluso para negar”. Munduak bere ametsei uko egin badie, berak munduari berari uko egin nahiko dio, amets guztiekiko. Ez du zirkulu literarioetan agertu nahiko, muzin egingo die literatur sariei-eta. Ezkutu-tuan biziko da. Munduak ukatzen duena, horixe maiteko du berak. Lehengo antisemitak orain judu izan nahiko luke, eta judu ezin izatea ei du penarik handiena. Lehengo aktibistak mistikoenganako jainera kasik gaixoti bat sentitzen du (bere esaera da). Unamuno osoa irakurri du, Santa Teresa Avila-koaren fanatiko bilakatu da (bere esaera, berriro). “España es el único país que quiero (...). Amo el genio fracasado de España”, aitortu dio Alina Diaconuri 1985ean; itsuki maite duela “esa locura tan particular, inconfundible, propia de España”, Gabriel Liiceanuri 1990ean. Berak Paris urrunetik maite duen Espainia horretan, Franco existitu ere ez dela egin berarentzat urte luze guztiotan ematen du... Total, diktadura, demokrazia: zer alde dago?

Esan beharrik ez, nazionalista beroa izan eta gero, Cioran nazionalismoen arbuiatzaile guztizkoa dela, exilioa existentziaren forma bikaintzat emanaz intelektualarentzat. Baina merezi du ohartxo bat nola Cioran, aberri politikoari uko egin eta bere burua aberrigabe deklaratzear gainera (1946), bere hizkuntzatik ere deliberatuki exiliatu den (1947), ho-

rrek ez baitu mundua eta munduak maite duena ukatzearen itxurarik izan. Mallarmé errumanierara itzultzen ari zela, bat-batean “errebelatu zaio”, dio berak, ez duela merezi inork ezagutzen ez duen hizkuntza batean idaztea, landugabea eta barbaroa, eta aurrerantzean frantsesez bakarrik idaztea erabaki du. Idazle batentzat, idazteko hizkuntzaren hautua (hautua dagoenean), historia baten, jendarte baten, etab., mundu oso baten hautua da. “Cambiar de idioma, para un escritor, es como escribir una carta de amor con un diccionario”, aitortu izan du. Cioranek errumaniera laga eta frantsesa hautatu du. Eta frantsesei frantsesa beraiek baino hobeto idazten duela demostratzea izango da haren enpeinu unamunotarra. “El paso de Cioran a la lengua francesa –idatzi du G. Liiceanuk– y la adopción definitiva de una actitud escéptica, que se producen a finales de los años cuarenta, son consecuencia directa de un ajuste de cuentas interior con sus compromisos de juventud. La expatriación lingüística consolida su ruptura con una parte de sí mismo y su divorcio de toda una época de su vida. Francia, el abandono de la lengua materna, suponen repudiar la vieja identidad y, como él mismo confesará, ‘liberarse del pasado’” (E. M. Cioran. *Los continentes del insomnio*, 1995, 23-24). Hala ere, euskaldun batek ezin du susmoa gorde, errumanierarekin eten hori ez dela izan etena soil-soil iragan faxista handigurarekin... Halatsu adierazten du Liiceanuk ere, Cioranen argitaratzaile errumaniarrak: “‘El orgullo de un hombre nacido en una pequeña cultura siempre está herido’. Estas palabras, escritas por Cioran en una de sus obras de juventud, podrían darnos la clave, si no de su obra francesa, sí al menos del personaje que la ha acompañado en la sombra” (35).

Isaiah Berlin eta Hannah Arendt berak, eta Kavafis, Milan Kundera, Edward Said... hainbat irakurri ditugu, arreta hunkituz, nolabait mundua galdutakoak. Ezleketan errefuxiatuak. Aberria –iragana– hasandu duena “memoriaren deformazio masokista bat nozitzen duen” eria da, aitorrarazten dio Kunderak bere pertsonaietako bati, txekiar emigratua bera. “Su memoria le odiaba, no hacía más que calumniarle” (*La ignorancia*, 2000, 80).

5

Gure egoera den bezalakoa da, izan. Baina nola interpretatu? Atzo ala gaur berdintsua da substantzialki, nik uste, bitartean badauden diferentzia guztiekin ere. Euskaltzale izatea oraindik ez da “naturala”. Baina Euskadin gaude, eta ez du ematen naturala, Euskadin ez izatea naturala euskaltzale izatea. Beraz, berriro, zein da gure egoera?

Belaunaldi berri bakoitzak begi berriak ekartzen ditu. Guk geure gogoeta egin genuen, geure terminoetan, eta orain termino berrietan egiten da gogoeta hori. Beharbada gaur ezinezkoa irudituko da, baina guretzat erreferentzia inportante bat guztiz positiboa Israel zen. Bai, egun hain erraz gaitzes ten den Israel horixe. Euskaltzalea juduarekin identifikatzen zen zalantza gabe (Andima Ibiñagabeitia, Nemesio Etxaniz, etab.). Abertzale politikoek begiak Irlandara, edo gero Aljeria eta Kubara itzultzen zituzten bitartean, euskaltzaleok Israele-ra begiratzen genuen sinpatiaz, eta interesik biziena genuen

herri juduaren historian, neurriren batean edo moduren batean bederen haiekin bat eginik.

Jakin aldizkaria sortu eta ja 3. zenbakian (1957) artikulua bat dator, “Eberkera eredu”, zeinena eta Iñaki Bastarrikarena hain zuzen: Israel “eredu bikaina euskaldunontzat” – “aberri txikia, baño aberri”. Israeldarrak hizkuntza biziberritzeko eta modu “garbian” modernizatzeko bi ahaleginetan jotzen dira eredutzat. Den-denak juduzaleak ez zirena, jakina da. Jon Mirandek artikulua bat idatzi zuen ironikoa *Egan*-en (3/6, 1960), Vintila Horia errumaniar “judu kristautu” omenaren *Dieu est né en exil* eleberriari Parisen Goncourt saria eman ziotelako kariaz, eta ez zuen ahazten aipatzea autore exiliatu orain demokrata hori lehentxeago bere aberrian filofaxista eta antisemita suharra izana zela (Cioran, Mircea Eliade, Ionesco eta abarren antzera). Euskaltzale “zintzoei” ez zitzaizkien bategarriak gustatu (K. Mitxelena, Aresti). Aginagak *Egan*-en bertan zakar erasiatu zuen Mirandek, eta Mirandek mindurik erantzun zuen. Berehala *Jakin*-en (15, 1961) Dionisio Arruti Arantzazukoak “Erri baten misterioa” artikulua eman zuen, juduen ez ezik (herri txiki handia!), sionismoaren ere defentsa, eta antisemitismo tradizionalaren eta bereziki modernoaren salaketa. Aldizkari berean D. Peillenek “Mixteriorik ez da” erantzun zion (17, 1964 – bitarteko urteotan aldizkaria debekatua egon zen!).

Juduen eta Israelen miresle eta maitale minena Imanol Berriatua frantziskotarra izan genuen (Jerusalemen hil zen eta han dago hobiratua); eta Bilboko *Anaitasuna*, interes gehien erakusten zuena juduen hizkuntz politikarekiko. 1967ko uztaileko zenbakian (147, 1) “Eliezer ben Yehuda hebreo izkuntzaren sortzailea” Iñaki Zubeldiarena irakur daiteke lehen orrian (hori “judutarrentzat S. A. G. –oroit zentsura!–

euskaldunentzat baiño aundiagoa izan da”); eta hirugarren orrian berriro “Israel edo erri baten bizi-naia” J. M. Torrealdairena. Urriko zenbakian lehen orrian (151, 1) Elortzaren “Israel, Israel da, baiña gu...” konparazio bat Israel eta Euskal Herriaren arteko antz eta antzik ezei buruz, gorazarrezkoa lehenarekin eta kritikoa euskaldunekin. Nazioarteko albisteen ataletan Israel eta Palestinako informazio politikoa ez zen falta izaten noski. Baina 1976ko neguan eta 1977ko udaberrian uholde txiki bat bezala dator artikuluz artikulua. “Euskaldun bi Israelen” hiru orrialdekoa (zk. 328, 25-27) Xabier Kintanarena, berak eta Imanol Berriatuak Israelera ikus eta ikasminenez egindako bidaiaren berriematea. 332 zenbakitik aurrera, “Israeleko miraria”, “Israeleko judu berriak”, “Israelen nola irakasten den hebraiera”, etab., Imanolek hango hizkuntz politikaren eta pedagogiaren, helduentzako hizkuntz eskolen eta irakasteko metodoen informazio zehaztua eskaintzen du, betiere Euskal Herrian haien eruditik ikasiko den nahikariz. “Azken hoge ta bost urteotan, bi milioi juduk ikasi dute hebraieraz berba egiten”. “Haiek egin ahal izan dutena, zergatik ez dute ahal izango Euskal Herrian euskaraz ez dakitenek ere? Hortarako, nire ustez, guk ere juduen antzera jokatu behar genuke” (zk. 332, 17). Baina ez, ez dugu jokatu juduen antzera... 1980an, berriro, “Euskal Herritik Israelera”, “Zer berri Israelen” (zk. 404), Euskaltzaindiak antolaturik Euskal Herriko 50 lagunek Israelera egindako ikasbidaiaren informazioa ematen da... Nolabait laburtzeko: judu batzuk ginen, baina judu txarrak.

Nolako irakurkera egiten dute oraintxe gazteagoek gure egoerarena? Zeintzuk dira haien erreferentziak? Guk euskal kulturaren agoniaren sentimendua genuen (agoniaren adiera unamunotar agresiboan hein batean); orain Mitxelko Uran-

gak “euskal kultura hilik dago” botatzen digu, hasteko. “Ez dago jada euskal kulturarik, ez dago euskal kultura gorpuzten duen masarik –ez behintzat zentzu modernoan–; (...) esan dezakegu herri euskalduna mamu bihurtu zaigula, lurrinkorra (...). Ez dago jada euskaldunik, espektroak bilakatu dira”. Bizitzaren eta heriotzaren artean higitzen diren izakiak dira euskaldunak.

Edonola ere, euskaraz esaten du. Espektro bat mintzo zaigu, hortaz?

Gure nolabaiteko irrealtasunaren sentsazioa euskaltzaleok lehenago ere beti ukan dugu. Egiaz existitu geure artetxoan bakarrik egiten dugu. Bestela, euskaldun jatorrak errealistak dira eta gauza erreagoez arduratzen dira, euskara edo literatura eta holakoak baino. Baskoentzat betidanik izan gara noski bitxiak. Beraz, etxetik irten eta autobusean sartu orduko, zure irrealtasuna espazio horretan kasik fisikoki hasten zara sentitzen (egia esateko, goiz honetan eskertu egiten duzu), eta gero berdin, egunkari pilatik zuk erosten duzun bakaurrean, lanbideko lagun artean, kafetegian, bibliotekan, igerilekuan. Mozorro bat denok daramagu, baina euskaltzalearena ikusezina da. Euskaltzale zaharrak beti zeukan sentsazioa, bera besteak ez bezalako beste espazioren batean zegoela, eta batez ere beste garairen batean. Espaziorik eta denborarik apenas gabeko esfera estrainio batean, euskaltzaleen uharte berekia. Baina espektroak ginen sentsaziorik ez genuen aitortuko, horixe ez ote ginen beldur izanik ere... Guri baiestea zegokigun, gure errealitatea, gure errealismoa baiestea, are gure modernitatea bera.

Jakin, modernoak ez ginena, beti jakin dugu. Izan ere ez ginen, azken-azken orduko eta erdizkakoak ez bada (Orixe harrotu egiten zuen moderno ez izateak: klasikoa denbora

gabekoa ei da, eternala). Berandu harrapatu gaitu modernitateak. Baina ondo harrapatuak gaitu, harrapatu bagaitu. Eta inpresioa egiten du, euskaltzale gazteek orain modernitatearen kritikaren, are kritikarik posmodernoaren terminoetan irakurtzen dutela gure egoera.

(2011)

HISTORIA EZ DA IKUSTEN,
ASMATU EGITEN DA

OBJEKTUAREN ERAIKUNTZA

Noiz eta non hasten da Espainia: Atapuercan?, ibero eta zeltekin eta, Sánchez Albornozeke esango zukeen moduan, haien “temperamentuaren jarauntsi” espainolarekin?, Erresuma bisigodoan, Covadongan?, Errege Katolikoekin?... Noiz hasten da historia, edo nola etortzen gara hasiera-hasierako puntura; esate baterako, Frantziak, Alemaniak mintzatzera, historian halako objektuak jartzera?

Zientzia bakoitzak bere objektu propioa du, edo objektua begiesteko molde berekia. Historiak nola aurkitzen ditu bere objektuak? Erdi Aroko historialari batek Frantziarik nola aurkitzen du? (eta nola aurkitzen du Erdi Arorik?). Esaterako, Euskal Herria historiagintza zientifiko baten objektua izan liteke? Bistan da, historiagintzaren objektua zedarritzeko kriterioak Estatu modernoaren perspektibatik hartzen baditugu, objektu legitimoak Estatuak berak eta horien deribatuak aterako direla. De fakto historiagintza zientifiko moderno kasik dena Estatuon perspektibatik eta horien zerbitzuan egin da, à la Hegel. Elizaren perspektibatik beste objektu batzuk berdin legitimoak ager litezke (ordena erlijioso supranazionalak-edo, esaterako). Estaturik gabeko nazioen perspektibatik begiratu nahi izanez gero, beste kriterio batzuk aplikatu beharko dira, berdin legitimoak – legitimatzen baldin badakigu.

Arnold J. Toynbeeri hau irakurtzen diogu, itzulpen espainolean: “(...) El desarrollo en los últimos siglos, y más particularmente en las últimas generaciones, del presuntamente autárquico Estado soberano nacional ha llevado a los historiadores a escoger las naciones como los campos normales del estudio histórico. Pero ninguna nación o Estado nacional de Europa puede presentar, aisladamente, una historia que se explique por sí misma. En realidad, si no se encuentra que Gran Bretaña (o, en los períodos más antiguos, Inglaterra) constituye en sí misma un campo inteligible de estudio histórico, podemos inferir con seguridad que ningún otro Estado nacional europeo moderno resistirá este examen”.

Historiak ez du a priori berak egin-eginda historialaria-ri ematen dion objekturik (subjekturik). Orain alde batera utzita eraikuntza horiek –subjektu historikoak– denak objektu “mitikoak” direla, gogoan har dezagun, Frantzia adibidez, edo Euskal Herria, kontzeptuak berak, eraikuntzak direla beti, eraikuntza konplexuak (historiko, kultural, politiko, juridiko, etc.) eta “interesatuak”. Kognitiboki, politikoki, etc. interesatuak, eta beti ez moralki berdin legitimoki interesatuak (askatasun mito bat ez da inperialismoaren mito baten balioberdina moralki). Gero, objektu horri historia bat, hots, jarduera eta jasaera bat suposatzen zaio, kreaizio batzuk, espiritu edo arima bat nolabait, aiurri edo arima delako hori are gehiago baita eraikuntza. Eta arima horren jatorri eta leinu historikoa omen dena (Sánchez Albornosen zeltak, iberoak) eraikuntza bat izaten da orobat. Historia eraikuntza da. Ez da objektzio bat historiari: hain zuzen ere, errealitatea eraikuntza da.

Zein tipotako eraikuntza da historia?

ASTERIX

Asterix *le Gaulois* komiki bat da, mundu guztian gustatua. Baina ez da komikia soilik. Batez ere da aspaldiko mito historiko bat, bertsio modernotuan. Eta da filosofia bat guztiz arriskugarria piluletan kontzentratua: honi ez baitiogu erreparatu ohi, heroi galiarraren zirkun-zarkunak dibertiturik segitzen ditugun bitartean. Irakurleak ohartu ere gabe, umorezko figuren mozorro maitagarrienen pean, umore oso gutxiko filosofia politikorik nazionalistena antzetzten da haren begien aurrean.

Asterix eta Obelixen istorioak bi molde hauetako batekoak izaten dira: edo bi heroiek atzerrira joan beharra izaten dute, eta, mundua konpondu eta gero, garaipentsu itzultzen dira etxera; eta herrixka galiar osoak heroien itzulera oturuntza nazional handi batekin sulamaren birundan ospatzen du. Edo atzerritarrak, jeneralean erromatarrak, auzunean muturra sartzen lotsagabetzen dira, eta bi heroiek, sekulako pandemonium batean kristoren egurrak eskuin-ezker banatuz, zapartatuta uzten dituzte erasotzaileak; eta herrixka galiar osoak heroien garaipena oturuntza nazional handi batekin sulamaren birundan ospatzen du. Azkenekoa, garaipena eta oturuntza, elementu faltaezinezkoa da Asterix eta Obelixen istorioetan: borrokaren ondoren garaipenak eta euskaristia nazionalaren ospaketak etorri behar du. “Le jour de gloire est arrivé...”

Lehenengo eredia denaz bezainbatean: Asterix eta Obelix ez dira inoiz euren borondatez ateratzen ergoien arkadikotik. Tribuko buruzagiak edo druidak misio bereziren bat gomen-datu dielako joaten dira atzerrira. Ez bedi pentsa Frantzia kolonialista denik. Aljeriara edo Indotxina/Vietnamera, etab.,

etab., historiak gomendatu dien misio zibilizatzailea konplizera bakarrik joan dira beti frantsesak.

Tipo bat sortzeko, hala nola Chaplin zinema mutuan, istorioaren egiturak zuzena izan behar du; osagaiak, gutxi eta behin eta berriro ohikoak; jokabideak, ia mekanikoak, keinu berak beti errepikatuak; situazioak, aldez aurretik askaerari erraz antzematekoak; bukaera, happy end errituala. Horrela istorioak serie bilakatzen dira, historia esentzial bateko aldiu-neak. Asterix eta Obelixek eta haien lagunek galiarraren esentzia bere fazeta ezberdinetan errepresentatzen dute: hots, Frantzia esentziala. Eta Frantzia horrek bere historiaz duen kontzeptua aurkezten da Asterixen abentura guztietan: beti erromatarrek eraso, h. d., ingelesek eta alemanek eta espainolek, bera baino auzo boteretsuagoek; baina beti bera garaile, txikiagoa izan arren, edozein etsai apurtzeko superhala ematen dizkion edabe magikoaren sekretua baitu: bere izpiritu nazional garaiezina. Bi momentu hauek ditu, hortaz, Frantziaren historia esentzialak: kanpokoen eraso behin eta berriro, eta frantsesen erresistentzia amorratua eta garaipena. Beti horrela izan da: behiala erromatarrekin, gero ingelesekin ehun urteko gerran, alemanekin eternitate guztian. Erresistentzia Frantziako historiaren esentzia da, eta komunitate galiar/frantses oso-osoa jarrera da... Erdi Aroa ezker Frantziako Erresuma, ingurukoek eraso baino gehiago inguruko lurren erasotzaile eta anexatzaile lapurra izan dela, historian ezagun samarra da, baina Frantziak duen bere buruaren kontzeptuan hori ez da sartzen. Historia datu selektiboekin egiten da. Larrialdi larrietan historia modernoan egiazko erresistentzia eta garaipena Frantziak ingelesei eta iparramerikarrei zor izan diela, Asterixek ez daki. Memoria nazionala selektiboa da. Erresistenteak ez asko eta “kolabo”ak ez gu-

txi izan direla, bazter utz daiteke. Oroipen eta ahazpen selektiboekin burutzen da identitate nazionala (Vichy istripu bat izan da, ez da Frantzia esentziala), Euskal Herriari eta euskaldunoi hori ukatu nahi izaten bazaigu ere. Diferentzia sozialek, ideologikoez, politikoez, klase borrokek, iraultzek, ez dute “la grande nation”en bat izatea zatitzen. Edozein diferentziaren gainetik, Frantzia esentziala betidanik bat da, Asterixen herrixka galiarra beti bat den bezala.

Asterixek espresatzen duena, beraz, Frantziaren arima jatorra da.

Arima hori zer den eta funtsik funtsenean zertan datzan, jatorriarekin adierazten da: arima frantsesa esentzialki galiarra da. Zer baiesten eta zer ezesten da jatorri konkretu horrekin?

Aurrenik ohartzekoa da, zerbait zer den, kasu honetan nazioa edo arima nazionala zer den, haren jatorriarekin azaltzen dela. Hots, arbasoen mitoarekin: euskaldunak, Tubalen haurrak; frantsesak, galiarren oinordekoak, etab. Nazioa berdin leinu bat. Izaera nazionala, natura, genealogian errotzen da (“ab-herria”). Genealogiarekin esplikatzen da “esentzia”: historiako gorabehera guztien azpian iraun dirauena; historian zehar objektuaren identitatea edo jarraipena (zer ikusi behar du Erdi Aroko Frantziak oraingo Errepublikarekin?) legitimatzen duena. Erreferentzia genealogiko hau nazioaren Kanten definizioan bertan ageri da: nazioa “jatorri komune-ko” jendea da, hitzak berak adierazten duenez (“natio”).

Eszenaren atzeari begiratzen badiogu, Asterix, edo Frantziaren arima galiarra (gaur ez gara eskandalizatuko arimaren kontuagatik), errepublikanismo frantses ideologikoaren bandera bezalakoa ageri zaigu. Iraultzak ezabatu egin du iragana, historia. Baina horrela desagertzen dena ez da historia,

historiaren irakurkera bat baizik, ideologia bat. Tradizioaren aurka, Errepublika iragan nazional berri baten, memoria “demokratiko”, antikatoliko, laizista baten premian aurkitu da, h. d., “arma berrien arsenal” baten beharrean, Augustin Thierryren berbekin esateko, erreakzionario absolutisten eta Iraultza aurreko garaien nostalgikoen kontra argudiatzeko. 1828an Augustinen anaia Amédée Thierryk *Galiarren Historia* handi bat publikatu du prehistorian hasita, eta pintatzen duen haien karaktereak Asterixen argazkia ematen du: “une bravoure personnelle que rien n’égale chez les peuples anciens; un esprit franc, impétueux, ouvert à toutes les impressions, éminemment intelligent...; une répugnance marquée aux idées de discipline et d’ordre si puissantes chez les races germaniques”. Baina inporta duena oraindik ez da hori. Ordura arte Erresumaren sehaska sakratua Reims zen, han abiatzen zen Frantziaren existentzia festa erlijioso solemne batekin, Klodobiko edo Clovis buruzagi frankoaren eta hiru mila gudariren bataioarekin San Remigio gotzainaren eskutik, Jainko katolikoak Tolbiaceko batailan (496) emandako garaipenagatik denak konbertituak. Hala, Frantziaren sorrera Jainkoak berak paratua zen. Frantziako historiari *Gesta Dei per francos* zeritzon. Henrike I.a ezkerro (1027) Frantziako erregeak Reimsen izan dira sagaratuak. 1825ean, Errestaurazioko Karlos X.ak, Antzinako Erregimenarekin lotzeko keinu sinbolikoan, Reimsen osparazi du bere koroapena. Reimsen Monarkiak, Frantziak eta Elizak bat egiten zuten: Frantzia Elizaren alaba nagusia da, etc. Asterixen edo galiarren hautuak, hortaz, Frantzia eta Frantziako historia, erregeena eta Jainkoarena izatetik, herriarena izatera iraultzen du (edo “arrazarena”). Asterix arraza frantses jatorraren prototipoa da, Frantzia monarkiko, eliztarraren aurka.

Bigarren fase batean Asterix, Galiako herrixka hori “erromatarrek inoiz ez menperatua”, sinbolo antifrankoa bilakatu da, hots, antialeman; bereziki 1870/71ko gerra franko-prusiarraren eta Sedango ausiabantzaren ondoren, eta hala II. Mundu Gerra ostean Europako Batasunaren mugimendua zabaldu den arte (azken garai honi zor zaio egungo Asterix alaigarria). Memoria nazionalaren *lux et origo* puntua, Clovis erregearen tokian, Vercingetorix “lehen patriotak” hartu du. Reimseko katedralaren ordezkari Alesiako gudalandak. Napoleon III.ak egundoko monumentua jaso dio erromatarrei buru egin zien buruzagi galiarrari (1866), heroia-aren zazpi metro gorako estatua-ekin, Aimé Milleten obra, eta Viollet-le-Duc arkitektoaren pedestalean hitzok irarrita: “La Gaule unie/ Formant une seule nation/ Animée d’un même esprit,/ Peut défier l’Univers”. Vercingetorix eta galiar “berpiztuekin”, XIX. mendeak mitologia (arima) berri bat eman dio Frantziari. Frantses bakoitza patriota galiar bat da Erromaren aurka; Prusia eta Alemaniaren aurka, alegia. Thierry anaiak, Henri Martin, etc., historialari frantses handienak, denak Estatua- ren zerbitzari leialak, mito hori brodatzen aritu dira. Eta III. Errepublikako maisuek eskolan hexagonoko haurrei bezalaxe kolonietako neska-mutiko beltzei fede laiko berria irakatsi diete errezatzen: “Nos ancêtres les Gaulois étaient grands et blonds...”

Hala ikasi zuen eskuliburutxoan Henri Salvador haurrak, guyanarra eta beltza bera, geroago Paris guztiari barre eragin diona kanta kantatuz: “Nos ancêtres les Gaulois/ Cheveux blonds et têtes de bois/ Longues moustaches et gros dados.../ Faut rigoler, faut rigoler”. Honela, hirugarren fase batean jada, galiar errebantxista kalpar-horail mustatxandia, kolonietako artista beltzaren ironiak gaiztogabetu eta goza-

tua, Goscinny-Uderzoren komikietako Asterixengan transformadaiteke. Orain frantsesak, galiarren leinukoak eta sekulako gudariak betiere, munduko arbasorik sinpatikoenak dituen nazio handia dira.

Azkenean, zer gara gu arbasoen produktuak baino? Eta zer dira arbasoak gure produktuak baino? Nolabait, historia ez da genealogia besterik.

KARLOS V.A ETA BERE ASABA NOE

2000. urtean egin ziren bostehun urte Flandriako Ganten jaio zela Karlos, Espainiako I.a eta Alemaniako V.a., solemnitare infantil handiosoz eskolan ikasten genuenez. Horren karietara, kaiser Habsburgotarraren bizitzako eta garaiko Erakusketa Internazional bat antolatu zen, Ganten, Bonnen, Vienan eta Toledon ikusgai ibili zena urtean zehar.

Bonnen ikusi nuen nik. Sartu eta, ezkerretara, estreina topatu genuena, kaiserraren genealogia bat. Bat ez, bi. Eta nola ez: haren etorkia Noe beraganaino luzatzen zen. Brabanteko Dukeen Etxeko aitagoia ezin izan zitekeen patriarka bibliko huraxe besterik tenoreko Europan. (Urte batzuk geroago Filipe II.ari Adamenganainoko genealogia asmatuko diote bere kronistek! Progresoaren legea). Baina Biblia bakarrik ez da aski jada: Errenazimentuan gaude. Haur habsburgotarraren beste aurretiko leinargi batzuk Troiatik-eta datoz, logikoa denez; Julio Zesar eta Enperadore erromatarrekin ere senidetua dago. Jerusalem eta Erroma: Kaiserraren odolean munduko

historia bikoitza biltzen da, profanoa eta sakratua. Mundua eta zerua.

Ez dira ipuinak. Metafora genealogikoak “errealitatearen” espresio guztiz errealistak dira: horiekin azaltzen du garai hark handikion izaera aparta, besteona ez bezalakoa. Haur bizikletazale amorratu bategatik, “Indurain bat egina dago!” esaten dugu gaur, eta denok ulertzen dugu, metonimiarekin, nolabait definitu eta handitu egin dugula kaskurria, eza-gutzen dugun ziklista handienarekin erlazioan ipiniz. Gure kontzeptuaketa, Indurainen “naturakoa” bezala bihurtzen dugu harekin konparatuz. Erdi Aroan eta Errenazimentuan, nor zer izan, balio sozialaren erreferentzia funtsezkoak, naturalak kontsideratzen ziren, genealogikoak batik bat. Izan ere, arbasoen posiziotik menpean zegoen bakoitzaren bizi-lerroa gizartean: noblearen seina noblea izango zen; jopua-rena, jopu. Hau da, jatorria berdin natura zen, natura berdin patua. Beraz, hiri eta leinu handiek, patu handiak beren buruei prometatzeke, beren hastapenetan aitagoi handiak asmatu dituzte; probintzia “libreek” (Gipuzkoak, Arabak), paktu libreon fundatzaileak. Filosofia moderno arrazionalistak berak, Itun Sozial bat imajinatu du “gizartearen fundatzaile historiko” arrazionalizat. Zuzenbide Naturalaren filosofia modernoak paradigma hori dizu hondopean. Halaber, “jatorriaren” eskemarekin trazatu dira historia, zientzia. Ez al da esaten zientziaren oinarrian metaforak daudela? Teoriak bere forman ere baldintza sozialak ispiatzen ditu. Monarkia guztiek beren sorburu loriatsuak dituzte, horrek erakusten du haien “natura”. Berdin herriek, nazioek. Genealogismoa, hortaz, ez da ipuin bat: zientzia eta arrazionalismo modernoaren paradigma da.

Bestalde, *Untsa hiltzeko arte* ilunak ahaztu eta, fama argia, loria, hilezkortasuna, ohorea dira Gorte inguruetan bildu diren poeten kantagai berriak. Are, kolorez beterik ari da Erdi Aroaren baitatik modernia sortzen. Karlos V.ak, Frantziako I.ak, irudiaren balio propagangistikoa deskubritu dizute. Gertaera familiar, politiko edo militar orok bere pintorea eta musikoa beharko dizu honezkero. Mendeurreneko Erakusketan zerbait gailentzen bada, Tizianoren pintura inperialak dira, nik uste. Karlos V.aren zuti osoko laukia, Ulmeko dogo zakurrak, Jacob Seisenegger-en “bikiarekin” aldamenean. (Nork kopiatu dio nori?). Mühlberg-eko zaldun bikain hori, gerrako oinaztarri berria. Tizianoren potretak –berdin Filipe II.a gaztearena– birrukituak, polikituak dira, habsburgoen kokots eroria disimulatuz. (Velazquez krudelagoa izanen da babo-aurpegi koroatuekin). Kaiserraren irudi idealizatuak, monumentalak. Boterearen bikaintasun gizagaindikoaren, kaiser zaldun eta santu, lurbiraren nagusi mundutik aldaratu mistiko-heroikoaren ispilu eta aldare. Kaiserra ez baita egun-oon arteko nornahi. Alexandro berria da. Augusto da, Trajano bihotz-zabala; Marko Aurelio, kaiser filosofoa. Herkules berri bat. (Ez al du Hans Holbeinek Lutero bera “Herkules Germaniarra” bezala pintatu, mazo handi batekin armatua?). Leone Leoniren eskulturetan kaiserraren espresioa ez da oraindarra, beren-beregi erromatarra da beti, hala ohartarazten digu katalogoan G. Kugler-en iruzkinak. “Karlos V.a eta Furor” brontzean, kaiserraren Mühlbergeko garaipenak esanahi mitologiko bat hartzen du: ez bakarrik printze protestanteak, baizik gerra bera garaitu du. Orainez gero, garaile meditakor, Bakearen Printzea izanen da. Virgilioren ikuskari bat irudikatzen du zizelak: Jupiterren profezia Venusi, honen seme Eneas eta ondorengoen asturu gaitzaren iragarpe-

naz, azkenean haien zerrendako azkenak, Zesar Augustok, behin betiko bakea ekarriko duen arte. Zesar hori Karlos V.a da orain: kaiser germaniarra Erromako jainkoekin, mitoekin, heroiekin bat egina ageri da horrela; Augustoren bakea eta boterea bereak dira. Bai, Bakearen Printzeak dira: Zesar Augusto, Karlos V.a, Espartero, Franco..., garailearen mitologia azkengabea. Hots, Boterearen mito modernoak: bakea berdin garaipena eta dominazioa.

Arteak –garaiko literaturak bezala– genealogia mitikoen funtzio bera betetzen du: Boterea jainkotzea. Mitologia grekoa eta erromatarra zer dira, bada, Boterearen sare genealogiko konplexu batzuk besterik? Heroi homerikoak eta familia noble greko-erromatarrak “jainkokumeak” izaten dira; hiri harroek (Troia, Atenas, Erroma) fundazio jainkozkoa izan ohi dute. Baina ez da genealogia kontu soila. Humanisten “filosofia” berri oso bat da, ohore eta handikeriazkoa (zientzia berri konkistatzailearen espiritu berarekin).

Genealogia guk deiturarekin lotzen dugu eta deitura bakoi-tzak bere armarrria daukala pentsatu ohi dugu; denok dugula geure armarrria, jatorri urrunarekin batzen gaituena, geure nobletasun inmemorialarekin alegia. Sinesgaitza da zenbat bizirauten duen gure barruan arima arkaikoak! Deiturak ez darama inor Noeganaino. Erromatarrak-eta utzirik, Europan deituraren aurretik etxearen edo familiaren armarrria dago, eta armarrriaren aurretik ezkutua, gudariaren babeskia. Ezkutua, XII. mendean hasi da ohitura, defentsako tresna izatetik, jaun edo etxe nobleren batzuen ezaugarri bihurtzekoa, hartarako behar zituen kolore eta apainduriez egokiturik. XIV. mendean, gerrarako baliorik gabe, sinbolo soila da jada, aitoren semeena ez ezik, burges aberatsen batzuen ere; baina jauntxo eliztar, abadia, diozesi eta hiriren batzuk ere arma-

rriak hartzen hasi dira ikurtzat. Nahi eta ahal zuen edozeinek deklaratzeko zuten bere burua noble, armarri eta deitura dotoreenak hautatuz. Hain zuzen XIV.-XV. mendeetan ezarri da, ugaritzen ari baitzen, armarrion arauketa eta kontrol publikoa, hau da, ezkutua (noblezia) kaiserrak edo erregeak “emateko” pribilegioa. Hortik aurrera, humanistekin kultura ofiziala letratua izaten abiatu denean (letraren nobletasuna), genealogiak hasi dira inportanteak izaten “historiaren” agiri gisa, ia beti pseudohistorikoa noski, ezkutuen lekua paperak hartuz: Annio, Bouchet..., Zellius – azken honek *Genealogia insignium imperatorum regum et principum* alimale bat paratu du, 1563an. Hain zuzen, 1520/30 aldekoa da Karlos V.a-ren Bruselako genealogia baliotsu hori, zur gaineko pergami-noan, Erakusketan ikusgai zegoena, 64 armarri familiar dotorek apaindua!... Moda berriari jarraiki, txintxo asko, 1596an *Ilustraciones genealógicas de los Cathólicos Reyes de las Españas* idatzi du gure Garibayk, nagusiaren zerbitzari fina beti bera, haren ondotik usaimen fineko beste euskaldun batzuk bezala.

Denok berdina eta batzuk berdinagoak omen garen bezala, denok gara Noeren haurrak, baina batzuk gehiago, handikeriaren ustez. Dena den, genealogia “sokratuak” paraje guztietan aurkitzen dira. Txinako enperadoreek etorki zerutarra zuten; etorki jainkozkoa du Mikadoak Japonian; herri musulmanetan Mahomagandiko etorkia erabakigarria da erlijioso nahiz politikoki. Ingalaterrako erregetto saxoiek, Goi Erdi Aroan, Wotan jainkoaren askazikoak izan behar zuten. Horrela, Elisabeth II.a Wotan jainkoagandik zetorren genealogia nordiko tradizionalaren arabera. Baina, genealogia kristau “modernoren” arauetz, bere kronistek (haren arkan jaio eiz zen haur, ez dakit zein izen bitxiko baten lerrotik) Noegandik etorrarazi dute. Hala nola Karlos V.a eta Europa kristauko

supernoble guztiak – eta gure Tubal: modernia zer den azken momentura arte tutik ulertu ez duten inuxente listo batzuk gorabehera, beste euskotar bat ez baita sortu eguzki noblearen azpian, arrazional, moderno eta unibertsalagorik, Tubal mitiko hori baino!

MITOLOGIA NAZIONAL(IST)AREN MITOA

Martin Ugaldek bere Euskal Herriko Historian kontatzen du, Espainian egindako aurreneko greba, Escoriala erakitzen ziharduten hargin euskaldunek egin zutela. Filipe II.a guztiz haserretu ei zen. “El rey quiso acabar con el paro poniendo en práctica los medios a que estaba acostumbrado, los violentos. Pero se encontró con que la mayor parte de los obreros especializados de El Escorial eran vizcaínos, eran nobles, y no podían ser detenidos sin ser oídos, ni podían ser vapuleados como los siervos”. Seguru nago, pasadizo hau nik lehen aldiz Ugalderen Historian irakurri izan banu, ez nuela sinetsi izango. Hainbateraino gaude mesfidatuta, edo zuhur/uzkur bilakatuta, euskaldunon balentria eta harrokeria kontu guztiekin. Baina irakurria neukan aspaldi liburu zahar frantses batean –autorea ez naiz gogoratzen, Escorialari buruzkoa–, Maiteren aitaren bibliotekan. Zehatz-mehatz zer izan ote den egia, beti zalantzaren bat geratzen zaizu hala ere.

Dena dela, istorioak gauza bat islatzen du: euskaldunen “hidalgiak”, fenomeno sozial bezala, Inperioaren barruan adierazten zuen originaltasuna, bitxitasuna; Urrezko Aro es-

painolak aski islatu izan duena literaturan, Cervantesek, etc. Originalak ez du noski eskusiboa esan nahi. Santander eta Biarnon, Bigorran, edo Suitzan eta Finlandian, antzeko gauzak aise topatzen dira. Horrek ez dio bere zolia batere kentzen. Euskaldunak denak nobleak zirela asmatu zuena tipo listo bat zen: truku txiki horrekin noblezia abolitu zuen; denak nobleak diren tokian inor ez baita noblea.

Herri guztiek dute beren nobletasuna eta harrotasuna, beren “mitoa” (adiera negatibo batere gabe ulertuta). Euskaldunok beti independenteak izan gara. Beharbada beti bertsolariak, Harri Aroan hasita. Amaren seme guztiak hemen beti berdinak izan dira eta beti demokratik. Munduko herririk zaharrena gara, Tubalen haurrak (“un nieto de Noé le dio nobleza”), etab. Baina Israel ez zen gutxiago, bere Salomon eta Sanson eta herri hautetsiaren historia santu guztiarekin, beti Jainkoaren eskutik. Atenasko inguruak jainkoen bizileku pribilegiatuak ziren eta hango familia aristokratik jainkoen askazia. Atikan zutitu da bi oinen gainean ibiltzen asmatu duen lehen gizonea. Atikan erne da zibilizazioa. Atikan hozitu edo asmatu dira bizitzeko garrantzizko landareak nahiz arteak: oliboa, garia, pikua; sua bera. Berdin, Erromako Inperioa Jainkoen obra da, Hiri eternala zeruak hastapenetik predestinatua munduaren gainean agintzeko. Are, Probidentziaren tresna, munduan baldintzak ezartzeko, noizbait Jainkoa bera gizon egin eta lurrera etor zedin (San Agustin)... Errenazimentua pitin bat ezagutzen duenak, kultur turismo apur bat Europan egin duenak (ez hotel eta jatetxeetakoak bakarrik), mila aldiz ikusi dizu hori dena eta horren islak Italian, Frantzia, Ingalaterran. Edozein palazio edo museotan dago presente. Oso ezaguna da literatura guztietan. Hamaika modutan pintatua dago, ikertua, dibulgatua. M. Renaulten

Greziako nobeletan kausitzen da. *King Lear*-en edozein ediziotako hitzaurre edo Shakespeareren zeinahi biografiatan irakurtzen duzu. Literatura ingeles edo frantsesaren edozein eskuliburutxo xumetan.

Ez dut esaten herri bakoitzak bere mitoak dauzkala eta denak antzekoak direla. Esaten dudana da Europa guztiak funtsean mito bat-bera daukala, eta berdina dela guztiontzat: handikeriaren, dominazioaren mitoa. Herri guztiek modu bertsuan esplikatzen dituzte beren hastapenak, egitandi eta heroi antzekoak dituzte... Mito horrek oraindik inorentzat interesik izatekotan, oroz lehen mendebalean nagusi dugun eredu historikoaren edo filosofia sozialaren (“balioen”!!) nabarmentzio eta kritikarako izan lezake, nik uste.

Horiek nazionalisten kontu zaharrak zirela esaten ziguten lehen apostolikoki. Eta horien kritika historikoa nahiz politikoa aspaldian ezabertzale (Arozena, Mañaricúa, C. Baroja), antiabertzale (Unamuno, Otazu), nahiz abertzale aranista (K. Mitxelena) zein antiaranistek (Mirande, Txillardegui, Rikardo Arregi, Beltza) nahikoa egina zuten arren, fantasmatoxko batzuek egundoko lanak hartu dituzte berriro mamu horiek desegiten eta beren buruak ausartak uste izaten. Nazionalista euskotarren ipuinak omen ziren horiek. Gero, alemanenak ere bai. (Alemanak, Herder eta konpainiarekin, nazionalistak baitira, Frantzia ez bezala). Baina, azkenean, nazionalistek erasotzeko grinak berak gaian gehiago eta sakonago ikastera bulkatuta, mito horiek ez euskaldunak eta ez alemanak, Europa osoan eskuarrak eta arruntisimoak direla deskubritzen da, European edozeinek bazekiena orain ehun urte! Ebidentzia xinplea. Izan ere, kontuok ez dira deus erromantikoak, monarkia modernoak eta Estatu territorialak bezain klasikoak dira. Alegia, “mitologia nazionalista”, zientzia modernoa be-

zain modernoa da. Hondopean dagoena, gure pentsamendu heleniko-judua bera da. Eta Eliza santu bat, batez ere, batasunaren bere kontzeptu santuaz: kontzeptu eta espiritu horrekin egin baita kultura eta Estatu berrion batasunaren historia. Kultura horren eta pentsamendu horren espresioak dira Paris eta Madril, Cervantes eta Racine; edo berdin Camões eta Shakespeare, Newtonen zientzia, Hizkuntzaren Errege Akademiak, Tiziano eta Velazquezen potretak, eta mitologia nazionalista ere bai, nahi baduzu. Hots, modernia oro har.

Freudek “mitologia” nazionalista honen azalpen bat ematen digu bere *Artearen psikoanalisian*. Herri batek, txikia eta pobrea den artean, ez du historian pentsatzen. Lurra lantzen eta inguruko etsaietatik defendatzen ahalegintzen da (“historia gabeko aro”). Gero, indartzean, boteretxea lortu eta autokontzientzia puntu bat irabaztean, bere jatorria ezagutu nahia sentitzen du. Baina jatorri hau, autokontzientziaren interesen arabera interesatzen da. Eta horrela eskuratzen den historia “gehiago da, erremedio gabe, oraingo iritzi eta gurien espresioa, iraganaren imajina baino”. Faltsifikazioak ote dira, orduan, mito hauek? Ez: legendazko materialen azpian esperientzia historikoaren egia dago, dio Freudek. Bakarrik, irakurtzen eta entenditzen jakin behar. Salbazioa sasiilustrazio berandutar batean –beti berandu gu!– bilatu ordez, mitoaren kontzeptu positiboago bat lortzen pixka bat gehiago ahalegindu izan bagina, Freuden edo Valéry ez bereziki alemanaren *Variété II* amaierako “Sur les mythes” gutuntxoaren zentzuan adibidez, istilu gutxiago izango genuen, beharba da. Hala, gurea arrazoimen apalagoa izango zen (hots, gaurkoagoa, irekiagoa), ez bere burua oraintxe deskubritu berria duen aztore intolerante hau; eta ez zukeen arazorik izango, imajinazioari bere kreaizio “mitologikoetan” espazioa libre

uzteko. Sentimendua baita, ez arrazoimena –sentimendu erremina–, “mitoa” toleratzen ez duena. Komunitatea imajinak biltzen du, ez arrazoiketak, zioen G. Durand-ek.

Mitota sendotzeko faltsifikazioak beste zerbait dira (apenas dira, ordea, nazionalistak arte horretan iaioenak), eta, Konstantinoren donazioa-eta ez aipatzeko beste alor batzuetan, literaturan ugari egon dira holakoak Errenazimentuaz gero, Portugaldik (“*Reliquias da poesia portuguesa*”) Txekiara (V. Hanka), Euskal Herritik (“*Leloren kanta*”, “*Altabizkar*”) Alemaniara (“*Uralindachronik*”) eta Ingalaterrara (MacPherson, Th. Chatterton). Efikaza mitoa da (faltsifikazioraino!), ez faltsifikazioa bera. Eta ez literaturan bakarrik. François de Rosières-ek, Lorenako noble guztiak Karlomagnoren eta merobingiarren jatorrikoak egiten zituzten dokumentuak asmatu ditu. Bourbon edo borboitarren genealogia apaintzeko dokumentu faltsuak paratu ditu André de Saint-Nicolas prioreak... Ezer berririk ez, ordea, mendebaleko eguzki zaharren azpian. Jada Antzinatean Akusilaos-ek eskrupulurik gabe faltsifikatu ditu genealogiak. Klistenes-en erreformak, leinu historiko handiak baztertuz, gizarte atenastar osoa hamar *phylum* edo tribu artifizialki asmatutan eratu duenean, haietako bakoitzari arbaso mitikoak “aurkitu” zaizkio (eta monumentuak eraiki Agoran!). Homero edo Virgilioren hainbat testu faltsu, izkribu orfiko eta pitagoriko, Numaren liburu, Falarisen gutun, are Seneka eta San Pauloren arteko esku-tizketa, etab., heldu zaigu Antzinatean. Dirudienez, Iliada ahozko tradiziotik idatzira bildu denean bertan, Pisistratok bertso bat kontrabandoan gehitu du testuan (557.aren segidan), Salamis betidanik Atenas izan zela frogatzeko. Ios-en Homeroren hilobia erakusten zizuten. Plateako zelaian tumulu faltsuak eraiki zirela, Herodotok kontatzen du (IX,

85). Une egokian, mirakulu batez, orain Ama Birjina agertzen bada, Orestesen hezurak deskubritzen ziren Espartan, Teseorenak Atenasen, etc. Akilesen ezpata hemen, jainkoen “sorlekuak” eta heroien erlikiak edonon. Grekoen “faltsifikatzailearen naturaz” mintzatzeraino doa Burckhardt.

Euskaldunen Aitor eta Tubalez oraindik burlatzen ari dena ignorante hutsa baino ez da Europako historian, artean, kulturean. Gure historia horixe da, mendebaleko gure kultura. Atenasko eta Jerusalemgo iturrietatik ikasiz eraiki duguna. Guztion kulturaren akatsak ez bailirateke talde baten edo joera baten akats partikulartzat jo behar, etsaia kondenatzearen deabruzko teoria unibertsal deabruak muntatuz. Alegia, kritikatzan dugun faltsifikazioen historian, beste faltsifikazio bat gehituz.

(Hau dena euskal mitoen kritikoentzat ere azkenean ezaguna bilakatu da nonbait. Hala ere, ziur egon, betiko topiko eta aurreiritzi dogmatikoak ez dira ezertan aldatuko: nazionalismoak mitikoa, irrazionala..., izaten jarraituko du beti, berdin-berdin. Izan ere, zein irrazionalagoa, bere prejudizio propio irrazionalen eszenarista baino?).

HISTORIAKO ISTORIO ETA KOMERIAK

Noiz hasten da “Frantziako historia” edo “Espainiako iragana”? Kontua da, gaur egun hor badaude, punturen batean hasi zirela, gero hastapen puntu horrek Espainia edo Frantziaren eternotasuna frogatzeko balio izaten badu ere askotan. G. Mairet-ek “Errenazimentuko ideologia” deitzen

dio horri. Adibidez, modernitatea bera guk punturen batean hasten dugu: Errenazimentuan hain zuzen.

Hasiera bat? Historian ez dago hasierarik, esango duzu. Historia denbora da. Denbora ez da hasten.

Horixe da Errenazimentuaren mitoa: ez dago, baina ipini egiten dugu. Natura kreazio bezala ulertzen duen kulturak, egun batean historia ere kreazio –fabrikazio– bezala ulertu eta fabrikatu dizu: gizon-emakumearen obra orain. *Interpretazioa* bera kreazioa da (munduaren aldakuntza errotiko bat, Marxek uste zuenaren aurka). Antzinateak ez du inoiz gogoetatu zer den Antzinatea, edo Erdi Aroak zer den Erdi Aroa; baina Errenazimentuak oso kontzientzia bizia du bera “Birjaiotzea” dela – eta kontzientzia horrek bihurtu du iragana, zati bat Antzinate eta klasiko, eta handik Errenazimentura arteko guztia Erdiko Aro hutsa, ezerezaren aroa.

Kontaera biblikoan naturaren hasiera eta historiaren hasiera bat dira eta batera garatzen dira (gizakia naturan dago eta historian dago, eta biak Jainkoaren eskuan). Orain –naturatik nahiz Jainkoagandik bereiziz– gizakiaren historia guztiz beste zerbait bilakatu da. Hau gizakiak berak egiten du, muntatu eta desmuntatu. Denborari gagozkiola, Errenazimentuak “hastapena” deklaratu du bere aldia, denboraren joairaren erdian; eta “jarraipena”, ez bere aurreko garaiarena (Erdi Aroa), baizik antzinatearena zuzen-zuzenean, denboraren gainetik zilipurdi eginez. Beraz, gauza bat da jarraipena ideian edo zentzuan, eta beste bat jarraipena denboran. Zentzuan, orainak –iraganaren eta denboraren nagusi– bere gogara asmatzen ditu hastapenak eta jarraipenak, denborak eta ez-denborak (“iraultzak”). Historia, zentzuaren eraikuntza bat bilakatu da. Iragana orainaren eraikuntza bat, hortaz.

Artean ur asko pasa da ibaian eta, guk badakigu zenbateraino Errenazimentuko hasiera Erdi Aroaren jarraipen isil lurpetarra den barnagoan. Iraganaz eta jarraipenaz jabetzeko modu bat da Klodobeok bere burua erromatarra deklaratzeko, frankoek beren jatorria Troian asmatzea (erromatarrek bezalaxe), edo Karlomagno Erroman kaiser koroaraztea bere burua. Frankoen koroa Kapetoek hartu dutenean, usurpatzaileak baino ez dira eta iragan handirik gabeko familia: errege kontsakrazioari eskerrak, ordea, Salomon eta Daviden ondorengo bihurtu dira. (Eta Jesus eta Mariaren leinukoak izango dira Frantziako erregeak). Errenazimentuak ez du egin berririk, aspaldiko praktika zaharra, eskema bibliko jada sekular-tuetan nolabait intelektualizaturik, postura teoriko moderno bihurtu baino. “Razionalizatu” egin duela esango dute Max Weberren maitaleek. (“Historia, zetzaz jantzirik ere, mito gertatzen da”, gehituko dugu guk). Erregeek politikoki egiten zutena, historiaren eta Aroen printzipio filosofiko bilakatu da orain. Filosofia horrek oraina “jatorriarekin” loturik asmatu du: lehena arrazoa, oraina emaitza arrazionala. Historiak logika (lotura) bat du. Lotura ez dago Jainkoak ideian emana –historia sakratuan zegoen bezala–, giza ekintzan baizik: antzinakoak, gaur, gu gara; eta gu gara (italianoak, espainolak, frantsesak) antzinako haiek eginaren jarraipena. Historiak gudan jarraitzen du: baina historia geuk hautatu batek (geuk hautatzen ditugu arbasoak!).

Iraganaren jabetzak, gero, oraingo jabetasunak ziurtatzeko balio du. Karlos V.a Noeren ondorengoa denez, haren kronistek, jada Noez gero Ipar Afrika, berdin Amerika, eskubide osoarekin Espainiako erregeari dagozkiola frogatuko dute. Kaiserrak berak gutun batean Gonzalo Fernández de Oviedo, Indietako kronistari, honen *Historia General y Natural de las*

Indiasen kariaz (1535), bere atsegin handia aitortu dio “due-
la jada hiru mila eta laurogeita hamaika urte lurralde haiek
Espainiako errege-ondarea direlako, eta ez da harritzekoa
hortaz, hainbeste urteren buruan, berriro bere jabeari itzuli
badizkio”.

Edo alderantziz, orainak iragana justifikatzen dizu. Eskola-
ko testu bat hartzen baduzu, Frantziako historia da Frantzia
nola osatu eta zentralizatu den. Prehistoria eta antzinatea-
ren nahaspilatik hasi eta, tartetxo ez frantses baten ondoren,
erromatarra, gero mila krimen eta gerra artean, nukleo txiki
batetik (Reims/Paris) ordena eta batasuna zabalduz doa geo-
grafian, hedapen epiko loriatsua. Baina gaur Frantzia ez da
monarkia bat! Beraz, aldi berean, Frantziako historia garapen
epiko loriatsu bat duzu halaber, basakeria beltzenez hasi eta,
erregeak gillotinatuz, matxinadaz, iraultzaz, gerra zibilez,
azkenean demokraziaren eguzkitara eta libertatearen argira
iristeko. Bi historiek (batasuna eta demokrazia: egungo auto-
kontzientzia nazional frantsesa) historia epiko handi bakarra
osatzen dute: “la marche vers la Nation Française”. Ez da
erraz ulertzen, errege edo jeneral askok nola kolaboratu duen
askatasunean, esate baterako askatasunaren aldekoak sarras-
kituz edo Frantzia horretakoxe hainbat hiri eta eskualde li-
bre konkistatuz eta zanpatuz. Baina historia bere “helburua”
arrazionalki bilatzen duen prozesu logikoa deklaratu denez
gero, eta helburu hori orainaldi hauxe denez, hona dakarten
errege, konkista, gerra on zein gaizto denek paper positibo
bat dute azken finean. Hala, Estatu moderno guztiak Errena-
zimentuko mitoan bizi dira: “Beren orainaren legitimotasuna
agertzen dien memoria baten beharra dute gure gizarteek”
(G. Mairé). Memoria hori fabrikatu egiten da.

Kultura (ofiziala batik bat), memoriaren fabrikazioa da hein handi batean. Hortik historialarien berebiziko garrantzia produkzio ideologiko modernoan. Hortik historialarien mila komeriak ere. Artistak eta intelektualak izaten dira beste fabrikante nagusi batzuk, eta maiz aurkitzen dira kontraesantant harrapaturik. Errenazimentuan bertan, “memoria” errepublikanoa izan daiteke (Florentzian) edo inperiala (Madri- len, Parisen). Erdi Aro ideologikoki unibertsalistatik irteeran, antzinatearen eredu –beraz, diskurtso– erabat unibertsalistaz eta nonahi berdinez, partikularismorik nazionalistenak garatu dira. Klasizismoa monarkista esklaboa izan daiteke, eta iraultzailea gero. Burges liberala Londresen, nazionalista autoritari- oia Berlinen. Absolutismoaren aurkako erreakzio bezala hasi, eta haren jarraipen bihurtu. Esparta iraultzaile erradika- len mitoa da behin (Robespierre, Saint-Just), kontrairaultzaile- na hurrena (J. de Maistre). Bat-batean nazioa, ezkertiarren aldarria, eskuindarrena bihurtzen da (Dreyfus afera). Memoriaren fabrikazioa eta intelektualaren identifikazio asmo per- tsonalak nahasten direnean antzezten dira komeria politenak. Orduan, demokrazia absolutu politikoa da, baina Konstitu- zio badaezpadako bat onartzen duena da demokrata bakarra. Abertzalea ezin da demokrata izan. Bitxiki, Renan eskuindar europutz, arrazista, antisemita, historian biolentzia “emanko- rra” goresteke eskrupulurik inoiz izan ez duena, saldu nahi izaten digute nazio arazoan maisutzat. Edo Unamuno beti errebeldea burges liberal mantso bat bihurtzen digute, tole- rantziaren maisua; eta ia euskal abertzale primitibo irraziona- la geroxeago, komeni bada, funtsean denak bost axola baitio, gerra egitea da axola dion bakarra. Horrela egiten da “iraga- na”. Eta iraganaz zein nola jabetu, hor dago gerra.

Ez ote da beti horrelatsu izan?

Batez ere modernoa historia “justifikatzeko” industria hori da. Grekoentzat historia betiereko ziklo errepikakorren gurrupila zen, urtaroena bezala. Zentzu estriktoan, Grezian konzientzia historikorik ez dago. Urtaro bakoitzean iazko bizitza-eritmo bera errepikatzen den eran, halaberrez errepikatzen da historian zer gertatu ere –tiraniatik gobernu onera, gobernu onetik tiraniara, mugimendu handiak–; historia bera joan, ez doa inora. Trama eta helmuga bat, norabide bat, judu-kristauentzat bakarrik du historiak (Yahvek idatziriko gidoiaren arabera), kreaziotik Azken Judiziora doan lerroa. Historiaren filosofia moderno sekulartuan –agian hobeto: teologizatuan– Estatu subiranoaren (Hegel) edo gizarte aske klase gabekoaren (Marx) helburura ei doan lerroa.

Egia da: grekoak gu baino etsiagoak dira, egiaiagoak. Ordea, paradisurik agian ez du izango haien historiak (beraz, justifikazio faltsu judu-kristaurik ere ez helburu sakratu baten izenean), baina, gutxienez Platonez gero, idealak bai. Mitoak. Duela bederatzi mila urte –dio Atlantidaren mitoak–, Atenas platondar, hots, barnealdetar, hoplita, kasik espartar bat, Platonen Atenas ideala, aurrez aurre aurkitu zen inperio itsastar erraldoi batekin (Platonen egunetako Atenas bera). Gerra ikaragarri batean Atenas idealak abarrakitu egiten du Anti-Atenas ideala. Hau da, itzulita: ez bedi Atenas Atlantida bat bihurtu (itsasoko inperio bat), bere hondamena izango da! Atlantidaren mitoak, Platonen “Kasandraren deiadar” alferrikakoa, ez da kontinente galdu baten ipuina, baizik ideal galdu baten parabola. Atenasek bere hastapenetara itzuli behar du! Betikoa, beraz...

Grezia aro klasikotzat daukagu eta klasikoa erromantikoari kontrajartzen diogu. Erromantikoa, orainaldia iragan poetizatu eta idealizatu baten argitan bizi duena baldin bada, he-

rririk erromantikoena munduan, zioen J. Burckhardt-ek, grekoa da, bere iraganaren mitologia guztiarekin (“ganz kolosale Romantik”). Klasizismo guztiak lirateke erromantikoak. Erromantizismoa deituak, aldiz, bere klasizismoa dizu – eta susmoa dut, Orixek eta, Estefaniaren ikasleek (Zaitegi, Andima, etab.) asko zor diotela. Erromantizismoak badu bere legenda heroiko helenofiloa ere: Greziaren askatasunaren alde bizia eman duen Lord Byron. Bakarrik, egia da Lord Byron Missolonghin hil zela (1824); baina ohean, ez barrikadetan; zainetako odola, bertute heroikoen baino bizio humanoen ondorioz gehiago, petrikilo batek gaizki isurarazita (zer pro-saikoa!). Hala ere, egiazko egia hobeto adierazten du, datu “objektibo” horiek baino, legenda erromantikoak. Lord Byron batailan hil da! Gaurko grekoek berek hala ulertu dute, Lord Byron atzerritarri Independentziako Heroi Nazionalen oroitarria jaso diotenean Missolonghin.

Iragana beti mitoa da.

MITO ZAHARRETATIK UTOPIA BERRIETARA

Aiorabide goresten zuen Gabriel Arestik, matxinoa, Bilbon urkatu zutena. Eta gaitzetsi egiten zuen *Foru Berria* (1526). “Orduan kendu zizkiguten harmak. Orduan eman zizkiguten Fueroak”. Errege arrotz baten menpean eta aristokrazia gartzelaniartu baten esku jartzen zuen Bizkaia, Gabrielen esanean, lege berriak (“Alemaniako enperadoreak emana”). Paradoxa ote da? Egiaz, Foru Zaharrak (1452) deusik ez zioen bizkaitarren aitoren seme edo nobletasunaz.

Foru Berria izan da, hain zuzen, bizkaitarrak oro nolabait aristokrata aitortu dituen, hidalgo edo kaparetasun eskuarraren deklarazioaz! Arestik berak ez baitzeukan saltzeko titulu noble hori, “aitaren etxea”. Eta Gernikako Batzarrak Bizkaia-
ren betiko independentziaren eta nobletasunaren “mitoa”, tribunaletan eta erregearen aurrean, zituen eta ez zituen aditu guztiekin defendatuko du Valladolideko Chancilleriako fiskalaren aurka, Filipe II. agandik onespren espresua lortu arte. Euskaldunok nobleak gara, betidanik libreak, sekula inork menperatu gabekoak; Foruak geure-geure legeak dira (Noek berak emanak apika, eta agian bertsoetan gainera, Iburgue-
nek pentsatzen zuenez), beti fededun garbiak izan gara, ez heresiak eta ez odol zikin judu ala mairuak inoiz kutsatuak... Mitoak? Faltsifikazioak?

Nolanahi ere, denbora askotxo eraman dugu, iraganak egiten gintuela. Normala zen. Halatsu zen mundu guztian, eta halatsu izaten da beti hein batean. Iraganarekin egiten dugu geure burua. Horretarako, lehenengo, iragana bera egiten dugu. Ez lehenak ez bakarrak izan gara estrategia horretan: inguruko herrietatik ikasi besterik ez genuen egin, egia esan. Indibil eta Mandonio espainolak omen dira, eta Trajano ere bai. Abd ar Rahman edo Boabdil ez [Karlos V.a bai], baina hala ere Granada eta Kordoba iragan espainolaren altxorrak dira. Hengist eta Horsa, Penda gerraria, Arturo erregea bera, ingeles peto-petoak dira. Galia bretoia suntsitu zuen eta are suntsitzen ari den Frantziak, Asterix eta Obelix arbasotzat ospatzen ditu. Egunotan Maison de la Francek Madrildik bidali didan gida turistiko-kultural “ez-konbentzional” batek, prehistoriara bidaia bat eskaintzeaz bat, Les Eyzies-ko leizean Périgord-en “nuestro antepasado de mayor edad, esto es, el abuelo de apellido francés” idoro zela jakinarazten dit. Ata-

puercan, hedabideei sinestekotan, “lehen espainola” agertu da noski.

Zertan eskandalizatu? Greko-judu-kristautxoak gara denok. Babiloniako desterrutik itzuli zenean, bere burua beregin behar izan zuen Israelek, Esdras eta Nehemiasen buruzagitzapean: Jerusalemgo harresiak jaso zituen eta historia nazionalaren ahozko tradizioak idatziz bildu. Hau da, hiria eta kontzientzia berreraiki zituen. (Herri bat bere murrak eta bere memoria da). Mendeetako ilunpearen ondoren, Grezia berria, Maraton eta Plateako pertsiarren garaile haidorra, bere identitatea zoritzen hasi denean, nolanhiko jauziak denbora nahiz lekuen gainetik sorgintsuki egin ditu, orainaldia eta prehistoria, Iolkos-ko kultura neolitikoa (Jason eta argonauten mitoa), aro minoiko eta mizenastarrak (Teseo), immigrazioak, hedakunde helenikoa itsaso eta irletan (Odisseo), ehunka urte lehenagoko gerrak eta hondakinak, Kreta, Troia eta Atenas garaikidea, dena kontakizun jarraitu batean biltzeko, mila modutako saga eta mitoetan mundu ezagun guztia presentearekin korapilatuz. Horrela Greziak, historia faltsifikatuz, historia bihurtu du lurralde haietako iragan ilun guztia. Eta, historia bihurtuz, Grezia bihurtu du.

Hots, bere historia – historia bizi eta erreala. Izan ere, oraingo interesekin asmatzen da iragana; eta iraganak –imaginatuak– egin dago gero geroa. Greziak egin du mitoa, eta mitoak Grezia egin du. Euskal Herriak mitoa egiten du eta mitoak Euskal Herria. Horrela, bada, historiaren faltsifikazioak kontsideratzen direnak, kasik historiaren iraultzak kontsideratu beharko lirarteke agian hobeto. XIX. mendearen buruan Evans-ek Knossos-ko freskoak ezagutzera eman zituenean, artistei egin zien zirrarak Art nouveau mugimendua sorrarazi zuen European. Gero 1910ean Knossos-ko freskoak

zaharberritu behar izan zirenean, kolore-berriztatzeak Art nouveauk European garatu moduen eran egin ziren, arkeologikoki ez leialegi beharbada. (Historia eta historiaren interpretazioa gurpil baten jirabira dira). Faltsifikazio historikorik sonatuenetako bat literaturan Macpherson-ena dateke (1760, 1765), berak Eskozian jasotako poesia zeltiko antigoalekoa omen zenarekin. Baina Macphersonen faltsifikazioek egundoko eragina izan dute (Goethe, Hölderlin), joera berri bat harraraziz poesiari Europa osoan. Faltsifikazio hutsa da Th. Chatterton-ek “aurkituriko” Erdi Aroko poesia ere; baina Keats-ek literatura ingeles guztiko “idazle garbiena” deritzo, hizkera poetiko berri baten maisua (mitoa errealitatea baino errealago!), eta –haren musika Miltonenari hobetsiz– jainurik handienetakotzat aipatzen du Shakespeareren alboan. Innsbruckeko Errege Kaperan Maximiliano I.a bere genealogia “mitologiko” guztiak inguratua dago hobiraturik: ez dira falta Julio Zesar, Arturo erregea bera, Peter Vischer-en, Dureroren eta Inperioko artista hoberenen irudikapen miragarrietan aurkeztuak. Eta irakurtzen dut historiako liburu batean oraintxe, Inperioren kontzeptua eta Kaiserraren ideia XV.-XVI. mendeen arteko biragunean zein zen ikasteko trataturik aproposena, hilobiko “mitologia” horren behaketa zehatza genukeela.

Errealitatea, mitoa, utopia, historiaren elementuak dira nahas-mahas, batzuetan lagunak, batzuetan etsaiak, beti presente. Bizkaitarren “mitoa”, Valladolideko tribunaletan juridikoki balio izateko bezain erreala zen XVI. eta XVII. mendeetan; politikoki aski erreala zen XVIII. mendean, jada literarioa gehiago XIX.ean; eta nolabait erreala da oraindik ere, beste modu batera: esate baterako, mito horri erasotzen dihardutenen pozoi propagandistikoan, eta eraso horrek, ba-

rre eragin ordez, mindu egiten gaituenongan. Israel ez da bere mitoan baino oinarritzen. (Inork zaila badu identitate nazionala mitoaz kanpo definitzea, juduak dira). Ez ote da mito guztiz bizigarri eta emankorra, juduentzat ez ezik, kultura mendebaldar guztiarentzat? Bere sakabanaketa mediterranean guztian, hizkuntzak eta mitoak bateratu dute nazio heleniko klasikoa.

“Odol garbia” ia edozein kargu eta titulutarako ezinbestekoa zenean Eliza nahiz Estatuko zerbitzuetan –idazkaria izateko bezala kalonjea izateko, edo estudiante soila izateko Salamancan–, behialako mitoa egokia izan zen euskaldunak beren espazioan sozial-politikoki eroso kokatzeko, bideak libre edukitzeko administrazioan, Elizan nahiz Armadan. Mito sozial efikaz bat. Israelen biziraupena batez ere bere mitoari zor bazaio, Euskal Herriaren kasuan ere beharbada mitoa ez da izan iraupenaren arrazoi txikiena, Aro Modernoan batik bat.

Baina herri bat bere memoria (mitoa) da eta bere utopia da – askotan jada mitoan espresatua egoten dena. Hasteko, mitoak bere garaian eduki dezakeen zentzu positiboa ez da derrigor positiboa betiko. Denborarekin inolako zentzurik gabe gera liteke: arazo larria da hori, esaterako, bere mitoa-ren funtsezkoa basamortuko biziera nomadan garatu zuen Israelentzat (eta hainbat tenka sortzen du judu ortodoxo eta liberalen artean). Oso anbigua eta problematikoa ere ager liteke: izan ere, Inperioaren balio sistema funtsean onartu egin dela kultural-moralki esan nahi du, euskal mitoan adibidez. Beraz, iraganaren esklaboak ez izatekotan, mitoak, ez eguneratu bakarrik, gaingitu egin behar du bere burua. Utopia behar du.

Iragana mitoan egin egiten den legez, egin egin behar izaten da etorkizuna. Baina gaur ezin digu esan inolako “ismo” historikok (utopia hori bera zen, mito bat!), inon ez dagoen lur hori –utopia, gure borrokak lainoan bilatzen duen irla–, zein eta zelakoa izango den. Ezin gara, pentsamenduan ere, etorkizunaren jabeak egin. Promesa iraultzaile handiak funditu dira. Itxaropen hutsa da berriro itxaropena. Inolako segurantzirik ez. Borroka hutsa da berriro borroka, filosofia unibertsal baten aldamiarik gabe. Utopia gaur ez da “*de optima rei publica*” ametsa. Orientazio bat baino ez ilunpean, jorra bat, “posiblearen modelo”, argi bat edo ideia arautzaile bat, gida izango duguna bilaketan. Alegia Kant, Marx baino gehiago, berriro. Eta aldian-aldian proiektu konkretu batean mamitzen jakin beharko da ideia hori.

Orain gure zeregina ez da monarkia espainol edo frantsean leku eroso bat edukitzea, baizik Europan. Eta Euskal Herri bezala edukitzea, ez probintziak, mundu berrian bizirauteko. Beraz, nortasun berri bat eraikitzea geroari buruz, gure egoera eta izaera sozialari –historiak jarauntsi digun nahaspila sozial, linguistiko, politiko guztiaz– soluzio original bat asmatuz, behiala noblezia unibertsalarekin egin zen moduan. Iraganaren erlikiak gordetzeko agian aski baitira egungo erakundeak, franko erlikiak berak ere. Etorkizunari aurre egiteko, erakunde eta formula sozial berriak imajinatu beharko dira araz. Nola? Gure historian, mitoari atxikiegiak, utopia ahaztu dugu askotan. Gero, utopia handian sinetsiegi beharbada, mitoari zaputz egin zion jende batek –oroit Aresti– momentu batean. Beste batzuek, aurrena mitoari, gero utopiari, denari zaputz egin diote, eta beste aberri batzuetan bilatu dute zorrea. Guri, mundutxo honen gozagai eztiak oroipena eta itxaropena direla esaten digu beti eta berriro

Goethek belarrira (“Veneziako Epigramak”). Ez dosi handietan. Mito pixka bat –libertatez–, utopia apal bat, eta munduagure aurrean zabalik.

(2011)

ESPAINOLA IZATEAZ

“Zu espainola zara ala ez?”, itauntzen dizute bat-batean zorrotz. Zure zalantza unek (oso barneratua duzu autozentsura) salatu egin zaitu: nazionalista erradikal itsu bat zara! Sanbenito horrekin ibili beharko duzu honezkero.

Ez da, ez zenekiela zer erantzun. Bat baino gehiago badauzkazu erantzunak, arauz eta galderaren zentzua zein izan. (“Are you Spanish?”, “Vos sos gallego!”). Istant batez, kasu honetan zein ote den zehazki zentzu hori galdetu diozu zeure buruari. Eta hor ekibokatu zara. Galderak ez baitzuen ezer galdetzen: fede aitortpena exijitzen zizun. Eta hori, egia da, kredo patriotiko espainol hori, edozein toki eta eretitan erretatzeko prest, zuk ez daukazu, bestela ez zenuen dudatuko. Horregatik (!) zu nazionalista tribal bat zara, etnizista, irrazionala, erreakzionario bat XIX. mendekoa, etab.

Zuk badituzu zeure ebidentziak, zuk ere. Langile herrixka euskaldun bateko haurra zara sortzez, zure hizkuntza euskara da (trakets samartua, damuz), zure lagun gehienak euskaldunak. Euskalduna zaren ala ez behintzat, dudarik ez daukazu.

Baina ez da hori. Donostian ala Tafallan edo Madrilen jaio nahiz bizi, barne-barnean zuretzat hautatua daukazun mundua, zeinekin ere identifikatzen baitzara, Euskal Herria da. Hori da kontua: nahia, euskalduna izan nahia. Ebidentziak egin egiten dira –hautu librez–, bakoitzak bereak. Kontzientzia bezala da. Eta gaur horiexek dira zure ebidentziak: Euskal Herria, euskara, Euskadi, presoak, torturatuak, euskal jende

langilea, euskal kultura. Letra odolarekin sarrarazten zuen eskolan, beste ebidentzia batzuk ikasarazi zizkizuten: espainola zarela, munduan gauza bikainagorik ez dagoela espainola izatea baino, espainiera dela mintzaira guztietan ederrena, eta “Gibraltar, Gibraltar”. Ebidentziak, ordea, puskatu ere egiten dira. Eta bizitzako ehun arrazoiren eskolan, ikasitakoak deskastan joan zara.

Hor zaude gaur. Ziur eta ebidente bakarra gauza bat da: euskalduna zara eta euskalduna izan nahi duzu. Eta nola etortzen da hori espainola izatearekin? Bada –zertarako ibili aitzakia zuri bila–, ikaragarri gaizki etortzen da. Egunero, eta aspaldi, ikaragarri gaizki. Hori da arazoa.

Izan ere, zer da espainola izate edo ez izatea? Kontzeptu guztiek bezalaxe horrek ere bere historia dizu. Eta zure familian izan duen historia, Euskal Herriko edozein familiatako bera da gutxi gorabehera: aitona bat azken karlistadan preso hartua, gero Kubara soldadu eramana Espainia defendatzera, handik pattarzaletutxoa itzuli eta birraitonak desheredatua. Aita bat mirakuluz bizirik aterea gerran. Gerraondo triste beldurrez ikaratu bat; eskolako maisu falangista, euskararen erdeinua eta euskaldunaren autogorrotoa irakasten soilik aditu iaioa; eliz horman zerrenda bat marmol zurian “Caídos por Dios y por España”, aldare alboan bandera inperiala, etxe guztiek ere leihoetan eseki beharra zeukatena ez dakit zein jaiegunetan. “Probintzia traidoreak”, errazionamendua, grebak eta kaleak militarri okupatuak. Gero, isilaldi luzea. Eta berriro, gaztaroaz geroztik, presoak, exilioak, torturak, eta beldurra. Presoak eta torturak behin eta berriro. Eta Espainia eta Franco ilunpe dena betetzen. Galdegiozu poliziak “Grita Viva España! Más fuerte, más fuerte!” orroka torturatu zue-nari, ea espainola sentitzen al duen bere burua.

Baina hori ere ez da. Alegia, ez da historia pertsonal edo familiarren kontua. Historia guztia da. Botere zentroen hedakunde eta sakonketaren historia mendebaleko geografian. Oin-atzaparrak Gaztelan sartu eta, elizak babesturik, poliki-poliki, presio eta zemaiz, intrigaz eta propaganda monastiko-koz, diplomaziaz nahiz bortxakeria gordinez, hedatuz joan den Botere armatua, Araba, Bizkaiko Jaurgoa, Gipuzkoa beregana bilduz, lotuz joan dena, azkenik Nafarroa piztitzarki konkistatu eta anexatzeko. Barka, “inkorporatzeko”. Ez da izan, ez, gaur Gorteko teologo laikoek sinetsarazi gura izaten diguten legez, razionalitatearen progreso historia bat, ezta “Espainiaren bategintzarik” ere. Espainia hori geroago inbentatuko da. Anbizio gordinen historia basa ertarotarra da, krimenez josia. Eta bategin, ez du egin beste ezer, dinastia batzuen harrapakinen andana baino (Penintsulan bezalaxe atzerri mediterraneanrean –ikus Palermon Katedrala eta Napolin Castello Nuovoko Triunfo Ate katalanak–, eta Ipar Afrikan; baina Portugal ez). Ez du batere zerikusirik razionalitatearekin edo helburu idealen teleologiaren batekin, Botere beltz eta dominazioarekin baino, eta monarkia eta konkistaren printzipio barbaroekin.

Erdi Aroa hori izan bada, monarkiaren printzipioa utzi eta, Frantzia eta Espainia modernoak Estatu-Nazio zibilizatu gisa antolatu guran hasi diren momentutik, euskaldun izatea, edo katalan ala galego izatea, eta espainol izatea, edo frantsesa, partikulariki gaizki elkarretorri dira. Liberalen inbentua da Estatu-Nazioaren kontzeptua. Paradoxalki liberal ilustratuok, buru ez oso filosofikoak eta ikasle kaskarrak Rousseurenak, Antzinako Erregimeneko gorputz politikoa erregearen buruan bakarrik uztarturikoa birpentsatzean, eredutzat Gorputz Mistiko eliztarra hartu dute, Estatu-Nazioa Eliza

Nazional bat bihurraraziz. Lehen Koroaren meneko zinen, eta munduan ibiltzeko aski zenuen galego, katalan, euskaldun izanda. Orain, baina, Estatu-Nazio modernoaren gara, eta espainola izan beharra dago; are, printzipio berria herriaren nahiarena da, eta libreki nahi izan beharra dago espainola izatea. Espainia hori bera pertsonaia bat bilakatu da loriaz jantzia –Nazio berria ezin da lehen Koroa baino gutxiago noble izan–, jada antzineneko prehistoriatik bere batasun eta aurririkin, esentziarekin. Esentzia hori ez da ezertan galegoa, ez euskalduna; espainol huts-hutsa da, esentziak izaten diren bezala. Esentzia horren hedapenaren auzi-ozarriak izango dira gertakari guztiak historian zehar, Espainia pertsonaiaren neke eta pozen hagiografia: bere imajinarioa asmatu behar baitzaio “Nazio espainol” berriari, haren nortasun augusto imajinatua duina alegia, mistikoa, ezen ez historiko, ez soziologiko eta ez politiko erreala, ezpada bai historia eta bai errealitate politikoa xede horrekintxe likitsenik bortxatzen dituen mitoaren zerbitzuan. Estatu moderno mitiko horren teologia moduan sortu da historia, zientzia gisa nahiz eskolako ikasgai gisa. Horrela asmatu dira Don Pelaio berkonkistaria, Errege Katoliko arrazista batzuk Espainiaren bategile santuak, Mostolesko alkate bat abertzale heroikoa (ez terrorista?) eta Independentzia Gerra zuntzun bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia espainol. Ez da ikusten katalan batek Don Pelaio zergatik kontsideratu beharko lukeen bere historia propioagoa Joana d’Arc baino. *Mio Cid* poema gaztelauarentzat katalanak frantsesak dira. Edo nafar batek Errege Katolikoak zergatik ez lituzkeen kanaila hutsak iritzi behar. Edo bizkaitar batek Seneka zergatik hartu beharko lukeen Epikuro baino berretarragotzat.

Haatik, ez, orain denok kultura bat eta memoria historiko bat dugu, “nazio” bat gara: Konstituzio bat, hizkuntza bat, patriotismo konstituzional bat. (“Un monarca, un Imperio, y una Espada” Antzinako Erregimendarraren lekuan, baina batez ere jarraipen zuzen-zuzenean). Eta harreman aspaldiko guztiekin ere, euskaldun, galego edo katalanentzat orain artean “aberria” ez beste edozer gauza izan den betiko Espainia/Gaztela hori, ez beti oroipen onekoa –euskaraz atsotiztegiak berak belzten zuena–, guztion aberri izatea da bat-batean obligazio, eta gurtu eta maitatu egin behar da. Izan ere, Koroaren printzipioa herriaren nahiarenaz bezala, ezpataren printzipioa zuzenbidearenaz ordeztu denez gero, eta zuzenbidea sakratua deklaratu –guztiz “razionalki”–, zer gurtu ahal den eta zer maitatu behar den ere, lege konstituzionalez erabakitzen da orain. Herengusuak ere sekula izan ez ginenok, legeak anaia bihurtu gaitu.

Espainia asmatuberri absurdo horren inposizioan Euskal Herrian, hiritarren nahiaren printzipioa zenbat nahigabe eta tirania kosta izan den, eta zuzenbidearen printzipioa zenbat ezpata eta zuzengabe, ez daukagu gomutatzen zertan luzatu. Espainia honengatik erasiatzen ote digute oldarkor “zu espainola zara ala ez” dontsu hori? XIX eta XX. mendeetako historia odolaren eta suaren historia izan da Euskal Herrian. Sei urte gerra karlistan, Bergarako bake faltsua, emigratuak milaka Ameriketara, Foruen murrizketa; berriro gerra, berriro porrota, berriro bake faltsua, Foruen abolizioa; euskal gizartearen barne urraketa sakona, diktadura militarra, errepublika apur bat eta gerra berriro, emigratuak milaka berriro, eta presoak, fusilatuak... 200 urte Estatu terrorismo, 50 urte ETA. European parerik ez duen memoria historiko tragikoa heredatu dugu etxetan; eta eskolan eta bizitza ofizial pu-

blikoan mitologia pilo bat, hura dena progresoaren, razionalitatearen, modernizazioaren, askatasunen garaipen bezala ospatzen duena – beti ere historia garaileak idazten baitu.

Asaldagarria da nolabait, Horkheimer eta Adornoren despit, moderniarene mitoak nola arrakalarik txikiena gabe dirauen Euskal Herriko progresian. Mekanikoa da modernitatea eta modernizazioa guztiz positibotzat hartzea, beste gabe. Estrategia sinple baina unibertsal horrek primeran funtzionatzen du: XIX. mende beltzak Pazko Igande baten airea hartzen dizu, Espainiaren modernizazioarena. Karlistak, foruzaleak, funtsean Foruak berak, antimodernoak ziren eta kito, ezabatu egin behar ziren. Liberalak progresistak izan dira (liberalak foruzaleak badira, ez dira interesatzen). Misterio bat zaizu, modernitatea, edo “progresoa” deitzen dena, zergatik suposatatu behar den basakeriari immuneago Harri Aroa edo Erdi Aroa baino (Auschwitz ez da XII. mendekoa). Mitoak mito, konparazio batean laburbiltzen da Euskal Herriak Espainiarekin bi mende modernoetan egin duen esperientzia: Botere modernoa barnerrian menekoekin gurutzadan berdin-berdin fanatiko aihertua, nola Botere ertarotarra “fedegabe” musulmanekin atzerrian. Gurutzada ohil bat izan da Estatu moderno espainolaren sorkuntza. Berdin erlijioso –orain erlijio laikoaz–, berdin krudel eta suntsikor, berdin dogmatikoa. Eta gurutzadak San Bernardorenak gustatzen ez bazaizkizu, gustatu egin behar ote zaizkizu liberalak? Ideien diskurtsoetako kontraktotasun fikzioaren azpian, intolerantzia izpiritu berberaren ekoizpenak dira Inkisizioa eta gurutzadak, eta Estatu-Nazioa.

Estatu-Nazioa erlijioso da errotik, sakraltasunaren erritu, bandera eta liturgia guztiekin; eta fedea eta debozioa exijitzen ditu. Ez da, espazio politiko ireki bezala, etnia tradizionalen

bizikidetzarako lekua, baizik horien ukoa –Eliza katolikoa bezalaxe–, Estatu dinastikoko etniekin lehian eta horien aurka pentsatua, bera etnia bakarra. Estatu-Nazioa gorputz mistiko etnizista da, bat eta hautsezina. Biolentziaren monopolioa legez, berak dauka etniaren monopolioa. Immigranteekin oraintxe jokatzeko bere moduan ere Estatu-Nazio moderno hori etnizista da. Estatu-Nazio horren apostoluek irri egiten dute nazionalismo periferikoen etnizismoaz. Bitartean, Estatuak berak immigranteari, nor bezala ezagutu eta paperak emateko (partzuergo zibilerako), aurretik espainola jakitea, Espainian teilapea, lan-kontratua, ordenamendu nazionalaren onarpena, “integrazioa”, galdatzen dio, h. d., nolabait partzuergo etnikoa, tribukoa izatea, haiek denak ez baitira nazioaren definizio tradizionalako hizkuntza, lurralde, historia, tradizio komuntasun klasikoen aldaki modernoak baino.

Ados, dena ez da negatiboa – historian ezer ez da izaten dena negatiboa (ezta faxismoa ere). Baina aski duzu inguruan so egitea, ikusteko garai bateko Euskal Herria zer dagoen bilakatu. Historialari eta soziologoak behingoz utzi eta, poetak esango dizu, berak nola bizi duen. Behiala Iparragirre legez, Gandiaga ere, zeruko aingeru bat izan arren, jende xumearentzat kanta xumeak ondu dituelako arrakasta handiz, Espainia frankistak Justiziaren Jauregira eraman zuen, “politika egiteaz” salaturik. Politika gora eta politika behera, epaileak zorabiatu zuen estutu nahian, haserretu zuen arte. Orduan altxatu, epailearen aurrean zutik paratu, eta sutan, bere gaztelania eskasean jaurti zion epaimahaiari: “Mire, yo soy un árbol. ¿De qué política es el árbol? Yo vivo en esta tierra, hundo mis raíces en esta tierra, la tierra me da lo suyo. De eso vivo, esa es la sustancia que me invade. Mis ramas se elevan arriba. Mi esperanza y mi futuro y mi ilusión florecen hacia arriba.

El cielo que está al par mío es mío. Y vivo de ese cielo que me da esperanza. De ese aire que da oxígeno a mis pulmones. Yo soy el árbol. Y lo que en mis poesías digo es lo que le pasa a ese árbol. Ese árbol y esos árboles, claro. Porque un árbol solo es muy raro. Un árbol vive junto a otros árboles, forma bosque. Mire: a este árbol se le va negando la tierra. Se le va negando el aire. Se le va negando el cielo. Se le va matando. Y entonces este árbol cruje. Eso es todo”. Horra, bada: euskal zuhaitzaren “karraska” hori Gandiagaren poesiatik ETAraino doa. Gernikako arbola zaharra idortu da, haren aldamenean arbola berri gaztea goititu nahita borrokan ari da.

Errealitatea horixe da. Espainia modernoaren esperimentuak Hego Euskal Herria birrindurik utzi du. Eta berdin da, euskaldunek berek beti ez omen badute zuzen jokatu. Esan ohi den moduan, gaurko Euskal Herria gizarte desintegratu bat da administratiboki, politikoki, sozialki, linguistikoki, kulturalki. Identitate apurtu bat da. (Probarik onena da, batzuek ukatu egin dezaketela, Euskal Herri edo euskal identitate bat egon dagoenik ere).

Edo, zuretzat bederen hala da. Ezen, denentzat ez, aitortu beharra dago. Euskadiko Alderdi Sozialistako buruzagi bat egunotantxe behin eta berritotzen ari da, identitatearen arazoa eta holako txorakeriarik berak ez daukala. Horiek iraganean baraturik bizi diren nazionalisten delirioak dira, bera gaurkotasunean eta errealismoan tinkaturiko gizona da. Identitateren bat berak ere ukanen du, ezta?, pentsatzen duzu. Eta arazo gabekoa baldin badu berea, ez da zaila asmatzea, zein identitate duen. Identitate horrek badakigu ez duela arazorik, harrotu beharrik ez dauka, kuestionatua ere inoiz ez da izan. Ehun urtean beti eta etengabe Espainiarekin identifikatu dena, identitatearen arazorik gabe, eta euskal identita-

tea horregatik ignoratuz, hiritar liberal irekia da noski, ez da nazionalista. Egia da, zu mintzo zaren hizkuntza, ez duela piperrik ulertzen. Bost axola zaio. Mestizajea eta plurikulturalismoa aipatu ohi du, baina zuk irakurtzen duzunaz, zuk idatzi duzunaz, zuk entzuten eta kantatzen duzunaz, zure eguneroko eguna betetzen duen guztiaz, fisik ez daki. Zure tradizioak eta ipuinak, zure ekibokazioak ere. Ez da bere arazoa. Zer zarete haren munduan zu eta zure mundua? Ez zarete deus, hori da dena. (Baina gero, debate hautesketarian, zuk eskluditzen duzula bera, aurpegiratuko dizu!). Cervantes ezagutzen du, baina Axular edo Lizardi? Gardel-edo, menturaz bai; baina Txirrita? Zuk haren mundua aski ongi ezagutzen duzu, harentzat zurea ez da existitzen. Obaba seguru asko xocolate klase bat dela usteko du. Zure identitate arazoak ez dira bere arazoa. Baina Lehendakariagaia da, eta hala, haren identitate arazorik eza zure identitate arazoaren parte bat bihurtzen da. Azkeneko berrehun urte honetako historia. Zure ama, bere larogeita hamalau urterekin, euskara besterik ez dakielako, lotsamindurik joaten da klinikara. Bera jaio zenean euskaldun huts-hutsa zen eta gaztelaniaz inork hitz egiten ez zuen eskualdean. Zuk hitz egiten duzu bospasei hizkuntza, eta horietako edozein hitz egin ahal duzu klinikan, bakarrik zeurea ez. Hori gertatzen zaizu Alemanian ere. Baina hemen ez zaude Alemanian. Teorian zeure etxean zaude. Zeure etxean atzerritartu zaituzte. Min hori, unibertso baten suntsimendu eta arbolaren karraska hori, identitate arazo sentimentala besterik ez eta errealki administrazio arazo soila baino ez zaion jaun errealistak, zinez errealista izaki, ezin du itxaron zuk bera herrikideagotzat hartzea hegazkinekoko eserleku laguna edo kasernako guardia zibila baino. Berak ez dauka eta ez du eduki nahi zure identitatea; logikoki

zuk ezin duzu bera zure identitate berekotzat eduki. Are, zuretzat, haren identitate arazo gabekoaren, zure identitate arazoen bost axolaren, haren “modernitate” primitibo haizejoaren eta zure ezezagutzaren atzean, Espainia modernoaren inposizio historia guztia dago ezkutatua, genozidio kultural luzatu bat su txikian. Baina berak zu ignora zaitzake eta ignoratzen zaitu, zuk bera ezin duzu ignoratu. Kontuak horrela, irakurle errealistari utziko diogu ipuin honen azken logikoa berak asmatzeko aukera: maitatuz ala biguinduz amaituko du gure gizonak, ignoratu ezin duenez gero, halako bere hiri-kidea? Zalantzarik ez dagoena da, kohesio soziala eta, bakea eta, bizikidetzat, horrelaxe sustatzen direla ongiena.

Berrehun urte honetan Euskal Herriko historia izan da, ez bakarrik eusko lurraldearen Botere inbaditzaile militar, instituzional administratibo, eskolarraren historia bat, eta euskal erakunde politiko eta sozial tradizionalen desagilearena, baina baita arimen eta etxeen eta harreman pertsonalen eta identitatearen inbaditzaile eta nahastailearena ere. Behin egon zen euskararen herri bat; ez da asko gelditzen.

Arazoa ez da politikoa. Edo, hobe, politikoa baino askoz gehiago da. Identitatearen arazoa izatea ez da nazionalista izatea, ezpada gehienez ere guztiz rasionalki azkenean beste erremediorik agian ez izatea, nazionalista izanez amaitzea baino, Estatuaren aurka eta herrikeria askoren ere aurka. Identitatearen arazoa ez du nazionalismoak asmatu. Izatekotan, identitatearen arazoak –besteren artean sozialistek, espainolismoari atxikiak, ignoratua eta larriagotua– ekarri du nazionalismoa. Euskal Herriaren triskantza sozial, kultural eta linguistikoa sozialistek euren erantzukizun parte ez eskasa baitute.

Aspaldikoa da euskararen (hizkuntza ezdeus barbaroa) eta euskaldunaren erdeinua: menditar tontoa dela, arlotea, ezjakina, inkultoa, Tubal eta ideologia barregarrien sinestuna, etab., etab. “Vizcaino burro”, edo “más corto que un navarro” esaerak topikoak izan dira Gaztela zaharrean (non ere “vizcaino” eta “navarro”k euskalduna esan nahi baitute). Jada aro inperialetik zetorren destainazko tradizio hori, karlistadekin kanpaina sumin masiboa bilakatu da (“un inmenso clamoreo de odio” altxatu da Espainia osoan, zioen Unamunok) Euskal Herriaren eta euskaldunen aurka: “pedían muchos que se arrasara a sangre y fuego el país vasco, que se acabase de una vez con aquella casta levantisca”. J. Caro Barojak honela zioen garai horretako testu dialogatu bat komentatuz, “escrito al término de la segunda guerra civil, para afianzar la unidad de España sin duda, nos habla de aquel desdichado patriotismo, que sea de miliciano de morrión, esparteriano o progresista, sea canovista y ‘liberal-conservador’, o sea fascista, da los mismos resultados. Esta clase de diálogos, en los que el ‘castellano’ habla con tono de superioridad absoluta, no sólo se registran cuando hay violencia por medio”. Gerra garaian garratzagoak, bake aldian burleskoagoak, beti euskaldunaren arbuiozkoak. Doi-doi Estatu espainolak euskal erakunde politiko tradizionalak ezabatzen eta Euskal Herria desartikulatzen zuen momentuan, Euskal Herriko sozialistak mespretxu totalaren tradizio horren heredero eta jarraitzaile suharrenak berak paratu dira. “No tenemos más cultura que la cultura hispana, la que nos ha prestado Castilla, Andalucía, Aragón”, ebatzi du Madinabeitiak. Alderdi Sozialistarentzat kulturalki Euskal Herria ez da existitzen. *La Lucha de Clases*-ek: “Quisieramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales (...), que no permitiera la literatura regionalista y que

acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional” (1899). 1890 urte horietan jada Unamunok berak (eta euskal identitatearen oso bere modukoa bakarrik zen defendatzailea) euskal eta katalan identitate eta arazoarentzako sozialisten ulerpen urria salatzen zuen, ez alferrik. Hala, Alderdi Sozialistak, zuzenean asko eta zeharka gehiago, euskaldunentzat identitate espainola gotortzen zuen bitartean, hemen herri bat –identitate bat– desagertzen ari zen, hori sozialisten arazoa izan gabe. Inoiz ez da izan sozialisten arazoa – klase borrokagatik behin, internazionalismoagatik gero, bozketako estrategiagatik hurrena, hurrendamuan zuhurrago delako Primo de Riverarekin kolaboratzea, noizbait abertzaleak klerikalistak omen zirelako, edo Errepublikak aurreragoko lanik bazuelako. Etorri zen Franco, debekatu eta jazarri zuen euskara, pizkunde literarioa zanpatu, eskolak espainolismoaren burdinola bihurtu: euskararen herri jipoitu horren identitatea ez da sozialisten arazoa. Franco hil zen, PSOE gaur ezkertiar moderatua da, ez da klasista, ez da internazionalista, urteotan hagitz aldatu da. Kapitulu horretanxe ez da nonbait ezer aldatu. Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi du, hemeretzi lagun atxilotu, zuzendaria eta arduradun nagusiak egunetan torturatu eta umiliatu; ia lau urte pasa denean oraindik horiek denek kontuak blokatuak dauzkate, epailearen aurrean astero agertzera behartuak daude, Estatutik irtetea debekatua dute; *Egunkaria* bera epaiketa egin baino lehen epaileak likidatu egin du, etab., historia goebbelstar eredugarri bat. Manifestazio erraldoiak egon dira, ia erakunde politiko, sindikal, kultural, eliztar guztiek euren protesta eta solidaritatea erakutsi dute. PP pozik. Eta PSE? Ez da bere arazoa. Ehun urte egon zara itxaroten, ea sozialistak Unamunok eskatzen zuen euskal identitatearen konprentzio

pixka bat izatera noizbait heltzen ote ziren; beste ehun urte itxaron beharko duzula ematen du.

Beraz, horregatik da? Ez, ez da hori ere. Edo, bai eta ez. Bortxaz eta inposizioz, mugak Ebrotik Bidasoara ekarri ziren, euskal mutilak soldaduskara obligatu, zergak ezarri, eskola zentralizatu, lurralde osoan Espainia-Estatu politiko, administratibo, militarra inkatu, eta hortxe dago gaur. Hori ez da kentzen “hori ez dut izan nahi” batekin. Eta zu espainola zara ala ez galderak ere ez dizu horretaz galdetzen. Ordea, Renanek jada bereizten zuen “Nazioa” ez dela *Zollverein* bat, muga batzuk eta aduana bat, edo zerga esparru bat. Nazioa “arima bat” omen da, “izpiritu” bat. Memoria historiko bat esango genuke gaur apika; imajinario bat, mitologia bat. Baina memoria historikoarekin, zeinek ere eman behar omen baitio edukia nortasunari, esan dugu, identitatearen arazorik ez omen dutenentzat ere (kuestionatzen ez duten bitartean behinik behin), arazo handitxoak daude egon: Zein “Espainiak” aurkitu zuen Amerika? (Kataluniak, esaterako, ez baitzuen egin). Zein “Ezespainiak” bonbardatu du Gernika? Gorrík. Toledoko Kontzilioa berdin Espainia batua bada, zer da *domuit vascones*? Covadonga, epopeia nazionalaren hasiera: zer dira Amaiur eta Fossar de les Moreres? Pidal omen da nazio espainolaren teoriko liberal handia, eta esentzia nazional eternoen lorea Mio Cid: *robberknight* bat, juduen iruzurgile, musulmanen sakailo – liberalismoaren maisu perfektua. Judu eta musulmanok, izan ere, ezespainolak dira; baina Averroes eta Maimonides, filosofo espainolak; Abd ar-Rahman eta Boabdil erregeak ez, Kordoba eta Granadako artea bai; Karlos I.a Habsburg bai, Jose I.a Bonaparte ez, etab. Daoiz eta Velarde heroi “nazionalak” eta “abertzaleak”; nolatan Rafael Casanova eta Josep Moraques “erregionalak” eta “nazionalis-

tak”? Espartero bai, Zumalakarregi ez, Arana Goiri ez, Pablo Iglesias bai. Ceuta bai, Perpinyà ez, Olivença bai, Gibraltar ez da negoziatzen. Mairuak, odol inpuro ezespainolekoak; aristokrazia, odol godo espainol garbikoa. “Iraultza” liberala? Zientzia espainola? Ipuinak. Dena ipuin bat azkenean Nazio berri guztia. Dagoena egon Espainia-Estatua da, konkistaren eta krimenaren produktua. Hori zilar eta zetaz beztitzeko –legitimazioa mailegatzeko, horrexen biluzi baitago– liberalak Espainia-Nazio mitiko bat demokratiko samarra asmatu dute, Menéndez Pelayok berehalaxe beste mitologia batekin tradizionalista eta katolikoa lurrazpiratu diena, hau ofizialdu baitu irakaskuntza frankistak luzaro, gaurdainoko ondare zabala utziz.

Historialari progre batzuek –liberalak omen– orain deitoratzen dute, Trantsizioan ez omen zelako aukera aprobetxatu imajinario nazional bat demokratiko eta liberala eraikitzeko (nazionalismo periferikoez bakarrik egin omen dute hori). Ez zen aprobetxatu, ala ezin da aprobetxatu, imajinario zinez liberal bat elkartezina delako antolatu den gisako Estatu batekin, gutxien-gutxienez erradikalki federala ez den bitartean,aldi berean imajinario ezberdinak eta kontrarioak ametituz, ez bat bakar orokorra, historialariok antza betiere idealtzat amesten jarraitzen dutela ematen duen moduan – “España una”ren jarauntsiaren zama: imajinario katalan bat alegia, edo euskalduna, galegoa, andaluzua, diferenteak, edo kontrarioak, “nazionalizat” berdin onartuak, edo berdin da eznazionalizat, sozialki halaber eskuindarra eta ezkertiarra edo beste edozein bezalaxe, Estatuaren ukaziozkoa barne. Demokratikoa eta liberala, gaur, batasun mitologia fundamentalistak XIX. mendearentzat uztea litzateke.

Trantsizioaren mitologia guztia “bi Espainien” gaidipenak obseditua egon da eta halaxe segitzen du. Kritikatu egingo al dugu? Ez derrigor. Baina trantsizio bat, definizioz, eternizatu ere ez litzateke egin behar. Sekula ez da Espainia bata batago izan. Faxista eta faxistakumerik ez dago, ez dago frankista eta gorririk, ez dago bi Espainiarik; denok bat gara, denok demokratak eta liberalak (salbu nazionalista periferikoak, noski). Ahazturaz eta remakez, memoriak zein ideologiak, denak nahastu eta berdindu dira. Atzoko sozialista gorriak orain liberal zuriak dira (Prioreten “socialista a fuer de liberal” leloa gustatzen zaie: ez liberal eta ez sozialista askok lotsaizunak estaltzeko zapitxo literario oportuno bat). Komunista batzuk eta anarkistak eskeman ez baitira erosoei sartzen, horiek hobe da marjinalak deklaratu. Espainia bat, pentsamendu bat. Zapaterok Espainia liberal bat aldarrikatzen du. Aznarrek liberala aitortzen du bere burua, eta Esperanza Aguirrek. Liberala besterik ez dago orain. Savater liberala, Maria San Gil eta PPren eminentzia grisa duzu Donostian, Madrilen progresia sozialista liluratuaren faro argitsua da, edo izana da oraintsu arte (nahiz haren pentsaera, berak aitortuki, sozialista ez beste edozer izan den betidanik). Pentsamendua oso gutxi berrukituz, J. Juaristi liberalak, ETAtik, Euskadiko Ezkerratik, PSOEtik, PPraino xuxen-xuxen paseatu ahal izan du, beti triumfalki. Mario Onaindia, bera ere zerbait paseatua eta PSOEko liberala ordurako, Espainia berri horren imajinariorako historian figura gailen baten bila irten, eta ez da kasualitatez Pi i Margall eta Errepublikaren batekin topatu, ezpada monarka batekin eta absolutista bera: Karlos III.a despota ilustratua, Inperioko zoko guztietan hizkuntza bakarra inposatzen inoiz egon den tematuena. Etc., etc. Berriro irakurleari utziko diogu aukera emigrante edo transfuga intelek-

tualen adibide gehiago berak gomutatzeko: ezker abertzale-
tik EAJ-PNVra, PNVtik PP-PSOE frontera, PSOEtik PPra...,
den-denek zinez liberalak izanez amaitzeko. Dena onartzen
da liberaltzat (razionala, etab.), salbu espainola zaren ala ez
lipartxo bat dudatzea.

Alta, ez dirudi zure identitate espainolaz dudak dituen
lehena zarenik. Egia esan, espainola izan ala ez, zer axola zai-
zu hori zuri?! Zer axola zaie beraiei?! Ulertzen ez duzuna da,
euren identitatearen arazorik ez omen duten horientzat, zure
identitatea zergatik den hain arazo garratza.

Baina, zein identitatez galdetzen zuen benetan, ezer gal-
detzen bazuen, galdera horrek? Zure hautu librez zeuk one-
tsiaz, ala Botere batek bortxaz ezarriaz? Ez izatea ahal eta
libre duzun zerbaitez? Zeren eta, Espartero eta Canovas ez-
kero, zure espainoltasun politikoa, ez izan ezin duzuna da,
ez bada behintzat karlistaden ondoko emigrazio uholdeari
zuk ere jarraituz-edo. Eta galderak zinez galdetzen dizuna
da gogobeterik eta pozez al zaren izan beharra daukazuna,
galeriano zoriotsu.

Beharra eta alaitasuna ez bide dira gustura ezkontzen or-
dea. Unamuno espainolista porrokatua zen. Baina espainol
jatortzat hartu ohi den oro gorrotatu egiten ei zuen: “lo con-
fieso, no solo no soy latino de raza (como vasco que soy)
sino que aunque con la mente procure comprender el latinis-
mo, mi corazón lo rechaza”. Baroja, alderantziz, antiespai-
nol amorratua zen. Baina, beste erremediorik ez dagoela eta,
hizkuntza eta kultura espainolean jardutera deitzen zituen
herrikideak – euskal “arrazaren” ezaugarri ezespainolak se-
tatsu gordez betiere. Zein “ezinbesteko” identitate espainol
da hori? Ikusten denez, espainola izateko edo ez izan nahi
izateko modu ezberdinak egon litezke.

Begirutzen duzu inguruan, eta posibilitate diferenteak ageri dira eskura. Bat erabaki sendoarena da. Euskal Herrian badaude espainolista konfesionalak, are euren kredo politikoa artikulu behinena espainolismoa dutenak ere, azken urteotako PP-PSOE fronteak aski argi erakutsi duenez. Espainolak dira eta izan nahi dute. Ez dute identitate arazorik. Badaude espainolak izan nahi ez dutenak, are biziki nahi dutenak ez izan, eta izan ere nolatzobait ez direnak, baina nolatzar bait direnak nahitaez. Badute identitate arazoa! Bi jarrera hauek dira errazena kritikatzekoak (“moderazioak” a priori plus intelektual handia dauka oraingo gizartean), baina aspalditxoan beraiek markatu dute erritmoa onerako zein txarrerako. Eta, oneski esan, arazoaren muina biotan ikusten da ongiena. Beste modu bat abstentziozkoa-edo duzu, eta dirudienez orain berak jarri nahi du modan. Hori ere bi eratakoa izan liteke. Bat, gauzak utziz, doazela beren bidetik. Hots, espainolismo ez agresibo bat (hori ere identitate arazorik gabe). Jarrera hau, politikoki zikindu gura ez duen intelektual, literato, sindikalista edo apaiz jende askoren aterpe erraza izaten da. Propio espainolistak sentitzen ez badira, oso komodo dira espainolak. Zeharbidez, beraiek dira identitate dominatzaileak razional, liberal, moderatu bezala jendaurrean justifikatua agertzeko, hots, arazoa estaltzeko, behar duen berme balioetsuena. Paraleloan, ordea, abstentziozko espainolista “moderatuon” disgusturako, inkontziente axolagabea bai, baina euskotasun edo euskaltzaletasun kontziente bat ez agresiboa ez da ematen eta ezin da eman (euskaltzaletasun nahiz nazionalismo oportunistak bai, espainolistoak bezalaxe), *contradictio in adjecto* da, bere izaeraz beraz erreibindikatioa izan beharra baitauka, jada total etsia ez bada behintzat, edo estetiko edo zientifikoki soil-soil interesatua. (Honek berak

nahikoa erakusten du alternatibien abiapuntuko bertako desoreka). Izan ere, euskalduna izan eta beste ezer ez naturaltasun guztiz, ezin da, gaurko Euskal Herrian inon ezin delako naturalki euskaraz bakarrik bizi, poblemarik gabe, lanean, dendan, klinikan, Unibertsitatean, Ertzaintzan, garraio publikoetan. Gehien-gehiengo absolutuko batzar batean euskaraz hitz bat egiten duzu, eta beti dago laidoturen bat. Euskaraz bizi gura duen euskalduna egun osoa atergabeko teinka, porrot, kontzesio, enpeinu, estresean bizitzera behartua dago. Baina jarrera erreibindikatiboren bat hartzen baduzu, politiko edo kulturala, are problema gehiago izanen duzu. Eta espainola izan nahi ez duenak, ez dizut esango zer-nolako eguna pasa beharra izaten dizun jaiotzatik ehorzketara, kirol ikuskizunetatik justiziako epaitegira, NAN, autoaren matrikula, eskola, eliza, irrati-telebistako albistegi, jaiegunen kalendario, etab., etab., biziera guzti-guztia, aipatu beharrik ez dagoen beste prezio altuagoko estualdiak aparte. Euskal Herrian, euskaldunarentzat, eta are gehiago espainola izan gura ez duenarentzat, biolentziaz betea dago eguna goizetik gaueraino, Jainkoaren grazia handia baita biolentziak ez gehiago hartzea beste forma batzuk. Melankolia kontzeptu egokia izan liteke literatoren baten bere buruaren autodiagnosirako. Agian gutxiago iseka eta zapalketa artean supizturiko matxinada baten analisisan.

Esango zenuke, hortaz, zure erantzuna bien artean zalanztatzen dela: erabakiaren artean, Espainia horretako espainola ez duzula inola izan nahi, eta abstentzioaren artean, zure jarrera funtsean politikoa baino gehiago beste zerbait delako: ekologia sozial minimo bat gutxiengoen begirune sakratua erreibindikatzen duena, protesta etiko bat inperialismo politiko eta genozidio kultural espainolaren aurka, exigentzia

politiko bat edozein herri bere buruaren jabe izateko eskubi-dearentzat, etab. Azken batean zure zalantzak espainol zaren ala ez, hortik sortzen dira. Ezin duzu baietz esan, eta ezetz nahiago zenuke ez esan. Izan ere, hipotesi batean posible da irudikatzea beste Espainia batean zu ere izan zintezkeela arazorik gabe espainola. Askotan inpresioa ematen baitu, abs-tentzioso espainol aipatu horiek, ez dagoen Espainia bateko espainolak izateko fikzioan errefuxiatu bizi direla. Egungo Espainia ez dute maite, liberalak dira – baina ez dadila gero imajinarioetan ere ukitu haren batasuna! Puntu horretan unanimitatea osoa da Rouco kardinala eta Eliz Hierarkia toledotarrenetik progresia espainol laizisteneraino. (Razionalitate kontu hutsa da, noski, ez nazionalismoa). Non dago, edo nork egin behar du, identitatearen arazorik gabe denak eroso kabitzeko Espainia eta Frantzia hori?

Posibilitate metafisikoak ez lirakeke eztabaidatu behar. Anartean, Espainia-Estatu horren eta horren antolaeraren razionalitate bakarra, eta guztia, autonomikoa deritzon ere, bortxa eta inposizio historia batena dela huts-hutsik, pentsatuko duzu. Eta propaganda eta gezurraren razionalitatea Espainia-Nazio horren mitologia guztia. Estatuak indartsu diraute, baina Estatuaren zentzuak ez, Estatu-Nazioa sobran dago. Ez du merezi historiaren martxak adina kritika razionalak ere funditua duten Espainia-Nazioaren mito fundamentalista horri eusten tematzea. Nazioak gu gara. Estatu-Nazioaren esanahi, XIX. mendean positibo posiblea, bukatua dago. Zertarako hori berregin, zergatik ez hobe desegin? Bost axola zaizu espainola zaren ala ez, izan beharra badaukazu. Baina galdera hori egiaz galdera bat baldin bazen, zuk erantzungo zenuke: hola eta hala espainolak izateko esperimenduak nahi-

koa esperimentatu dira, ez dira batere ongi atera; zergatik ez esperimentatu beste zerbait?...

Ez dela zilegi? A!, bai, Konstituzioagatik. Espainola izan nahi ez izateko, ehun eta batgarren arrazoia hori.

Estatuaren atzaparrek zingorrek segitzen dute zetazko ganteen azpian. Diskurtso light bat badago, jeneralean abertzaleen aurka ustiatzen dena, Estatuarena pasea dagoela, iraganekoa dela. Dagoeneko munduan Estaturik ez balego bezala hitz egiten dizute, edo egiazko arazoa honezkero Estatuaren ez baltz legez. Hori, bere moduan, ez da erabat gezurra; eta, beste modu batean, erabat gezurra, eta gezurra baino okerrago. Estrasburgoko parlamentarientzat egia izango da. Baina zuri han ez dizute ezer eskatu. Zu, de fakto, ahaleginetan alfer-alferrik abailduko zara, zure gaineko Estatuak hatz txikia ez mugitzearrekin bakarrik; ez pilotako euskal federazio bat edo hockey selekzio katalan bat antolatu ahalko duzu, ez Trebiñuko arazotxo konpondu, eta ez dira mundua hankaz gora jartzeko auziak, bi adibide sinboliko bakarrik aipatzeko. Inoren lotsagarria gertatzen da orduan akademiko eta politiko probintziano batzuen diskurtso jakintsuairena Estatuaren ezdeusaz, multinazionalen ekoa sinestuki simulatzen ari direla dirudiena. Estatuak gaitzituak, egotekotan, BBVA edo Siemensentzat baitaude, ez zuretzat. XIX. mendeko Estatu zaharrak goitik agian zabaltzen ari dira Botere ekonomiko, finantzario, militarren multiuztarketa errazagotzeko; behean herri(ar)en kartzelak izaten jarraitzen dute, gehienez ere kartzelaren gestioa deszentralizazio modernizatuz: zuzenbide eta epaitegien kontrolaz, Europan errepresentazio bakarraz, testu eta ikasgaien kontrolaz, ikerketa eta profesoreen kontrolaz, lan harremanen kontrolaz eta sindikatuen subornazioz, Estatuak funtsean den-dena kontrolpean dauka eta nahierara

egiten du bere kontrolaren erabilera gustu duen guztietan, *quia ego nominor leo*. Adosturiko transferentziak ukatu, *Egin* itxi, presoak legez kontra sakabanatu, epaiketa politikoak eszenaratu, zigorra bete eta gero presoak ez askatu, etc. Estatu zaharra da eta zaharkitua, bai. Baina zure arazoa horixe da, eta askalekuak lehenik eta azkenik Estatu zahar zaharkitu horrekin zerikusi beharko du, ez Postestatu edo Posnazionalismoen literatura faunekin.

Borroka politikoari bere bidea lagata, liburu bat idazten duenak beste lan batzuetan dihardu: herri bat badagoelako kontzientziari eutsi, erraustu ziguten memoria berpiztu, galtzailearen arrazoa errebindikatu. Batez ere, etorkizun posible baten horizontea barrundatu. Liberalak, karlistak, sozialistak, anarkistak, nazionalistak, komunistak, errepublikarrak, badakizu historia guztiarenak garela herederoak, eta, beraz, haien guztienak. Denak dira zure arbasoak, milesker guztiei. Baina gero, historia horretatik guztitik zeure burua desheredatu, eta bide berrien bila ortozik irten gura duzu mundura zure jendearekin. XIX. mendeak mugak jaso zituen herrien artean, eta herri baten barruan askotan, Boterearen bastida berriak. Ez da aski orain Botere hari estutxoak bilakatu zaizkion harresi zaharrok eraistea. Herriak behar dira berrelkartu, eta herri banatuak batu. Koroa orain Europa da, eta zu gallegoa, katalana, euskalduna, gaztelaua, biarnesa izanda nahikoa izan behar du berriro munduan ibiltzeko. Zure egitekoa etorkizuna da.

Hala, bada, nazionalismoa ez dakizu, baina ez dependenzia eta separatismo sistematikoa espermentatu gura duzu mundu zahar horrekiko, hori utzi, ahaztu, oso ongi jakinda mundua zer den gaur eta munduan non zauden zu – akordatua baitzaude zenbat kilometrora dagoen Madril eta zen-

batera Paris. Alegia, razionalitate berri bat –Estatuaz ezaxola ezin denez, hura ahal den gehiena ahaztuz, zilegi den gehiena baztertuz–, herriak batzen dituen, ez Botereak. Eta ororen aurretik Botere hemeretzigarrentiarrak barnebanaturiko herriak batzen dituen. Europa bateratuz badoa, mundu osoa baldin badoa bateratuz, razionala Euskal Herria ere bateratuz joatea da. Irrazionala, behiala bortxakeria irrazionalak inposaturiko egiturak orain ere mantentzen enpeinatzea.

(2006)

AURKIBIDEA

HITZAURREEI HITZAURREA (Xabier Mendiguren)	5
MESTIZAJEA, MULTIKULTURALISMOA	9
JUDUAREN ISPILUAN EUSKALDUN BAT IKUSTEN DA	43
HISTORIA EZ DA IKUSTEN, ASMATU EGITEN DA	75
ESPAINOLA IZATEAZ	107